

EUSEBIO ERKIAGA

# *Arranegi*

*Moldakuntza eta sarrera: Iñaki Sarriugarte*



SUTONDOAN

SUTONDOAN bilduman bizkai-euskeraz idatziriko obrarik bikainenak sartzen ahalegintzen garean aldetik, gogoangarria da Eusebio Erkiaga laugarrenez ekartea sorta honetara: *Jaioko dira, Batetik bestera* eta *Txurio txoria* elebarrien ostean, bere hizlaurko lanetan ezagunena falta zan: *Arranegi*. Aspaldion argitaratzeko genduana, 1958.ean lehenengoz aterarikoa, egilea hil eta ostean dakargu sortara, nahiz beragaz aspaldi berbatuta egon horretarako.

*Arranegi* elebarria, herrikoseme eskerroneko batek bere sorterriari eginiko gorazarre bihozkoia dogu: Lekeitio maiteari, artean Txomin Agirrek *Kresalan* Ondarroari egin eutsan legetxe.

Sarreragile eta atontzailea, Iñaki Sarriguarte, lehen bere ezaguna dabe sorta honek eta Erkiaga berak, artean beronek prestatu ebalako harako *Batetik bestera*.

Irakurle gazte nahiz helduak bildu-ahala altxor idoroko dau obrako orrietan, baldin euskeraginen zalea bada.

## SUTONDOAN SORTA

1. EGUNEKOA  
«Kirikiño» (Ebaristo Bustinza)  
Aurkezpena: Xabier Perea-Jesus M<sup>o</sup> Agirre
2. JOSETXO  
Jose Manuel Etxeita  
Aurkezpena: Aitor Etxebarria-Adolfo Arejita
3. AZALPENAK  
«Lauaxeta» (Estepan Urkiaga)  
Aurkezpena: Jon Kortazar
4. BERTOLDA ETA BERTOLDIN  
G. C. della Croce-«Otxolua»  
(Bernardo M<sup>o</sup> Garro)  
Aurkezpena: Adolfo Arejita
5. JAIOKO DIRA  
Eusebio Erkiaga  
Aurkezpena: Lino Akesolo

EUSEBIO ERKIAGA

# *Arranegi*

*Moldakuntza eta sarrera: Iñaki Sarriguren*

*2. argitalpena*



LABAYRU IKASTEGIA



**Bilbao Bizkaia Kutxa**

Bilbao  
1994

## SARRERA

«Sutondo»ra dator barriro Eusebio Erkiaga; ia-ia etxeko supazter eukan liburu-bilduma honetara datorkigu beste behin. Izan ere, ondo baino hobeto ezagutzen dau sutondo honetako laratzuak lekeitiarra, adiskidetasun honen lekukotzat *Jaioko dira*, *Batetik bestera* eta *Txurio txoria* elaberriak ditugula.

Oraingoa, esku artean daukazunau, Erkiagarenetan lehenengoa dozu, eta 35 urte beterik ikusten dau argia bigarrenez. Beltxu, esango dau batek baino gehiagok, arrazoiz esan ere, literatur hizkuntzak —maskildu eta kolorebakotuko ez bada— behar-beharrezko daualako idazle klasiko eta klasiko bihurtu-aginean ditugunen ekarri eta ikutu jator eta aberasgarria.

Tamalez, Eusebio Erkiagak ez dau hainbeste maite eban elaberi honen bigarren argitalpena kalean ikusiko. «Zeruko Giltzaria»k aurtengo maiatzaren azken egunean zabaldu eutsazan «Betikotasun kai»eko ateak «Aita Manuel»en ondoan betiko atsedena hartu eian. Barkatu beigu arranegitar nekaezinak atzerakuntza eta izan bekio argitalpen hau gure bihotzaren erdiko omen apala.

Liburuari eginiko «Atadian» esaten deuskunez, bere jaioterriari eutsan maitasun haundiak bultzatu eban Erkiaga *Arranegi* hau idazten:

Ene jaioterri kutuna, inoiz neurtitez goretsi izan arren, noizbait hitz lauez ere, ederresteko zorra neban gogotan hartua.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Liburuko aipamenak egitean, bigarren edizino honen ortografia erabili dogu.



Halan ere, Erkiagak euskereari eutsan amodioa ez zan Lekeitiorekikoa baino txikiagoa. Hain dagoz euskera eta Lekeitio alkarrri atxikiak! Horrexegaitik ekingo deuto anai-arteko gerra zitala amaitzeaz batera gazte-gaztetan hasitako idazle-bideari, «arrenkuratsu» ekin ere:

Luma, ene luma ori!  
beñola azkar ariña ziñan  
nagirik bageko ardatz;  
ainbatean ez txori  
eguratsean zearkari  
zalu, jolasti, ariña,...  
Zer dala-ta orain orren latz?<sup>2</sup>

Berandutu barik zorroztu eban Erkiagak idazluma; baita gerotxuago, Aingeru Irigarayk kinatuta, prosaren barruti barrian sartu ere. Irigaray nafarraren ustez olerki larregi egiten zan euskal literaturan, beti ere prosaren kaltetan; eta zelan edo halan zirikatu egin eban Erkiaga, Txomin Agirre eta Kirikiño-ren bidetik jarraitu eian.

Hizkuntzari berari bagagokioz, kezka mingarri bezain ziztagarria helerazoten deusku Erkiagak lehenago aitaturiko «Atadian»:

Oraintxe, Euskera beste hizkuntzen menpean eta euskaldunen zabarkeriz gero ta galtzenago dogun egunotan (...).

Bere hizkuntza nahi ezik, ahaztutzer ta gal-hurren dauan Euskal Herri gaiso honengana, isuri begi Jaunak bere erruki azkenik bagea.

Euskaldunon zabarkeria eta itxikeria salatzen zituan Erkiagak *Arranegi* amaitu ebaneko urtean, 1950ean hain zuzen ere. Jakina danez, harrezkero gauzak asko aldatu dira gure Euskalerrian eta ezin ukatuzkoak dira emon ditugun aurrera-

---

<sup>2</sup> «Arrenkuratsu», 1940. Laster agertuko dan olerki-bildumatik hartua.

pausuak, eta baita euskal kulturak jaretsi dituan lorpenak ere. Halan eta guztiz ere, euskerari dagokionez, ezin esango dogu Erkiagak zituan kezka zeharo aienatu diranik. Ezta urrik emon ere! Alderantziz, badirudi euskal gizarteak normaltasun pitintxu bat lortu dauan unean, barriro jo izan dogula errezkeriara, atzera lerratu garala epelkeriara.

Liburu-produkzioaren gorakada, zenbait komunikabide euskaldunen agerpen itxaropentsu edota euskerazko irakaskuntzaren hazkunde errimea sarri ere sarri aitatzen diran bitartean, bigarren maila baten isten ditugu euskeraren famili transmisioaren etendura-arriskua edo, esaterako, ohiko gune euskaldunen erdalduntze prozesu geldiezin. Izan ere, komunikazio-tresna eta kultur sorkuntzarako lanabestzat barik, ikur sinboliko, ideologiko edo politikotzat hartu ohi dogu sarriegi euskaldunok hain sutsu «defenditzen» eta laudatzen dogun hizkuntza.

Zoritzarrez, benetako egoera ez da, gure uste apalez, askok uste dauan bezain itxaropentsua. Honen haritik, Bernardo Atxaga eta Ander Lertxundi idazle haundiek euren kezka eta arrenkurak haizeratu zituen Euskal Herriko Unibertsitateak aurtengo udaldian (1993.ean) Donostian eratutako «Literatur sorkuntza eta itzulpena» izeneko ikastaroan.

Atxagarentzat: «Euskerazko kultura maite dutela esaten duten askok ez lukete jakingo zer esan, gustoko duten euskerazko poema bat aipatzeko esango bagenie». Geroago, inolako ardurarik barik egiten diran itzulpen eta edonon jartzen diran testu trakets, desegoki eta edonongo hizkuntzan onartezinak liratekeanak —kasurik gehienetan oso ondo ordaintzen diranak, bestalde— aitatuz, honako hau gehitzen dau asteasuarrak: «Euskaldun batentzat Euskal Herritik paseatzea benetako tortura izaten da». Edozelan ere, baieztapenik latzena eta benetan zer pentsatua emon behar leuskiguna, honako hauxe dogu: «Euskal Herria antzerki baten antzekoa da, antzespen hutsa, eszenategi handia»<sup>3</sup>. Zoritzarrez, ez dabilkigu Atxaga Erkiaga-

<sup>3</sup> *Euskaldunon Egunkaria*, 1993-8-21, 19. orr.

gandik oso urrun euskaldunon euskerarekiko jokabidea epaitzerakoan. Noiz, eta berrogeita hiru urte geroago!

Bide beretik, Andu Lertxundik itzulpengintzak gurean izan dauan loraldia eta arlo honetan aurrera egiteak euskal literatur sorkuntzan izan leikean eragin positiboa azpimarratu ondoren, euskerak aspaldiko hogeitau urte honeetan nozitu izan dauan «lur jausia» sekulakoa izan dala dinosku. Bere belaunaldiko idazleak zabartzen ari diralako susmoa ere badau zarauztarrak:

Euskararen erronka aspaldi gaindituta dutela iruditzen zaie euskararen inguruan edo euskalgintzan dabiltzan nire belaunaldiko asko eta askori. Gaur egun «demodé» dugu euskarari sakontzen jarraitzeko ideia, idazleok ahaztu egin dugu literaturak hizkuntza duela makulu, eta, horrenbestez, utzia dugu irakurketa, klasikoen irakurketa batipat, eta joera horrek zabartu, ozipindu eta galdu egin gaitu.<sup>4</sup>

Euskal literaturan iturrean ibili izan dan Erkiaga eta gaur egun bide-erakusle dabilkiguzan Atxaga eta Lertxundiren kezka honeek izan bekiguz hausnarketagai, lozorrotik itzartu eta lanari gogotsu ekin deiogun!

Hortxe dago, bestalde, Andu Lertxundiren gonbidapena literatur hizkuntza klasikoengandik aberastu eta edertu daigun. Horretarako lehengai ezin aproposagoa damosku Erkiagak, iturri ezin gardenagoa dogu lekeitiarraren obra. Bertan hizkuntza umotu bat ezeze, baliabide kultu eta herrikoak ere aurkituko ditugu, beti ere euskal kutsuz beterikoak, erdal iragazitik pasatu gabeak. A. Pernando Mendizabalen hitzetan:

Eusebio Erkiaga'k euskerazko gogoia dauka, euskerazko bizitza, euskerazko arima. Eta orren lur gozotan azeitzen dan landareak, mardula eman bear naitaez frutua.<sup>5</sup>

---

<sup>4</sup> *Euskaldunon Egunkaria*, 1993-8-20, 20. orr.

<sup>5</sup> *Euskera*, V, 1960, 442. orr.

## 1. EUSEBIO ERKIAGA

Eusebio Erkiaga Lekeition jaio jakun 1912. urteko irailaren 4an, «Antzar egunez jaio ere», gurasoak Esteban Erkiaga eta Leonarda Alastra natxituarrak izan zitularik. Oinarritzko ikasketak jaioterrian egin eta gero, Bilboko Komertzio Eskolan burutu zituan goi-mailakoak eta 1936. urtetik aurrera Bizkaiko uriburuan kokatu eban bere bizilekua.

Erkiaga bere baitako idazlea dogu, gehienbaten berak berataro jardun eta ikasitakoa. Hala ere, lan eta ekinaren poderioz goi-maila lortu eban idazletzan, 1988. urtean Eusko Jaurlaritzak emoniko «Euskal Letretako Saria»k argi erakusten deuskunez.

Bere lehenengo lanak 1930. urtean argitaratu zituan, eta gerra aurreko lanen lekuko *Euzkadi* egunkaria eta garai haretako zenbait aldizkari ditugu: *Ekin*, *Euzkerea*, *Yakintza*,... Gerra garaian eta gerra osteko urte ilunetan ere, zintzo helduko deutso idazle aspertezin honek euskera, euskal kultura eta Euskal-erriagaz eukan konpromezu haustezinari. Urte batzuk geroago, gerrak inposatutako egoera hits eta bildurgarria laxatu egiten danean ezin konta-ahalakoak izango dira Erkiagak euskerari egiten deutzazan eskeintzak, ia-ia literatur jenero guztiak lantzen ditularik. Izan ere, urteen zama eta jasandako gaisoaldiak gora-behera, ekinean, lanean jarraitzen eban beti, gaur eguneko euskaldun geldo eta nagi askori euskera eta euskal kulturaren aldeko borroka nola gauzatu behar dan ezin egokia-  
go erakutsiaz.

1952. urtean, R. M<sup>a</sup> de Azkue hil ostetxuan, euskaltzain urgazle (laguntzaile) legez sartu zan Euskaltzaindian eta Nazario Oleaga hil zanean euskaltzain oso (aulkidun) izendatu eben. Sarrera hitzaldia bere herkide prestu eta Azkue euskaltzainburenaren aita zan Eusebio M<sup>a</sup> de Azkue idazle jatorrari buruz egin eban<sup>6</sup>, bere jaioterri eta hango bizilagunei eutsen txerea

---

<sup>6</sup> «Eusebio M<sup>a</sup> de Azkue gizon eta idazle», *Euskera*, 1974, XIX, 325-349. orr.

barrero agertuaz. Euskaltzaindian urte askotan zehar eginiko lana eskertzeko, Euskal Akademiak Zilarrezko Domina eskeini eutsan hil aurreko egunetan.

Erkiagak jasotako omenek zerrenda luzea osotuko leukieenez, guk honako hiru honeek aitatu gura gendukez: 1985ean Labayru Ikastegiak Derion eskeinitako omenaldi samurra, 1988. urtean Lekeitiok «Seme Kutun» izendatu ebanekoa, eta 1992.ean Bizkaiko Foru Aldundiak bere obra osoa eskertzeko opa eutsana.

Idazlearen lan guztien aitamena egitea ere luzeegi joango litzakigunez, labur-zurrean, harek jorratutako arloak eta arloan arloko lanik esanguratsuenak aitatuko ditugu bakar-bakarrik.

2. 1. Kazetaritza arloan ezinbestekoa dogu *Eguna* egunkaria aitatzeta. Egunkari hau 1937. urteko lehen egunaz batera jaio zan eta Bilbo frankisten atzaparretan —ekainaren erdi aldera— jausi zan arte iraun eban. Euskera huts-hutsean egiten zan eta Eusebio Erkiaga, Agustin Zubikarai, J. Mari Arizmendiarrieta eta Alejandro Mendizabalek osotzen eben, «Abeletxe»k zuzentzen eban erredakzio-taldea. Honan zer dinoskun Erkiagak, Eusko Jaurlaritzak *Egunaren* ale guztiekin atondutako edizio faksimilaren hitzaurrean:

Plantilla motxa genduan: kaleko lanetarako ia inor ez; guda-oinetara joateko, are ezago. Erbestean ez geunkan korresponsalik. Itzulpen lanen betegarritzat mesedegarri genduzan kaleko lankideen idatziak, olerkiak, etab. (...)

Nagiak uxatuta, adoretu eta borondate onez egin genduan lanak, harik 52gn. urtera gorralpena merezi izan dauala jakitea, txit gozagarri izan jaku.<sup>7</sup>

Bestaldetik, ez da ahaztekoa 1964tik 1970era bitartean Bilboko «Banco de Vizcaya»k argitaratu izan eban *Boletín informativo* dalakoan Erkiagak egindako lan eskergea. Boletintxu

---

<sup>7</sup> *Eguna*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1990, 45. orr.

hau euskera hutsean argitaratzen zan eta erbesteko euskaldu- nei bialtzen jaken, dohan bialdu ere. Lan honen ardura osoa Erkiagak beragandu eban eta guztira 28 alek ikusi eben argia. Lanon sail oso bana Euskaltzaindiak eta Labayru Ikastegiak daukie, Erkiagak berak emonik.

2. 2. Erkiagaren olerkigintza oso oparoa dan arren, idazle- ak ez dau bere obra guztia argitaratuta ikusteko zoririk izan. Halaz ere, *Euzkadi*, *Euzkerea*, *Ekin*, *Yakintza*, *Egan*, *Gernika*, *Olerti*, *Karmel* eta abar luze baten aurkitu daitekezan olerkien bildumak laster ikusiko dau argia, Erkiagaren olerkigintza ira- kurlearen eskueran jarriaz. Idazlearen gogoko ziran olerkietariko batzuk aitatu behar izan ezkeru, hurrengo biok azpimarratuko gendukez: «Illobi izengabea»<sup>8</sup>, Bilbo ondoko Artxanda men- dian gerra garaiko hilobi baten aurrean egindako gogoetak ba- tzen dituana, eta «Ez zaitez Gernikara joan, Lauaxeta»<sup>9</sup>, zati biko poema laburra.

2. 3. Itzulpengintzari lotu ezkeru, argitaratu barik dagoan *Aspaldiko Maigret* Simenonen polizi nobela batetik egindakoaz gain, ezezagunagoak jakuzan lan neketsu eta isil ugari egin izan ditu Erkiagak, beti ere euskeraren mesedetan zalakoan. Hona hemen lanotariko batzuk: Bizkaiko Batzar Nagusietako Agi- riak (1979-83), Bilboko «Academia de Ciencias Médicas» al- kartearen aldizkaria (1978-88), Euskalerriko Itunben Ekonomi- koa (1981), *Bizkaia profunda* liburua (1990),...

2. 4. Bestelako lanetara jorik, antzerkiari dagokionez lan nagusi bi aitatu daitekez: lapurteraz idatzitako *Sinisgorra* argi- taragabea<sup>10</sup> 1952an Donostiako Saria merezi izan ebana, eta *Kanpaien atsekabez*<sup>11</sup> bizkaieraz idatzitako lau unetako lan ari- na.

<sup>8</sup> «Illobi izengabea», *Egan*, 1962, XX, 12-15. orr.

<sup>9</sup> *Idatz & Mintz*, 18-19, 1989, Separata.

<sup>10</sup> Antzerki-lan honen zati bi 1952.eko *Egan* aldizkarian argitaratu ziran.

<sup>11</sup> *Euskera*, 1960, V, 259-272. orr.

Ipuinak ere oso ugariak dira Erkiagaren obran eta barreiatu-rik dagoz euskal aldizkarietako orrietan zehar. Aitagarriena, 1984. urtean Bilboko Udalaren Saria irabazi eban *Untzortxu* genduke.

«Kalekoa», «Edo», «Eusebi», «Endaitz» eta «Erkiagarre» ezizenez izenpeturik, dozenaka artikulak eta idatzi daukaz Erkiagak argitalpen desbardinetan. Guk, halere, Erkiagak egindako hitzaldi eta saiakera kutsuko artikulak azpimarratu gura gendukez, lanok euskal idazle edo kultur eragile zenbaiten inguruko informazio txit interesgarria eskeintzen deuskue-eta. Lanotan, Azkuetar aita-emeak, Txomin Agirre, Kirikiño, J. M. Etxeita, Fermin Irigaray, Orixe eta abarri buruzko zertzelada eta eritxi ugari bezain interesgarriak aurkituko ditu eurotara hurreratzen danak. Materiale honegaz edizio modukotxu bat atara ezkerro mesede polita egingo geunskio euskal literaturaz arduratuta dabilen euskaldunari.

Erkiaga musikazalea ere bagenduan, azken hau jende gixtiagok badaki ere. Doinuren bat edo beste konposatu eban arren, gehienbaten abesti, zarzuela eta opera kantagaiak atondu zituan, aitagarrienak *Ezpatadantza* eta *Usoa de Alos* ditugularik. Nabarmentzekoak dira, era berean, M. Ravel eta J. M<sup>a</sup> Altuna musikagileei eskeinitako lan ederrak.

2. 5. Nobelagintza dateke, Eusebio Erkiagak euskal literaturari eskeini deusnan oparirik beteena, oparoena, mardulena. Guztira, sei nobela argitaratu zituan, elaberriak epealdi jakin bitako emoitzak izanik. Lehenengo lau elaberriok 1950-63 urteen bueltan burutu zituan (halan ere, *Txurio txoria* ez zan 1986. urtera arte argitaratu) eta azken biak 80ko hamarkadan. Ikusi daiguzan banan-banan.

2. 5. 1. *Arranegi*, Itxaropena, Kuliska Sorta 19-20, Zarautz, 1958, 197 orr.

«Bizkaiko Kultur Billera»k emoniko saria jaso eban nobela hau, idazleak bere jaioterriari eta bertako berbeta, ohitura

eta seme-alabei egindako kantu amultsu eta bihozkorra dogu. Hurrengo puntuan zabalago jorratuko doguz liburuaren nondik norakoak.

2. 5. 2. *Araibar zalduna*, Itxaropena, Kuliska Sorta 50, Zaurantz, 1962, 171 orr.

Elaberri honek Euskaltzaindiak 1958. urtean eratutako «Domingo de Aguirre» saria irabazi eban. Gipuzkeraz idatzita egonagaitik idazlearen bizkaitartasuna agirian dago liburu guztian zehar. Ekintzaren kokaleku nagusia Bilbo dogu eta egileak, zaldun gonazale baten eskutik, herri handietako giro nahasian sartzen gaitu, gizakien gogo-grinak eta jokera azaleratuz.

2. 5. 3. *Batetik bestera*, Itxaropena, Kuliska Sorta 51, Zaurantz, 1962, 204 orr.

Labayru Ikastegiak 1985. urtean elaberri honen bigarren argitalpena atara eban «Sutondoan» bilduma honetantxe. Lehenengo elaberria eta aurreragoko guztiak legez, bizkaieraz burutu eban Erkiagak honako hau. Bertan gazte baten galdu-gordoko ibilerak kontatzen deuskuz idazleak, argudioa, aurreko nobeletan bezala giro urbano, kaletarrea (Lekeitio, Bilbo, Bartzelona) bilbatuaz. 1961.ean Euskaltzandiaren «Domingo de Aguirre» nobela-saria lortu eban.

2. 5. 4. *Jaioko dira*, Labayru Ikastegia, Sutondoan 5, Bilbo, 1984, 192 orr.

Liburu honegaz jarraipena damotso Erkiagak 1962. urtean etendako produzioari. Oraingo honetan 1936-39ko anai-arteke gerrateko kontuak darabilz lekeitiarrak, baina ekintza guda-oinetik aparte garatuko da. Gerrarekiko ikuspegi zabal eta orokorra emon gura izan euskun egileak, zenbait eskema manikeo gainditu gurean.

2. 5. 5. *Txurio txoria*, Labayru Ikastegia, Sutondoan 12, Bilbo, 1986, 186 orr.



Elaberria 1963. urterako idatzia egoan arren, egileak liburuaren aitzin-solasean (oharrean) esaten deuskunez, gorabehera batzuk zirala medio ezin izan zan argitaratu lumatik hara. Izenez, luze-laburrez eta idazkeraz aldatuta, 23 urte geroago ikusi eban argia *Txurio txoriak*. Hemen Erkiagak lapur artera garoaz, lapurren giroa, euren hartuemonak, egitada eta azpijokoak erakutsiaz.

2. 5. 6. *Iribarrea galtzen danean*, Bizkaiko Foru Aldundia, 1987, 171 orr.

Erkiagak idatzitako elaberrietan azkena dan honek Bizkaiko Foru Aldundiak 1986an eraturiko elaberri-saria irabazi eban. Nobelaren haria ezkontza-hausteaz, senar-emazteen banaketaz doa, baina, era berean, baita gizartean orokorrean dagoan apurketa edo etendura arriskuaz ere. Euskalerrian zulo eta leizeen gainetik zubiak eregi behar dirala dinosku Erkiagak auzo-lan horretarako alkarrenganako maitekundea behar-beharrezkoa dakusalarik.<sup>12</sup>

## 2. ARRANEGI

Erkiagak bere lehenengo elaberri honegaz, jaioterriarekiko eban «zorra» kitutu gura izan eban, «Atadian» apal autor-tzen dauanez. Lekeitio dau, beraz, kantagai eta Lekeitio dogu liburuko protagonista nagusia, orrietan zehar hazur-haragizko kristauak ere agertuagaitik. Betiko Lekeitio kantatu gura izan eban idazleak; baina, batez ere, bere umezaro eta gaztarokoa. Beraz, mende honen lehenengo hamarkadetako Lekeitio ikusi eta ezagutuko dogu, kontaktaren haria «amaitu-hurren egoan udabarriko egun» batez hasi eta irailaren lehenengo egunetara arte, Sanantolifetara arte, luzatzen dalarik.

---

<sup>12</sup> Ikus, Bizkaiko Aldundiaren saria hartzerakoan eginiko berbalditxua: *Idatz & Mintz*, 15, 1987, 21-23. orr.

Elaberria 23 kapitulutan banatuta dago eta korapiloaren ahultasunak sarri behartuko dau Erkiaga betegarriztat hartu daitekezan kapituluak eta pasarteak tartekatzerara. Edozelan ere, liburuaren helburua kontutan izanik, ulergarriago begintzen jaku joera hau, atalok herria goraiatzeko baliatzen ditu-eta. Esandakoaren lekuko «Herrimin», «Zeruetako Giltzari», «Arrantzalearen goraipa», «Arrantzalearen goraipa» eta «Errekako esamesak» izeneko kapituluak dirateke; baita zenbait go-goeta: «Ez dau bizitzaldi honek beti arpegi berbera. Zerua, batean ilun eta ekaitzean agertu arren, hurrengoan argi eder zemaigabe ta, adu-izpiz janzten daki» (182. orr.), eta deskribapen ere: Erakusmeneko Basilika (200. or.)... Uneotan, jakina danez, gertakarien haria etenda eta moteldurik geratzen da.

Kontatzaile orojakilea nongura agertzen jaku liburuan. Batean, pertsonaien autuak iruzkindu nahian-edo: «Nork daki ostera, herri batentzat zer dan ondoen?» (43. orr.); bestean, ohitura zaharrak aldeztuz eta goraiatuz: «Aurretikoengandikoak dituzuen eresoinqueta zoragarriok, mundu zabal honen erdian: ez egizuez ahaztu, ez utzi, ez baztertu. (...) Iraun begie mendeen hondarretaraino!» (60. orr.); eta baita pertsonaien balizko jarrerak epaituz ere: «Nori itandu orduan? Beste adiskide barrukoari, Madalen lagun zintzoari? Bainan, lagun zintzoak ere, edo zintzotzakoak, neskatxen artean behintzat, maitetasun-ele ta solasak agertutean...» (81. orr.).

Denbora joanean, halere, Erkiagak beren-beregi egingo deutso uko aitaturiko joera horri:

Denboraz ikasi egiten da, eta zera ikusten da, egileak ez duela honetaz eta hartaz pentsatzen duena esan behar. Lehen horrela egiten zen, sermoi modura eritziak emon. (...) Gero ikusi izan dut hobe dela gauzak esatea, eta irakurleak pentsa dezala nahi duena.<sup>13</sup>

<sup>13</sup> *Argia*, 1091. 1986-11-16. Laura Mintegik eginiko alkarrizketa.

Pertsonaia nagusiari lotzen bagaiakoz, Lekeitiori, ezin hobeto emoten deusku Erkiagak hango barri. Hor agertuko jakuz Karrazpio, Otoio, Izuntza ta Lumentxa maitasun haundiz deskribaturik; hor herriko kale, kantoi, kantal, eleiza eta enparantzak; azken baten, idazlearen gaztaroko «kale, portu, kaigane ta inguruetako zelai ta txoko kutunak, eta hamaika bidar zapal dutako hondartza biguinak..., guztiak bihotzaren zatiak bezala» (35. orr.).

Ohiturak ere —Erkiagak «oitura-eleberria» deitzen deutso liburuari—, maitasun eta maisutasun aipagarriz margotzen deuskuz: San Pedro eguneko kaixerrenka zaharra (IV. kap.), arrantzaleen aureskua (V. kap.), garbitegiko kontuak (XVII. kap.), Arranegiko andrazkoen otoi-ohiturak (XXII. kap.),... Eta esanbakoa dana, arrantzaleen nahi eta ezinak, pozaldi eta atsekabeak: «Txalupetxean» (II. kap.), «Hegaluzetan» (X. kap.), «Arrantzalearen goraipa» (XIV. kap.),...

Erkiagak 1940-50 hamarkadan egindako lan poetikoan argi ikusi daitekeenez, elaberri honen zimentarrietariko batzuk orduko olerkietan dagoz. Izan ere, izenburuetan ezeze, zenbait deskribapen, pertsonaia eta aipamenetan ere paralelismo handia atzeman daiteke: «Jaioterri kutuna», «Arrantzale zarra», «Arrantzalearena», «Lekeitio'ko andra-aureskua»,...<sup>14</sup> Konpara daizala irakurleak «Lekeitio'ko andra-aureskua» sortatik ateratako hiru ahapaldiok, liburuko 60. orrialdean agertzen dan «Arrantzaleen aureskua»gaz:

Urte asko ez dala  
neure erri maitean  
Doniane jai batzuk  
egiten zirean;  
jai berezi bat beste  
askoren artean  
Andren aureskua zan  
eberdi-aurrean. (...)

<sup>14</sup> Olerkiok aitatutako bilduman argitaratuko dira luze barik. «Lekeitio'ko andra-aureskua» in *Egani*, 1951, II, 13-14. orr.

Gona baltzak jantzirik  
ta gorantz gorriak,  
buruko zapietan  
arro txori biak  
sorbaldetatik txairo  
loradun krespoiak,  
Manilan egiñiko  
sedazko mantoiak. (...)

«Zeure bular arteko  
kabeliña alpakaua,  
zeuri begira dago  
erriko eskribaua...»  
Luisatxu kaiganeko  
gaur be gomutaua  
aurrekua eiteko  
berez izentaua.

Hazur-haragizko pertsonaiak bigarren mailakoak badira ere, euren ingurumarian bilbatuko da nobelan agertzen diran ekintzen hari ahula. Hari mehe horren bueltan ezagutuko ditugu Zuriñe ule lastokara, Arantza beltzarana, Madalen bizkorra eta baita euren buztarkide bilakatuko diran Xirdo arrantzale zintzoa, Kerman ikastuna eta Jon arotz nekaezina ere. Zuriñe dogu, halan eta guztiz ere, guztien ardatza, eta, zer esanik ez, maite-dei gehienen jomuga. Azkenean, zalantza eta atsekabe askoren ondoren Xirdoren aldamenean dastatuko dau maitetasunaren gozoa. Zirimol honen erdian Zuriñeren gurasoek (Txanton Baixa eta Iñese) protagonismo handia bereganatuko dabe —amak hatan be—, alabearen maite-kontuetan partaide izan gurako dabe-eta.

Edozein modutan ere, gainontzeko pertsonaiengan betiko Lekeitio hori, betiko herri xehe hori, errealago begitantzen jaku; nahasiago, zatartxuago inoiz edo behin, baina benetakoago gehienetan. Ezizenez egoki jantzirik, hor agertuko jakuz «Kosepantoni Koloregorri» tabernaria eta «Urpion», «Zaztar» eta «Okotz» marinel gazteak, «txetxu bana mama gozo» edan asmoz, eta behar izan ezkeru «ardauari kirrua atarateko» prest

ere bai. Bene-benetakoak ditugu, era berean, —lauskiagoak arean— «Mordoillo», «Karel» eta «Gorosti», eta natural-naturala atso pipertsuak arimatik hara botatako agirika:

Zer dakarre eurok, kankailuok halakuok! Nortzuk, eta betikoak! Itsasoko urak guztiak ez al jakez noiz edo noiz ardau bihurtuko, halakoren baten nahia edanaz asetu eta ito daitezcan. Bestelako bakea izango genduke auzuotan. Lotsa-galduko, mozkor, hordi, barrua zaragiak berak baino bere baltzago daukazuenok! Lotsatu be, ez zarie egiten-ta, lotsatu be! Zantarreriarri emonda zeharo, partila usainik bada! Lanbasok halakuok! Ez deutsue behingoan diruak sakelik erreko! Zoiaze hondarrera, edo Talara, edo kabuko tanborrera!... (70. orr.)

Dantzaketan ezagutzen ditugun «Zingulin», «Ezpaintxu», «Besomamin» eta garaitikoak; «Perkain» txinelagaz nahastuta dagerkiguzan «Aken», «Zorpel», «Ezten» eta «Kiri» ume koxkorak; garbitegiko «Mikaela Begi», «Timoti Belarri», «Artasitxuneko» bizialarguna edota «Ogimerke», «Anporrandi» eta «Ondobiziñeko» jendeak bizi-bizirik dakusguz, arranegitar peto-peto. Euren ezpanetan txitean-pitean loratzen diran esaldi eta alkarrizketak ere hizkera jator eta herrikoiazen ispilu eta eredutzat hartu daitekezalakoan gagoz.

*Arranegi* idazterakoan, betiko molde zaharrei eutsi eutsen Erkiagak, Koldo Mitxelenak argi azaltzen euskunez:<sup>15</sup>

Aitor dezadan, aurrenik, oitura-elaberrri au zearo lege zaarrekoa dela. Eztu egilleak bide berririk urratu nai izan, aski baitzuen zaarrekin bere asmoetarako.

Hurrengo elaberrietan, ostera, bide barriagoak lantzen eta urratzen ahalegindu zan Erkiaga, ondoko burutazinootan argi adierazten deuskunez:

---

<sup>15</sup> *Egan*, 1958, 102-104. orr. Irakurleak argitalpen beronetan aurkituko dau Mitxelenaren artikulua hau, 27. eta 28. orrialdeetan, Erkiagak berak adierazitako nahia beteaz.

Honelan ba, elebarria historia ez dan arren, erizleen us-tez elebarrian historiaren baten haria, ingelesen plot hori, preminazko da. Nobelea ederlana da-ta, ederlan horretan ager daitekeanak bere jazoerea, fabulazinoa izatea komeni dala erabagirik dago.

Eta horra ba! Nobelea zeharo edo zati haundian asma-tua izanik, elebarri batzuen barruan, ganera, arean edukine-an, benetako eta nunbaiteko historiako uneak, egitadak, ger-takizunak eta pertsonak be, irudituriko lagunen bitartez eta zelanbaiteko jazoeraz azaltzen dira. Lan batzuetan hazur-ha-ragizko izan direan lagunen izanak eta egitada erdi zalan-tzazkoak be, zuzenean edo saiheska idatziak, hor geratzen dira.

Eta orduan, lerro artezak eta jakinak alde batera lagata, historiako orrialde hotzak eta haundigurakoak zeharo ain-tzat hartzeke, nobelagileak askatasun ikaragarritz, literatura berezi honen bitartez, historian agertzen ez direan eta bide batez estaltzen direan zerik ugari, esangarri bihurtu, eta apal eta baretsu, edo ausart, biloiz eta gordin azaltzen ditu, bai arimaren eraginei dagokienez, bai gorputzaren higiera ta zir-kinei.<sup>16</sup>

Goazen barriri, baina, Arranegiko eta *Arranegiren* kresal usainaz gozatzer. Itsas kresala aitatu dogun ezker, ezinbeste-koa dogu Txomin Agirre *arranondoarraren* liburua (*Kresala*) aitatzea<sup>17</sup>. Eraginari dagokionez, Erkiagak argi eta garbi autor-tzen dau, gerra aurreko urteetan, Agirrerren lanak irakurtzean zelako zirrara sentitu eban. Hona hemen Leketiarraren ber-bak:

Horiek [*Kresala, Garoa eta Auñamendiko lorea*] niri ba-rruan egin zidatena itzela izan zen. Zein euskera ederra! *Arranegi* horien senide lez hartu daiteke, horiek eraginda.<sup>18</sup>

<sup>16</sup> *Idatz & Mintz*, 15, 1987, 22. orr.

<sup>17</sup> Ikus URRUTIA, Andrés: «Arranegitik Arranondora» in *Karmel*, 205, 1993-3, 3-26. orr.

<sup>18</sup> *Argia*, 1091, 86-11-16, 29. orr.

Autorpen honen ostean, interesgarri deritxagu Mitxelenak eragin honi buruz gorago aitaturiko artikuluan esaten dauana bertora ekarteari:

Ez ote da noraezeko, egiteko orretan sartu ezker, *Kresala*-ren oroitzapenarekin borroka astea?

Egia esan, eta ezta gutxi, eztirudi Agirre'ren erraiñuak geiegi artegatu duenik Erkiaga, zerbait lagundu badio ere. Ondarrik ondarranean gauza berberatsu izanik, eztu nolaz-pait ere eleberri onek arenaren eite larririk.<sup>19</sup>

Idazkerara jorik, idazle eta aditu askok gorai patu izan da-bez Erkiagaren idazkera eta hizkuntza jatorra. Erkiagak euskal arima dauanez, euskalduntasun gardena darie haren idazluma-tik sortutako lanci. Hala ere, Erkiaga ez da konformatuko bere eskualdeko berbetaz, eta gipuzkera-lapurterak lantzeaz gain, osterantzeko euskalki eta aldakietara ere joko dau, euskera hizkuntzaren baitarik aberastu nahian, hau da euskeragandik beragandik abiatuta.

Bide beretik, arreta berezia jarriko dau joskeraren jatorta-sunean. Ez eban batere maite euskera lorrindua, hizkuntza tra-ketsa, eta mindu ere egiten zan, behar baino sarriagotan egiten diran lardaskeriak ikusita. Ez zituan euskeraz jantzitako erdal-animadun testuak onartzen eta kezkatu agertzen zan zenbait esatari, kazetari eta idazleren joerak ikusirik.

Edozein modutan, *Arranegi* burutu eban idazle gazteari, aurrera jarraituko baeban, behar-beharrezkoa jakon kritikaren eupada. Egia esan, Koldo Mitxelenak emonikoa ez dogu ahaz-tekoa. Nogaz, eta Erkiagak maisutzat eukan Agirregaz konpa-ratu; eta nork, eta Koldo Mitxelenak esan ez eutsala Agirrerri zorrik! Ez eban hori irakurterakoan poz makala hartuko bere lehenengo nobela plazaratzen eban olerkari gazteak! Ikusi dai-gun errenteriarrak esanikoa:

---

<sup>19</sup> *Egan*, XXI, 1958, 102. orr.

Gaiñerako euskaldunentzat ain berezia duen Bizkai-euskeraz, Lekeitio'ko itz-esaera jatorretan blai (*ut dicunt*) ageri den euskeraz, azaldu digu bada Erkiaga'k Lekeitio'ren edertasuna. Alde onetatik, ene ustez, eztio batere zorrik Domingo Agirre'ri, eziña badirudi ere, ez jatortasunean ez aberastasunean.<sup>20</sup>

«Olerkari» esan dogu gorago. Izan ere, adituek —Mitxelena barne— behin baino gehiagotan adierazi izan dabenez, *Arranegiri* olerkitasuna bor-borka dario. Konta ezin-ahalakoak lirateke kutsu hori dabena pasarteak eta adibide modura, azken kapituluan Xirido eta Zuriñeren egoera pozkor eta maite-itxaropenez beterikoa azaltzen daueneko aukeratu dogu:

Eta eguzkiaren goiztar izpi epeletara zutik harrotuaz, kukulak ideki eta pipilak hedatuaz lurrin goxo-eskeinka ari izaten diran bezela, lili eder orbangabe mardul guri ziran urre-bihotz bi haek ere, alkarren argi-izpira, alkarren berotasunera idekiten hasi ziran.

Goizeko izarrak klik egin eban zeru gardenean, ta erdi lotsaz suntsi ta gorde urdinaren magalean, gazteen maite begirakunak sumautean. (197. orr.)

Erkiaga, halere, bere prosa-estilo pertsonala lortzen ahalengindu zan. Geroago etorriko ziran prosazko lan trinko eta umotuagoak. Edozelan ere, liburuon ere ez dira falta pasarte aberats eta egokitasunez beteak. Ikusi daigun zeinen jator eta aberats margotzen deuskun Iñeseren larridura, Txanton Baixa bere senar zintzoa gaisotu jakonean:

Enetxu Zuriñe, ai ene! Aita galdu behar jaku! Zoiaz arin mediku bila! Ene bada ta bada! Arantza laztanori! Zoa-kidaz auzoko Maripagona! Datorkidala, arren, ta gero joan zaitetz abadetant!... (91. orr.)

Esamolde ederrak ere hitzetik hortzera darabilz Erkiagak: «Legor, itsaso ta zeruak egiten eben batasun-batzarraren sorgi-

<sup>20</sup> *Egan*, XXI, 1958, 103. orr.



na!» (34. orr.); «Ha zuan mozkorra, maria ta erdikoa gitxie-  
nez!» (44. orr.), «Izan bere, ardautzan kareleraino sartu zan-  
ta...» (71. orr.); «Eta buruak emon, eta haxe egin» (106. orr.).

Harridura hitzetan ugari ere ugaria da osotu daitekean ze-  
renda: Lekutan!, Arranetan!, Tximista gorria!, Madariena!,  
Aingeru jagolea!, Piskala!, Euen ama!...

Konparaketetan ere maisu agertzen jaku Erkiaga, hurren-  
go pasarte honetan dakusgunez: «Mahai ganetan ipinten ditu-  
gun alabastrozko iruditxo pitxi zoragarrien hanbatekoa zan ha-  
ren [Zuriñe] tankera segail lerdena, zumea bezin. Zutia, lizarra  
aina. Otzana, usakumaren antzera. Gozoa, marrubi heldua bes-  
tean» (112. orr.).

Bizkaiko zenbait eskualdetan galdurik edo galtzear ditu-  
gun hikako formak naturaltasun handiz darabilz Erkiagak, nahi  
gizonezkoenak, nahi andrazkoen artekoak. Bigarren erabilera  
honen erakusgarri polita XIII. kapituluan agertzen dan ama-  
alaben autu luzea dateke.

Hiztegian Erkiaga herrikoi eta landua, lekeitiar eta nora-  
nahikoa dogu. Lekeitioko bertako edo hango kostaldekotzat  
hartu geinkezan hitzen ondoan (loia, kabana, treotzara,...) sor-  
taldeko euskalkietakoak agertuko jakuz (hautetsi, zitu, dun-  
du,...). Gaurko bizkaieran arruntak diranen ondoan, bizkaiera  
zaharrekoak (iradu, irato, jopu,...), baita idazle klasikoengandik  
—Leizarraga, Duvoisin,...— harturikoak ere (targo, zitzor-  
tu,...).<sup>21</sup> Inoiz edo behin, erderengandik ihesi nahian-edo, aha-  
legin handiak egingo ditu euskerazko hitz egokia bilatu edo  
sortzeko. Iñaki Kaminorentzat: «Garbizalekerian erortzen da  
zenbaitetan, baina gehiegi ere ez...»<sup>22</sup>. Edozein modutan ere,

---

<sup>21</sup> Saikapena egiterakoan Azkueren Hiztegi nagusia izan dogu gidari.

<sup>22</sup> *Argia*, 1982, 757-8, 43. orr.

kasurik gehienetan maisutasunez gainditzen dau Erkiagak arazo hau, hitz-sorkuntzan jator jokatuaz: «Oraingo egunetan, untzi lurrin indarrezko ta orio-lohidun bultzakinei esker...» (93. orr.).

Irribarrea galdu behar ez dalakoan, ironia eta umorezko tanta eta zipriztinak beti dira maizter Erkiagaren lanetan. Eurrez aurkitu daitekez *Arranegin* ere ironia fin-finez beratutako pasarte eta pasadizuak. Esandakoaren lekuko gisa, hor dogu, kasurako, «Errekako esamesak (Vox populi)» izeneko kapitulu.

Esan daigun, azkenik, liburuan J. B. Elissamburu lapurterra eta Eusebio M<sup>a</sup> de Azkue eta F. Kortabitarte lekeitiarren olerkiak ezeze, herrian ezpan-belarri ibili izan diran eta kasu askotan iraun dirauen koplak, kanta eta bertso zenbait ere liburuaren apaingarri eta prosaren aringarri gertatzen dirala, bide batez, idazlearen ahozko literaturarekiko atxikimendua erakusten deuskuelarik.

Egin deiogun, bada, Erkiagari, edozein idazleri egin leikion omenik handiena: bere lanak irakurri, ikertu eta zabal-tzea.

### 3. GURE ARGITALPENA

Argitalpen honen helbururik behinena zabalkundea izanik, gaurko idaztarauak kontutan harturik zenbait ikutu txiki egin deutsagu liburuari, beti ere irakurketa erreztu eta lagundu asmoz. Aldaketatxuok Erkiagagaz beragaz genduzan komentatuta eta ortografiara mugatzen dira soil-soilik. Testuan agertzen diran kanta, bertso eta enparauetan ez dago inolako aldaketarik.

Liburua garai jakin bateko emoitza izanik, egoki eritxi izan deutsagu lekukotasun horri eusteari, aldaketa ortografikoak gora-behera, idazkerak bere horretan irauten dau-eta. Asmo

berberari eutsirik, errespetatu egin ditugu idazlearen euskera-  
ren berezitasun guzti-guztiak, nahiz eta zenbait kasutan forma  
bat baino gehiago erabili: eretxi/eritzi/iritzi; etzin/etzan; euke-  
an/zeukean; ere/bere/be; eta/ta,...

Hona hemen aldaketak:

### 3. 1. Ortografia-zeinuak

\* Puntu, koma eta abarretan aldaketak oso urriak dira eta  
testua argitzeko beharrezkoak ziranean egin dira bakarrik.

\* Zenbait idatz-ohitura zaharri dagokionez, hona hemen  
egindako aldaketaren batzuk: Zuriñe-ren > Zuriñeren, Zaztar-  
-ek > Zaztarrek; agur-egin > agur egin; ikusi-eragin > ikusi era-  
gin; itxi-azo > itxiazo,... Inoiz edo behin: oraiñarte > orain arte.

\* Hitz konposatuetan Euskaltzaindiak 1992.eko ekainaren  
26ko gomendio-arauak<sup>23</sup> errespetatzen ahalegindu gara, zalan-  
tzazko kasuetan idazlearen aukerara makurtuz. Ikusi daiguzan  
ikututxuak: a) Bikoiztapen indargarrietan: polito polito > poli-  
to-polito, bare bare > bare-bare; lehen osagarria deklinaturik  
egon ezker: otoz-otoko > otoz otoko, musuz-musu > musuz  
musu; b) Posposizioakaz: luze-samar > luze samar, kale-aldetik  
> kale aldetik; eta c) Gainontzeko kasuetan: euskal-olerkari >  
euskal olerkari, bizi-alargun > bizialargun,...

### 3. 2. Ortografia

\* Aspiraketari dagokionez, aldaketa arruntak egin ditugu:  
artan > hartan; odei > hodei; leen > lehen; bear > behar; ziar-  
duan > ziharduan; naiz-ta > nahiz eta,...

---

<sup>23</sup> *Hitz elkartuen osaera eta idazkera*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992.

\* Bustiduretan, forma ez-adierazkor guztietan honakook: baiña > baina; gaiñean > gainean; giñan > ginan... Bide beretik: osagille > osagile, teillatu > teilatu,...


\* Adizkietan: yakun > jakun, yok > jok, yoian > joian; dautso > deutso, dausku > deusku,... *Ba-* eta *bai-* aurrizkiekin: ba dakizue > badakizue, bai'litzan > bailitzan, bai lirean > bailirean,...

\* Ezeztapena askatu egin dogu aditzagandik: eztau > ez dau, ezpaleu > ez baleu, etxakiat > ez jakiat,...

### 3. 3. Hiztegia

Erkiagaren euskera oso aberatsa danez, ondo iruditu jaku orri-oinetan zenbait argibide jartzea, azalpenak beti-beti euskeraz emonik. Hiztegiari ez dagokiozan zenbait argibide xume ere agertzen doguz, baina bakar-bakarrik irakurle arruntari laguntza pitin bat eskeintzeko asmotan. Oharra idazlearena bera-rena bada « ( ) » artean agertuko da.

Iñaki Sarriugarte Irigoien  
1993.eko udagoiena



## ARRANEGI

(KOLDO MITXELENA)

Eleberri bat ezta egunoroko gauza euskal-letretan, are gutxiago Erkiaga bezalako euskal-idazle batek egindako eleberria.

Aitor dezadan, aurrenik, oitura-eleberri au zero legezaarrekoa dela. Eztu egilleak bide berririk urratu nai izan, aski baitzuen zaarrekin bere asmoetarako.

Argi eta garbi ageri da, edozein orrialdetan, egillearen «olerkaritasuna» eta lirikarako ixuria. Esateko ezta liburu guztian lagun bat baizik naba-ri: Lekeitio, atzo, gaurko ta betikoa, baiña batez ere egillearen aurtzaro-gaztetangoa.

Lekeitio'ko lur-itsasaldeak, lekeitiarren oiturak, nekeak eta jaiak... Aipatzeak berak dakar gogora Lekeitio'tik urruti gabe jaio zen euskal-novela-gille baten izen ospatsua. Ez ote da noraezeko, egiteko orretan sartu ezke-ro, *Kresala*-ren oroitzapenarekin borroka astea?

Egia esan, eta ezta gutxi, eztirudi Agirre'ren erraiñuak geiegi artegatu duenik Erkiaga, zerbait lagundu badio ere. Ondarrrik ondarranean gauza berberatsu izanik, eztu nolazpait ere eleberri onek arenaren eite larririk. Maitasun batek sortarazi ditu liburu biok, naiz Lekeitio eta Ondarroa ez ain elkarren adiskide izan.

Gatozen *Arranegi*-ra. Ezin obeki aurkeztu dizkigu Erkiaga'k bazterrak eta oiturak, izkuntza ugari, erraz eta guztira txit egokian. Bere-berea duen bizkaieraz idatzi du, an-emenka bildutako loreak noizean bein sakabana-tuaz, eta ezta iñor damutuko. Ederki baiño ederkiago daude, izan ere, izkera osatu eta batuak, literatur-euskalkiak, baiña eztira oraindik gauza novela-teatroetarako.

Gaiñerako euskaldunontzat ain berezia duen Bizkai-euskeraz, Lekeitio'ko itz-esaera jatorretan blei (*ut dicunt*) ageri den euskeraz, azaldu digu bada Erkiaga'k Lekeitio'ren edertasuna. Alde onetatik, ene ustez, eztio batere zorrik Domingo Agirre'ri, eziña badirudi ere, ez jatortasunean ez aberastasunean. Eliz-gizona eztenez, au baiño lasaiago mintzatzen zaigu, bigunkiroago ere bai. Non-nai ezagun da olerkaria, bai irudietan, bai itzak autatu ta antolatzean. Novelagillea olerkariak ito duela esan diteke.

Agertzen dizkigun lekeitiarrak izketa bizia eta berezkoa dute —egilleak sentiera gordeak nabarmentzeko ao zabalegia ematen dienean ez ainteste—, itxura polita dute kanpotik, baiña arima-aldean eztarakuste funts eta kemen geiegirik. Ezin-bestean dei egin diela dirudi iratxo odolgabe oriei.

Korapillorik ezak uzten duen utsartea betetzeko, erabateko gogoetak ipintzen dira maizegi. Onelakoak, esate baterako: «Ez dau bizitzaldi onek beti arpegi berbera. Zerua, batean illun eta ekaitzean agertu arren, urren-goan argi eder zemaigabe ta adu-izpiz janzten daki. Ez dabe begiak oro bateratsu negar-aldi, negar-iturri izateko soillik egiñak ez diralako» (175 or.)<sup>24</sup>. Edota: «Goizeko eguantz alai, txuri ta argitsua, sarri askotan egun goibel eta arrats euritsu aldatu oi dan antzera, geuri eder atsegarri iruditutako lendabiziko zantzua ta susmoak, uskor ta antzu ta arnalgabe itzali oi dira» (178)<sup>25</sup>. Ederki adieraziak daudenik ezta ukatuko. Eleberri batean, ordea, eztaute beñiere non ta noiznaikoarekiko uate-irritziek estaliko emen-oraingo gertarien gabea eta eza.

Erkiaga'ren Lekeitio, gertaleku atsegiña izanik, sugerik gabeko paradisua da garraztasunik sumatzeko. Ekaitzen bat edo beste ezagutzen du aldiz-aldiz, biotzeko eta este goitiko miñak ere bai: mundua sortua izanik, Leibnitz'ek esango zukean bezala, etzitekean besterik gerta. Gizonak bere eskuko duen borondateetik datorren gaitza, ordea, eta ori da batipat gaitza guretzako, ezta ia ageri. Gizonagandikako gaitzik ezpada, beraz, ezta egiazko dramarik ere.

Sugerik gabeko paradisua dela esan dut, ez orratik emakumerik gabekoa. Etengabeko arrimenez dagokio begira Erkiaga emakumeen bere gisako izaerari eta umore-ttanta batekin azaltzen duen jatorrizko axerikeriari. Ezta miresteko. Egiteko orretan ari dira Jainkoak gizajendea sortu zuen ezkeroztik jakintsu-ezjakiñak eta eztaute oraindik ondarrrik jo, Nafarroa'n XIV'garren mendean agertzen den Butzu Ondagabea murgildu balira bezalaxe.

Labur etengo dut aria. Liburu atsegin-atsegiña eskeiñi digu Erkiaga'k: eleberri osoa ezpada ere, eleberri polit baten zati eta pusketa apaiñak, bai. Erdietsi du besterik baiño naiago zuena: bere jaioterriari goresmen egokia kantatzea. Orain, gogo osoz bere neurriko euskal-novela bat egiteari lotu nai bazaio, beldurrik gabe egingo nuke ori ere emango digula, orretarako trabagarri dituen doi bikaiñak brida estuz menderatzen baditu.

L. MITXELENA

«Liburuak. *Arranegi* (...)»

*Egan*, XII, 1958 (1-2), 102-104 orr.

<sup>24</sup> Gure argitalpenaren 182. orr.

<sup>25</sup> Gure argitalpenaren 185. orr.

# *Arranegi*

*(obitura-eleberria)*

*Eusebio ERKIAGAk idatzia*



*Neure guraso  
emazte  
ta seme-alaba maiteai*

*ESKEINIA*



## ATADIAN


Ene jaioterri kutuna, inoiz neurtitez goretsi izan arren, noizbait hitz lauez ere, ederresteko zorra neban gogotan hartua.

Ipuin edo elebarri honen gertaleku, Lekeitio ta bere mugak dira; toki-izenak bai egiazkoak dira, bainan jazokunak eta lagunak asmaurikoak. Hildako batzuen izenak aitatzen dira, batzuk goragarriak diralako oso, ta besteak, gomutan izan ditugulako.

Oraintxe, Euskera beste hizkuntzen menpean eta euskaldunen zabarkeriz gero ta galtzenago dogun egunotan, gure mintzaira zaharrez taiuturiko lan apal hau dot opari xume ta urri; maitetasunez betea, ostera.

Bere hizkuntza nahi ezik, ahaztutzer ta gal-hurren dauan Euskal-Herri gaiso honengana, isuri begi Jaunak bere erruki azkenik bagea.

1950 uztailean





## I HERRIMIN

Urteak igesi joan dira ordutik...

Egun eder zoragarria izan zan, une haretan amaitu-hurren egoan udabarriko eguna.

Ez eban sargori-antzik bapere izan; haize mehetxu batek igurtzia, zeruaren urdina argi ta garbi, ikusgarri agiri zan. Oskarbia benetan. Sarri askotan ezin ikusi izaten dogun goi aratz, txukuna, orbanik barik, hodei txikienik bage egoan zabal gure buruen gain.

Eguzkia astiro joian etzin guraz, bazter ezkutuatarantz, eta azkenengo agurra egin baino lehen, gezi bero ta ziztada goriak jaurtitzen eutsazan lurrari.

Erbestetik geure jaioterrira ginoiazan, eta bertara lehenbailehen helduteko gogo handiz ta irriki bizian gengozañez, gure beribilari indar barri emoteko ahaleginak egiten genituan, besterik ezean asmoz ta hitzez, behintzat.

Hosto hezez jantzirik, berde agiri ziran inguruak; eta zelai, landa ta mendi heze mardulen pozak eta irudi atseginak, barruan halako zarrastada gozoa eragiten euskun-ta, gaztezaroko ametsak barriren barri berbizi eta geure buruok hainbeste gogarte barriz eta gomuta zaharrez beterazoten euskuezan.

Barruko lurraldeetako bide arreska zurixkak zehar, itsasoaren bila ginoiazan, urduri, gogotsu, lehia handiz, legorraren ertza noiz ikusiko.

Horraitino, noiz edo noiz begizta genduan ur zabalaren alderdi bat. Halakoren baten bere, han genduan bai geure

aurrean itsaso zabal hedatsu bizia, Andre beti urduria, beti ere hara-honaka; batean bare, bestean hasarre, inoiz lohituta eta hurrengoan garbi, orain itsusi ta geroago zoragarri azaldu ohi jakun itsaso izugarria.

Ta itsasoen artean, gure Kantauri mardo, ar, bizarro, lerdin, sendoa. Bare-bare egoan, urdin, lau, zelaitsu, ezetariko haizek ez uiolak<sup>1</sup> nahastauteke. Azala legun, bardina, margo ta kolore bakar bategaz egina. Han urrunean, azkeneko zolan, ortzeaz munka<sup>2</sup> ziharduan eta ezin zeitekean<sup>3</sup> bakoitzaren mugarik nabari, zeru ederra ta itsaso zabala, maiteak bailirean, bat-bat egiten ziralako.

Apurren bat gehiago ibiliaz, amestokia zirudian leku atsegingarria begien aurrean ikusteko aukera izan genduan. Ikuskizunaren zoragarria, aurkientzaren ederra!... Legor, itsaso ta zeruak egiten eben batasun-batzarraren sorgina!

Unadatxu batez, Urkitza gainean gelditu ginan, alde hartatik etorririk, uria lehengo aldiz begizta leitekean gain hartan.

Gure oinetan, mendixka barrenean, ikuspegi egokian, uraren susmur amaibakoaren soinuz gozatuta, irriparka antzean, baketsu egoan uri polita: gizabihotz bakoitzak kutunen ohi dauan herria, sorterrria, jaioterria.

Ahaztu ezina benetan. Argiak lehenengoz agur egin euskun toki bakarra; gure hasierako negarrak egin genituan lur zatia; sein-aroko<sup>4</sup> zotin eta inkesak<sup>5</sup> entzun zituan baztarra; lehenbiziko irribarreak jaso zituan etxe ta zokondo ahantzi ezinak; gure umetako oinkada, urratsak eta taka-takak eta

---

<sup>1</sup> Uiol: uriol, uholde.

<sup>2</sup> Munka: mun egiten, musuka.

<sup>3</sup> 1958: zeitekean. Hiru-lau aldiz *zeintekean* edo *zeintekezan* darabil 3. pertsonako adizki legez. Beste guztietan *zeitekean*.

<sup>4</sup> Sein-aro: seinzaro, umezaro, haurtzaro.

<sup>5</sup> Inkesa: negar.

mutil koskorretako gizonkeriak eta okerreriatsuak; gaztezaroko amesak egin genituan kale, portu, kaigane ta inguruetako zelai ta txoko kutunak, eta hamaika bidar zapaldutako hondartza biguinak..., guztiak bihotzaren zatiak bezela.

Nork ez dau maite norbere sorlekua? Nori ez zoliago taupadaka hasi bihotza, aspaldi ez-ta, norbere jaioterria barriro ikusi dagianean?<sup>6</sup> Bai ederto gogartu<sup>7</sup> zituala bakoitza bere kabiak dituan eder-uki ta zoragarritasunak, harako Elizamburu euskal olerkari samurrak, bere bertso bigun eta ezfitsu honeitan:

«Nahiz ez den gaztelua  
maite dut nik sor-lekua,  
aiten aitek hautatua.  
Etxetik kanpo zait iduritzen  
nonbeit naizela galdua;  
nola han bai naiz sortua,  
han utziko dut mundua,  
galtzen ez ba dut zentzua.»

Itsasoari atxikia, urari ikutuka, noiznahi soina bustiten diharduan zisne harro panpinaren antzean agiri zan uri maitea, aintzinako aldietan kondaira edo historia ederren jabe dan Lekeitio, legorrez ta itsasoz ahaltzua, «Terra marique potens...».

Hiru mendiskaren magalean eta uraren ezpainetan etzunda, txairo, lirain eta beti txeratsu egoan, ene txoko atsegina. Lurraren hezetasunez inguratua: artotza, zelai, zugazti eta basoak. Bestetik, hondartza garbi hedatsuak, urrezko izaraz apainduak. Eta azkenez, itsasoaren hesi haundia, bits eta apar zuriez jantzia beti bere. Eta goian, erregin buruntza<sup>8</sup> iduri, ortzi edo zerualdeko uztai zorabiozkarriz hornidua.

<sup>6</sup> Ikusi dagianean: ikusten dauanean.

<sup>7</sup> Gogartu: konturatu, ohartu.

<sup>8</sup> Buruntz: koroa.

Gure ezpainenetan ere irriparrea loratu zan, betartea argiz bete, eta barruan halako irrista edo zirrara ebilkigun alderen alde.

Nork gogaitu unada luze samar batez, nork asper-usainik zati baten izan, maite dan norbait edo kutun dan zerbait hainbeste urteren buruan ikusi ez-ta, barrero ondoan eta inguruan ikusirik?

Amandre eguzkia bajoian polito-polito bere amaganantz. Ordurarte batera ta bestera urduri ta geraka, bide-auzoko lora ta bedar ta lilietan hauts-kiman ari ziran erle maratz langile urrezko gerrikodunak, behingoan aldegin eben. Bidetxigor ondoan lehentxoago erreskadaka ikusitako txinurri ugariak bere, lurrak iruntsi bailituan<sup>9</sup>, aienatu eta begien aurretik joan ziran.

Kilker eta txiritxirriak erdi isildurik zetzaten euren tutulu-ziloetan, ordurako nagituta nonbait, hiru hilabetez soinu jotekinda gero. Bakarren baten txirtxirra entzun genduan, horraitino. Bidertzean, gaztainondo zahar batzuk egozan garbaz<sup>10</sup> apaindurik, uztaren deitzaile.

Urrunago gari solo ederrak, hori-hori eginda gehienak, haize epelduaren indarpe haruntz-honuntz zanbulu gozo eginez, bizar artean galburu guriak erdi ezkutuka erakusten zituelarik. Lekuan-lekuan, banakeria, urdamatur edo amapolak, odol barriaren irudi emonaz.

Ezker aldean, goitian, lehenago basurdeleku izaniko Otaio mendia, Izpazter elizateazko mugarri izugarria, sorbaldak eta bizkarra txapar artez eta pinuz beterik. Barrenerago, Gardata auzuneko basetxe zuriak, alai ta baketsu, urira heldu aurretik agur egitera txeratsu bidera etorkiguzan uso urrumatsuen antzera.

---

<sup>9</sup> Iruntsi bailituan: iruntsi izan balitu legez.

<sup>10</sup> Garba: gaztaina-lore.

Eskumaldean, asago<sup>11</sup>, Mendexa aldeko muino ta tontor-  
rrak, Ziñoitz, Pagomendi, Talaiazaarra, bata bedarrez josia,  
hurrengoa pinadiz eta azkenengoa eukalitu-ondoaz hornidua,  
haize garbiaren zaintzaile bailirean.

Eta sakonerago Lumentxa (Kalbario) mendiskaren oinetan  
herri maiteko etxeak, auresku luze pozgarrizko bat egiteko  
alkarri eskuak emonda bailegozan.

Bitartean, teilatutako goietatik arin, mehe, zehe, ke biribilduak  
igoten eben, hodei heze antzera, etxekandreen zeregin eta  
lorren<sup>12</sup> ezaugarri isil baina agiriak zirudiela. Afal aurreko  
sutaldiaren erakusbide uka-etzina eta etxekoentzat lasterreko  
batzar-deiaren zantzu edo seinale ona.

Haruntzago, Karrazpio hondartzan uhinak edo olatuak  
beti lez jolasean ziharduen, beti artega ta egonezinez, ura  
gora nahiz ura behera beti gelditzeke, etenbako dantzaketan.  
Horregaitik esan ohi dabe hangoak esakune hau beste barririk  
ez daukenez: «Olatuak Karrazpion»; beste lekuetan «beti  
bat» esan ohi dabenaren antzera edo.

Hondartza horren sartalderantz, izaro edo uharte nahiko  
hazia dogu, zut, lerdin, tente, bulartsu, harrizko untzi gogor  
hondoratu ezina iduri. Hango pinu lirainak ba ei dauke euren  
zer-kontaua, urrundik ekarriak diralako entzutea danez. Medi-  
terraneoko Corcegatikoak ei dira, Hamiltonii izenekoak, oso  
aukerakoak seguru be, han baizen lur murriz eta azala besterik  
ez diran lurretarako.

Legorrenaren muturretarik bat, Kurlutxu muino luzangea,  
inoiz ugartearen kide izana, gurbizaz<sup>13</sup> beterik, ibaiaren bidegi-  
le azkenengotzat lez agiri zan.

---

<sup>11</sup> Asago: urrin, urrun, urruti.

<sup>12</sup> Lor: atsekabe, nahigabe.

<sup>13</sup> Gurbiza: gurbitz. Zuhaitz mota bat.



Uritxu honek daukan izena euki ez baleu, Arrizu edo Arrieta izango eukean<sup>14</sup> izen irona<sup>15</sup> ta berebizikoa, inguru osoan latsuna edo karatxa ugari baino ugariago dago-ta.

Eguzkiaren azken agur-aldiko argi-izpien dirdaipean, izadiko gauzen kolore bereziak egoki ta alagalan ikusi zeitekezan<sup>16</sup>, bakoitzaren ezaugarriak zehatz azalduten ebezelako.

Haxe zan bai ikusgaiaren bitxia! Begiasegarri, gogobetegarri. Benetan ere, ames antzeko egia.

Horra, irazean, gaingiroki, handi-mandi esan gure elebarriño<sup>17</sup> honen gertatoki edo jazolekuaren ertzak eta mugak.

Betiko Jaunak oparo ta erruki barik bildutako edergaidun kabi epel txairo hori, zerura-bide dogun bizitza labur hontan, egonleku onuratsu ta egite zindoen biltegi ta onbideen laba bero izan bekie hangoei...

---

<sup>14</sup> Eukean: eban + -ke; zukeen.

<sup>15</sup> Iron: apropos, egoki.

<sup>16</sup> 1958: zeintekezan.

<sup>17</sup> Elebarriño: nobelatxo, elaberritxo.



## II

### TXALUPETXEAN

Hogei lagunik ez egoan arandegi edo txalupetxe hartan, baina beste hainbeste ta gehiago bere, baegozala esan zeitekean<sup>1</sup>, han barruan sumaten zan berbots eta zurrumurruagaz.

Iluntzea zan, eta arratseko une hori izan bere, egoki ta hartarakoena da, lanaldia utzi ondoren, eguneko gorabehera, albista, izpar ta esamesak alkarri agertu ta adirazoteko, eta esanok gehituaz eta aldatuaz lehenengo antzik bage utzi ta gorputz barriez taiuturik adiskideei iruntsi erazoteko.

Keia han barruan bere baebilen ibili; ez ostera suteko kerik, tabako-orriak erreaz zabaltzen ebena baino. Oraingo suete edo sukaldeetan amaitu ziran zehatz edo erdi-zehatz —hegohaize egunetan izan ezik— lehengo sutondoko garrak, txinpartak eta keiak. Gure eguneton<sup>2</sup> urian, kaian nahiz basetxeetan euretan bere, su-mahai apain, zabal, estalduak jarri dituelako izan be, egur, ikatz, harrikatz edota tximistindarrez berotzekoak. Ez joan oraingo aldian tabernazulo txikienera ere, sua txirtxor eta keia alde guztietan ikusteko asmoz. Bai zera!

Mahai baten inguruan nasai jesarrita, bost arrantzale jator egozan, gizon eginak, garatuak, haginak aspaldi bardinduta-koak, bakoitzak bere aurrean leiar edo kristalezko edontzia ta lurrezko pitxar zuri bana eukezela. Ontziok hutsik egozan, egarriak eskatu-ahalean hutsitu zituelako, jakina.

<sup>1</sup> 1958: zeintekean.

<sup>2</sup> Eguneton: egunotan.

Bat zan, boston artean, nabarigarriago, bai gorpuzkeraz, bai arpegiaren ederrez eta baita hizkera astirotsu eta esan jasekoa zalako ere. Gizon mardo, sendo, zabal, haize-eguzkiz bete. Txanton Baixa eritxan<sup>3</sup>, eta izengoiti hori egoki ezarria zala autortu ginei<sup>4</sup>, hamaika itsasorate eginiko itsaseme adoretzu hartan edo harengan, edonork ere, baixaren edo atxaren sendotasuna antzeratuta ikusi ohi eban-ta.

Zein ete zan bada, arrantzale sasokoen autua, euren arloazkoa izan ezik? Ta, Arrangorriren jarduna entzun ezkeru, susmo hori egia bihurtu behar.

—Igaz bere —zinoan gizon ziztrin honek—, ez genduan guk u<sup>5</sup>, atun askorik hartun, eta gero, neguan be, ez papardo ez besigurik, eta kolaiorik be, ez askorik... Eta udabarrian be, zer ba? Zer madarikato erabili jok, ba, gure ontziak?... Dendako zorrak be, oindino zuritu barik daukaguzala gomuterazo jaus-tak gaur goizeon bertun gure atsoak.

—Ba, guk u, —erantzun eutsan Santi Anpolaik—, ez dogu sardinatan halako aukerarik erabili, baina besigu kosterarik onena geuk egin genduan eta, tira,... jo aurrera.

—Badaukat ba, nik ba, aurtengo atunetearen halakotxua— esan eban astiro ta gozatsu, ohi ebanez, Txantonek, alboko lagunei poz apurra iratsi<sup>6</sup> nahirik—. Eta gizonok, badakizue zergaitik? Ba, orai arte be, gure Jaungoiko haundiak (gure Goiko Manuelek esan eban harek, eta lotsa ta itzal handiz esan ere) urteko arrantzuketa guztiak ezer be bakoak emon ez deuskuzalako. Horregaitik, aurtengo atunetea, arrantzu-ereti mamina dala uste juat.

<sup>3</sup> Eritxan: zeritzan, eban izena.

<sup>4</sup> Ginei: geinke, genezake.

<sup>5</sup> Guk u: «Arranondon ta beste Bizkaiko erri batzuetan itz baten azkenengo aots edegiak barrero esaten dira itzaren oiartzunak legez: gu u, nik i, arek e, ta olan» (Txomin Agirre, *Kresala*).

<sup>6</sup> Iratsi: gehitu, eskaini.

—Dala ez, izango dala edo, esan nahi izango dok —urten eutsan Labapek, txapela apur bat jaso, eskua azpitik sartu eta buruan hazka eginaz.

—Aituten dok, gizon —erantzun eutsan Baixa ontziburu azkarrak, bapere keixau barik.

Gizonetarik batek jagiteko zirkin egin eban, eta orduan, euretariko batek bai esan be:

—Txuspin, nora hua<sup>7</sup> honen goiz?

—Andrea jabik gurean erdi-makalik eta, berandu barik oheratu daiten, ahaleginez arintxuago joateko agindu jaustak.

—Tirok ba, ondo zaindu egik heure bihotzaren zatia — esanaz, agur egin eutsan Txuspin zintzoari sutondotik, txalupe-txe hartako etxekandre zabal eta maratzak, harako Kosepantoni Koloregorrik.

Ardandegi haretara joera euken askorentzat, ama lakoxea izan zan Kosepantoni enea, batez bere, gizon eta mutil gazteai, esakun zintzo ta jarraibide ona adiraziaz. Betiko egiak eta mundurako gauza egokiak, ahal eban edozein alditan esaera samurrez irakasten eutsezan-ta.

Alarguna zan berau aspaldi. Gazte zalarik galdu eban senarra, itsasoak noizean behin ohi dituan hasarrealdietako batean. Baina bere bizimodua aurrera erodateko bildur bage gertuaz, halako jasa eukan izan be-ta, lortu be lortu eban seme-alabak haztea, ta bere etxeko ogipidea egokitasunez zuzendutea.

Seme bat eta alaba bi izan zituan ezkontza bizitzan, Seberi, Irene ta Madalen. Aitaren antzera, itsasorako joerea hartu eban mutilak. Alabak, neskatila behargin<sup>8</sup> eta garbiak,

<sup>7</sup> Hua: hoa.

<sup>8</sup> Behargin: langile fina.

amaren ondotoxoan hazirikoak, laguntasun bererizkoa egiten eutsen.

Nagusia, jostuna zan, ta ez edozelakoa gero. Ikustekoak izaten ziran haren eskuetatik urteniko jantziak. Arranegi aldean jostunik onena zalakoa zan entzutea, eta Atean bertan bere, beste bat kendu ezkerro, ez ei egoala besterik nor izentau<sup>9</sup>.

Gazteena, Madalen, amaren arazo-laguntzaile bizkorra zan gehienbat, haren ondorengotzakoa, eta mutilak zinoenez, ibilteko modukoa zan, legorrez ez galtzekoa... Ez lotsorra, ez nagia, baina ez ostera lotsabakoa be; horixe ez, geldi hor! Kai aldeko ta legorreko neskatila jator askoren artean ahizta biok eratsu, jaseko ta berebizikoak ziran, lehenagoko emakumeen ereduizkoak, herriko alaba goragarriak.

Baina entzun dagigun han barruan egozan beste gizona-koak bere, zinoena. Alboratxoago, hiru gizon egozan, lehortarrak eurak, besteak baino zerbait apainago jantzita egotea, alde horixe bakarrik, azaletik behintzat.

—Hor zabiltz beti zure amesokaz, Bizkarrondo —zihardutson Iturriotzek—, pelotalekuari teilatua ipini behar jakola ta ez jakola. Ez al dauko gure Udalak dirurik nundik batu?

—Ez dakit daukonentz, baina hain gaitza ete da ba, horma bi dagozan lekuan beste bi egitea eta gero ganetik estalkia ezartea?

—Baina, zelako teilatua oster, itsua ala? —gehitu eutsan Egiluz zorrotzak—, barruan ezer ez ikusteko?

—Ondo dakizu zuk, zelakoa esan nahi dodan. Kristalezko aterpea, halakoxea, euria danean igor egon dedin; eguna danean, argi egon dedin; negua danean, iparraize bean<sup>10</sup>, epel

---

<sup>9</sup> Izentau: izendatu, aitatu.

<sup>10</sup> Bean: behean, pean.

egon dedin: eta gabaz ere, gura danean, argi eder batzuk ipini eta egun argitan letxe<sup>11</sup>, ikusi ahal izan daigun.

—Nik i, emongo neuke ba diru-apur bat zorko<sup>12</sup> lan onuragarri hori egitearren, eta ganera bapere irabazirik barik utzi be. Ta entzun egidazue: futbolerako-edo zelaia be, noiz arraio ikusi behar ete dau gurea lako uri batek? Inoiz, orain urte asko, beharbada ehun bat urte, zezenketa zaletasuna egoanean, egundoko «torilla» edo zezenplazea egin eben gutarrak; eta orain aldiko zaletasunari eutsi ezinik, toton egin<sup>13</sup> ete dabe gure diru-toixa ta ziskuok?

—Badakit ondotxu, Egiluz laguntzarra, zu lango herri-maite asko balego, eta egon balira egon gizaldi honen hasieran, Gernikatik honaginoko trenbide asmoak be, bertan behera geldituko ez zirana, gelditu ziran lez.

Nork daki ostera, herri batentzat zer dan ondoen? Gizonen eritziak era ta mueta askotakoak izan ohi dira, ta bakoitzak norbere errezoi, zio ta susterrak erakusten daki. Burdinbideok, herriak nahastuagotu, ohiturak nasaiagotu, hizkerak bestelakotu eta nik dakit zenbat oker ekarri ohi dituen batzuen aburuz. Toki baketsu ta ekandu onekoak, leku eder garbiak, harahonako ibilibeharrak eta industri-olaen keiak, ekandu ta zerualdeak lorrindu legiezela<sup>14</sup> eta abar, eta abar, sarri askotan entzundako esakunak dira.

—Bai, alde batetik egia dirudi —gehitu eban Bizkarrondok—. Baina gure uri hau, orain 200 urte dala —ikusi liburu zaharretan, bestela— Bilbo, ta Bermeo, ta Durango kendu ezkeru, Bizkaian laugarren herria, ospe haundiko ta entzute-tsua izan zan hau, gaur hamargarrena edo Jaungoikoak daki

<sup>11</sup> Letxe: legetxe, bezalaxe.

<sup>12</sup> Zorko: atzera eskuratzekotan, mailegu modura.

<sup>13</sup> Toton egin: porrot egin, huts emon.

<sup>14</sup> Lorrindu legiezela: lauskitu, alperrik galdu leikiezala.

zenbakarrena dalarik, ezin esan ginei orain hor harrizko letrak hain harro esaten deuskuena.

—Itxasoaz bakarrik gelditu gara —amaitu eban Bizkarrondok—. Eta ez dogu hori nahikoa. Olaldeko tximini luzeak, beti ke barik, geroago ta arrakalatsuago ikusten dodazan bakoitzean... Loibeko lur zatia inoiz itsas-motorren lantegia esan ohi zana, ur zingiraz beterik... Eta Otoio barreneko mahasti zabal ziranak ezereztuta ta azterrenik ere bage galdurik ikusten ditudan bakoitzean,... mingostasun larri bat heltzen jat barrura!...

Izan ere, gure aldion igartu, iraungi ta amaitu dira emen ziran mahasti eder samarrak, zoritxarreko filoxera hori zala-ta; eta harrezkero harako «Itxasgaina» izeneko txakolin «Gorria» eta «Zuria» ospatsuen gomutea besterik ez dogu.

Bainan,... gizonon arlo astunok alde batera utzita, erakusmahaiaren inguruan egozan arrantzale gazteen artera beioa azalpena.

—Okotzek ez dau holakorik sinistu be egingo —entzunarazi eban Urpionek—, baina Zaztarrek atzo be, itsasoak beteko mozkorra eukan aldean, iluntze inguruan. Ha zuan mozkorra, maria ta erdikoa gitxienez! Honek mandaskea-edo<sup>15</sup> topaten jok, eta ardauz betea topa be.

—Atzo be, zer zala-ta? —galde egin eban Xirido gazte begi zuri azarriak<sup>16</sup>, irribarre eginaz, baina bat-batean halako betondo iluna jarriaz—. Ez daukagu ezer esateko!

—Lehengusuaren lehenengo umea bateatutea izan juagun-ta —autortu eban erdi lotsaz Zazterrek—; eta gero, badakizu ba, aitabitxi ta biok han beheko Saguzarreneko zulora joan

---

<sup>15</sup> Mandaska: mando-aska.

<sup>16</sup> Azarri: garbi, argi.

gintzuazan, ta ordurako egarri be baita, ardauari «kirrua»<sup>17</sup> atara egarria asko edo gitxi samurtu arte.

—Hurrengoan bere, treotzarea<sup>18</sup> ez dozu falta izango zuk —inotsan Zingulin ezpatea baizen zorrotza zan gazte zime-lak—. Horrela nahi al dok hik Gonamotzen alabaren bat zuritu? Bajagok hobarik! Harenean ez joek ardaurik edaten jaiegunean baino, ta hire etenbako ardausainaz, ez jakiat.

Seberi totoluak sekulako barreak egin zituan.

Honetan, amaren laguntzaile zan Madalen neskatila apaina agertu zan kale aldetik, eta mutilak euren barriketea etenaz, laster asi jakozan deiez, gazteen gogoa ardaus edan-ahala, neskato alaiekin hizketan ekitea dalako.

—Madaaalen! Hemen gagoz gu topeko farola amatauta, nork biztuko deuskun begira —ta hori esanaz, ardaus-pitxarra hutsik egoala adirazo nahi eutsen.

—Txetxu bana mama gozo ekarten badeuskuzu ekarri, bestelako mesedea guretzat.

—Horra ba, honeek mutilok heldu nazaneko, arnasa hartzen be, ez deuste utziko.

—Zatoz hona, ederrori. Erdia!! Gaur be, soineko barriaren hasiera ta adeluz<sup>19</sup> al zagoz?

—Zeer? Busti dagigun orduan hainbat lehenen —esan eban Zaztarrek.

—Soineko barriak? Bat edo batek laster egin beharko ditu, bai —izan zan Madalenen erantzun zorrotza, Zingulineri begiratuaz.

—Han, han, Zingulin, ez dabela esango-ta!...

---

<sup>17</sup> Kirru: linoa lantzerakoan geratzen dan iztupa fina.

<sup>18</sup> Treotzara: Ikus VII. kapituluaren izenburuan idazlearen beraren azalpena.

<sup>19</sup> Adelu: prestaketa; zerbait atontzen ibiltea.



Eta horra nundik jakin eben guztiak Zingulin'en ezkontze-  
gunaren barri, han udazken alderantz-edo...

Eta barruan eben kantagureari atea edegirik, kanta-  
-kantari hasi ziran gazteak, arrantzaleak ohi daben musika  
zaletasun biziz, alai, pozkor, isil samar.

«Zorioneko jaketea, ta  
zorioneko gonea...  
zorionean ikasi neban  
Kontseiupera bidea...»

Garaitiko<sup>20</sup> agurak bere, bertan behera utzi eben euren  
autua ta gazteengana hurreraturik —kanta gozoen egarri-gose,  
euskaldun jator guztiak lez—, lehenengo entzuten jarri ta  
geroago besteekin batean abestuten ekiteko gogotan egozan.

«Pasaten naizenian  
zure atetatik,  
negarrak urteten deust  
begi bietatik.  
Zergaitik, zergaitik,  
zergaitik, zergaitik...?  
Zergaitik negar egin?  
Zeruan izarra dago  
itsaso aldetik...»

Portuko gau isilean, urrumara bigun gozoen antzera en-  
tzungarri zan kai ganean itsasemeen eresi atsegina, han urruna-  
go, etenbakoa dan itsasorroaren oihartzun samurra bailitzan.

Kaia bakez egoan, ez gose ez ase, hurrengo etorren  
arrantzualdirako ohi diran gertaketak eginaz. Gizon, andra ta  
ume itxaropenez beterik egozan, beti bezela, euskal arrantzale-  
en gogoari atxikiak eta lotuak.

Goian ere, gauaro ederra egoan. Zeru-sabaia izarratu,  
lore zuri-urdinez josia zirudian edota pitxi dirdaitsuz ereiniko  
zelai ilunkara.

<sup>20</sup> Garaitiko: generako, gainontzeko, enparaduko.



### III

## EDER ETA GAZTE

Zeruko Giltzari dogunaren bezpera edo aintzintiko egunaren goiza zan, goiz berandua. Eguerdi aldea zala esatezkeru zuzenago ausaz.

Egundoko eguzki beroak joten zituan kaiganeko harriak, eta hondartza kiskaldutik lurrinak lir-lar igoten eban. Trumoburu zuriskak, hodeitxu biribil eta luzanga kirinauak<sup>1</sup> agiri ziran ortzean.

Eguzkiak uraren gainean dizdiz eginaz, begiei ikuspidea galerazoten eutsen. Hegohaize antza, sargori usaina.

Orduak aurrera ta, ha zan beroaren larria, bapere haizeputzik bage!

Txalupetxeko ate ondoan kalera begira egoan Madalen, eta honetan, Nere agertu zan, pendarra besapean ebala, kaiganeko iturrira uretan.

—Egunon, Nere —hotsegin eutsan pozez—; ez haunat ikusi goizean azokan.

—Ez, Madalentu, ama izan don nire orde.

Eta pendarra txurruaren azpian polito ipinita, beroaren igesi, arin joan zan bere adiskidearenganga, itzalperantz, gerizpe eske.

Han hasi ziran, emakumeak ohi dabenez, txutxu ta putxu,

---

<sup>1</sup> Kirinau: kirru.

hizketaldi luzeren baten, betiko antzean, zeresan handi ta gorabehera astunak alkarri lehenbailehen adirazi beharra izan baileben.

—Nortzuk ete dira han Likona-Torre parean datozen mutil biak —inoan Nerek.

—Nortzuk? Haretariko batek hik baino lehenago jakingo jon, herrira nor etorrri dan eta nor ez dan.

—Tximista gorria! Norgaitik ete diraustan?

—Zeragaitik... Oraintxe bere, burua ondo orraztuta dato-  
rren Jontxu eneagaitik. Jon Bizkor, morroia makala! Ehizarako  
txakur hoberik ere...

—Orduan, arraina izan balitz,... izurdea; arraintzua laster  
arin azalduko laieunkenan...

Baina Madalen bera be, ez zan, arranotan, ehize-erreztua  
bertan behera galtzeko ainakoa.

Ta mutil biak, Jontxu bata ta bestea Kerman, etxaurrera  
heldu ziranean, neskatilak, euren buruak ateondora zerbait ager-  
tuaz oles egin eutsen, egoan beroaz nora joiazan galdeginaz.

Tala aldera joiazala erantzun eutsen, iparreko moilearen  
hasiera inguruan dagoan arbolapera, hantxen itsasaize apurrar-  
tean atsegin-izpi bilatzera.

Hiru hondartzetan —Izuntzakoan, Karrazpio txikian eta  
handian— lagunik asko agiri zan. Urabehera egoan eta hondar-  
tzak zabal-zabal eginik, ziran ginoan<sup>2</sup>. Gizonezko nahi andraz-  
ko, umeak ere bai, gehienak luze-luze etzinik, azala baltzitu  
eta txukuldu<sup>3</sup> arte, azala narru bihurtu arte. Beste batzuek,  
putzezko pelota handiekaz jolasean; norbaitzuek, uraren on-  
doan harantz-honantz ibiltaldi barean, eta garaitikoak itsasoan,

---

<sup>2</sup> Ginoan: neurrian, ainean.

<sup>3</sup> Txukuldu: kiskaldu.

asko zutunik, belaunetararteko edo gerrirarteko edo besaperarteko uretan, edota igeri bigun eta errez azal-azalean edo dzangaka olatuen azpian sarturik eta baita urganean luze-luze ere, aratean edo aratinik zerura begira, soina gogor-gogor eta ohol baten antzera luzatuaz...

Lagunik gehien-gehienak erdi bilozik edonoren aurrean. Gizonezkoak, tira ba!, prakamotz eta galtza labur samarrak izan arren... Bainan, emakumeak ere, iztar, bizkar eta bular alde ere harenbatean narrugorri erakutsiaz... Adanen emaztearen soinekoak zelakoak izan ete ziran jakitea egoki izango litzake, noski. Ez ekian asko andretxo harek XX. menderako modak zeintzuk izan zeitekezan, bestelan ez eban, nonbait ere, lotsa gorritz ikopean ostenduten<sup>4</sup> arrapaladan ibili beharrik. Benetan uiolde edo dilubio aurretikoa, oraingoan iritzi jakintsuz!...

Gure mutil biok ez eben, antza, sargoripean soinekoak kentzeko gogorik eta ezta txalupetxean sartzeko astirik be, Madalenek horretarako bidea emon arren. Norabait joan behar handia eben, ausaz, eta aurrera ekin eutsen, gorago esan dogun tokirantz.

Kosepantoniren alaba gazteak irribarrea laster arin gorde eban ezpanetatik, eta haren arpegira begiratu ezker, haren barruan zerbaitek mingostasuna sortuazoten eutsala susmau zeitekean.

Eguzki-galdapetik iges egiteko gerizpe atsegina eskeini arren, zer ete eben mutilok urrezko euritzan edo haize goripean oreinak baizen bizkor bideari ekiteko?

—Egingo neuke, ta samea egin bere —inoan berekautan<sup>5</sup> neskatileak—, hantxe dagozala oindino zugazpean lehen joan

---

<sup>4</sup> Ostendu: izkutatu.

<sup>5</sup> Berekautan: bere artean, berekiko.

diran Arantza ta Zuriñe. Bai, mutil azkar honeik haen usainean doiaz, ez itsasoa ikustearren.

Eta egia izan zeitekean.

Hantxe egozan bai, adiskidetu biak, Zuriñe ta Arantza, eskuetan orratz luzeak erabiliaz, elastiku politen batzuk egiten ziharduela.

Emakumeok, alkarren adiskide haundi ziran. Biok apainak, zein baino zein lirainago, larrosea baizen ederragoko neskatilak, herriko atso zaharrak hain gozaro esan ohi daberen esakunez.

Arantza, baltzerana zan, begi ilunduna, barrura dei egiten dakien begi zoragarrien jaube; barruko gorabehera ta auzien barri, ostera, aztarrenik ere igarri ezinekoa.

Honen laguntxua bestetarikoa zan. Ule horizta, lastokara; begi argi, azal zurixka, irribera. Gari helduaren koloreko adats ugari ta labana zintzilik, lepatxokoa osoro estalduten eutsala. Begi urdin haetan zeru-zatiñoa ala itsaso barearen pitintxua ezarririk eukan. Haren irribarrearen gozoa!

Uriko mutil guztiak ondotxu ekien aldi edo belaunaldi hartako lorarik usaintsuenak zeintzuk ziran, nahiz eta aberatsak ez izan neskatilok.

Aingeru pare amesgarri honen ibilera ta leku kutunen barri ondo bai ondo<sup>6</sup> ekien batzuen batzuek. Nun bizi ziran, zer esan bakoa. Txirlarri edo perla ederren idoro-lekuaren barri, honein atzemoileak bezela.

Goiko kalean bizi zan bata, Arantza musubeltzerana. Bestea, barriz, Arranegiko zabalean, urre-koloredun Zuriñe, Txanton Baixa ta Iñeseren alaba bakarra berau.

---

<sup>6</sup> 1958: ondo bai ondoago. Inprimategi-hutsa izan daiteke.

Eta aipaturiko mutil biak nortzuk genduzan? Bata, izen-tauriko Jontxu, Arantzaren nebea zan; ezizenez edo izengoitiz *Bizkor* esaten eutsen, hau nahiz hori egiteko, horra ala hara joateko beti gertu egon ohi zalako. Zurgin edo arotza zan ogipidez, eta arean bere<sup>7</sup>, era barrietako tresnaz hornidurik eukan bere lantegia.

Mutil azkarra, ezetariko alper-usain bakoa, egin behar zana zirt edo zart egiteko prest egon ohi zana. Edonoren aurrera joateko sakada handiren preminarik izaten ez ebana, buruz zuhur eta argia.

Hitzemon ezkerro, hitz hori zehatz beteten ekiana. «Apurtxu bat urtena ez balitz, gitxi lako gazte errimea», Kosepantornik esan ohi eban lez.

Soinekoz apain jantzia ez izan arren, halako taiu jasekoa ta lerdena zanez, dotore agertzen zan edonoiz, uleak ondo orraztuta, bizarra egunero mozturik, eta aterri baegoan egon, burutsik, oraingo gazteen antzera.

Bidelaguntzat eroiana Kerman zan, aurtemein<sup>8</sup> ezagutu genduan herrimaite handi Bizkarrondo jaunaren semea, mutil galanta, mendia lakoxea, ta bera beteko bihotz ederrekoa.

Ikastuna genduan oso, gure Kerman hau. Legegizon ikasketak amaitu barri heldu zan bere sorterrira aintzitiko egunen batean. Beste asmo batzuk ere, baerabiltzan bere buruan; ikaspen barriai ekiteko asmoak, arean bere.

Eguzkiaren izpi gorien igesi joazan mutilok, laster heldu ziran iparreko moilaren aurrera ta Talarantz apur bat eginaz, han dagozan bost platanondo txaparren gerizpetan aurkitu zituen lehen esandako neskatilak.

---

<sup>7</sup> Arean bere: izan ere, benetan.

<sup>8</sup> Aurtemein: artean, lehenago, arestian.

Une hartantxe, eguerdiko hamabien kanpai hots astunak, hiru, hiru eta hiru, burundara ta durundu sakona zabaldu eben inguru osoan. Emakumeak euren Ama garbiari otoi-agurra eskeini eutsen.

Enparantza edo plaza aldeko arbolape ederrean egozan arrantzale zaharrak eta legortar agure banakak ere, txapelak erantzi eta euren denpora guztiko arrenak egin zituen, ohi eben egokitasunez ta apaltasunez egin bere.

—Hemendik urrun zenbiltzala-ta nengoan, Kerman, baina ikusi zakustaz-eta, badakit zeure bazterrera zarena<sup>9</sup>.

—Bai, hemen gagoz barriro bere, Zuriñe —erantzun eutsan Kermanek—, eta pozik egon be, norbere kabitik hurbil ibilten diralako txoriak pozen. Atzotik nago ni hemen...

—Bai, baina gu, beste batzun moduan, ez gara beti Eskolapera joaten, ta...

Eskolapea deritxan leku hori, zabalgune edo plaza txiki bat dozu, uriko tokirik biziena ta ibilpidetsuena, erdi-erdia edo bihotza bailitzan. Lau bidezabalak bertan alkar zehartuten dabe, ta horregaitik erbestera doiana ala kanpotik datorrena —gizaki, abere edota izaki— legorrez behintzat, handixek igaro ohi dalako.

Ondoren, neskatilak jesarrita egozan harrizko jesarleku luzean jesarri ziran mutilak ere, ta Karrazpio hondartzara begira egozan. Eguzkiak zeru-goitik txinpartak botaten ziharduan, geroago ta goriago, eta uretan barruan izan ezik, eguerdiko ordu hartan, leku hobea egoan itzalpean baino ere, etxebarruan, lehio ta ateak ondo itxita.

—Asko da zuek hondartzara ez joatea, gaur dagon eguraldiaz —esan eutsen Zuriñek mutilei.

---

<sup>9</sup> Zeure bazterrera zarena: herriratu zareana.

—Kermanek ez dau gogo handirik izan-ta... —jardetsi<sup>10</sup>  
eutsan Jonek, bere lagunari keinu eginaz.

Eta autua aldaturik, hauxe adirazi eutsan Zurineri:

—Nahi dozue bihar aureskurako izan?

Zuriñek hori entzutean Arantzari beitu eutsan, galdegiten baileutsan. Emakumeen begi-itaune batek zer esan nahi dauan, ez da errez adirazotea. Sarri askotan, euren artean lehenago hitzeginiko arazoren baten ziurpena izan ohi da; beste askotan otoz otoko jazokunen bat, uste-ustebako asmo edo eretiren bat.

—Arantzak esan dagiala.

Honek, ordea, ez eban murtik bere adirazo, barre algarata egin baino.

—Isilik dagoanak baietz dino —epaitu eban Kerman nasaiak, ezpain artean hagin zuri-zuriak agertuaz.

Eta ondoren bakoitza bere neskatileaz egundoko berbaldi ta solasean, erdi isilka-misilka jardun eben bikoteak, eguerdiko beroaren handian, Tala inguruko arbolatxuen itzalpe gozoan.

\* \* \*

Handik eta ordu batzuetara beranduago, Kosepantofñineko txalupetxean bazan autua ta berbotsa baino ez zana.

Mutil gazte mordo ikusgarria egoan hango mahai ondoetan eta hitza ta pitza uiolka etorkien ahoetatik kanpora. Poz irazkorra zan euren poza, ingurukoak ere ezititan jarten dituana.

Biharamonerako jai gertaketan ziharduen guztiak, eta bakoitzaren asmo, aburu, iritzi ta gogo agertu beharrez, alkarren burutapenak topeka egiten ipinten zituen.

---

<sup>10</sup> Jardetsi: erantzun.



Nunbait bere, kailde euskaldunetan ohi dan egun alai ta piztugarria eratutekotan ebiltzan gazte alaiak; eta jaiketa ospatsu zuzpergarriren bat burutu arte ez eben bakerik izango.

Arrats inguruko orduetan, arrantzale ta legortarren batzar anaikor harek, zantzu ta susmo hoberik ezin eukean izan. Hantxe egozan Xirido, Zingulin, Okotz, Urpion eta beste arrantzale gazterik asko; hantxen Kerman eta Jon ere, irakurleak ezagutzen ez dituan beste mutil galant jaseko batzuen erdian.

Iluntzeko aurrekuen antolapena, guztien ahorako egin eben; danen gustoko izango zan. Zertzelada, zehetasun ta gorabeherak zuhur ta egoki atondu ta lotu zituen.

Amesetz beteak izaten dakie beti gazteentzat ospakizun ta jaien aintzitiko egun luzeak eta une amaitu ezinak.

Barreanean isiotu ta haizatu daroaguzan<sup>11</sup> lilura ta egingoak halako urre-dirdaiez, argi-izpiz ta likurt-usainez apaindu ta edergainkatu ohi ditugulako.

Ai, gaztetango aro loratsua!

Egun bakoitza, hurrengoaren ate atzipetzaile ta maila gertagarria da, ta iluntze bakoitzean, ortziko loretxu zidarrezko ditugun izarnoak ames-hegalkaden haize soinu-isilduna hel erazten dabe gizonen belarrietara.

Horra gure gazteriaren egoera egonezina, aipatu barri dogun jai bezperako ilunabarrean.

---

<sup>11</sup> Haizatu daroaguz: bizitu, astindu ohi ditugu.



#### IV

### ZERUETAKO GILTZARI

Ez da edozelakoa izaten kai aldeetan euren zaindariari dagokion eguna.

Ta batez bere, baldin arrantzale jasankor ta bulartsuak dirua zirin-zirin<sup>1</sup> badarabile esku artean. Dirua, hainbeste neke gogorren saritzakoa! Hamaikak, arrantzale gaisoek baino erre-zago irabazi ohi daberen dirua...!

Portuko poza ta iskanbila, hango zantzo ta uuiua, berbotsa ta kanta arina, jana ta edana, barre zabal ta jantzagure zoranga. Gauzak berak dakarren ondorio jatorra.

Horrelakoxe laket aldiak zuzpertz ta haizatzen ditu kaieko lagunak, zahar ta gazte, atso nahiz agure, lirain zein lodi, hankarin ala oinastun.

Goizean goizik, txistulariak lehendabizi, musika-taldeak hurrengo, soinu pozgarriak entzun eraginaz kalerik kalerikoetan, herri osoari halako pozantza ta jolas-giroa ezarten deutse, eta ohetik zapart egiteko edonor egoten da gertu.

Musika zortzikoa. San Pedoren zortziko zolia; labur samarra baina oilar kantua baizen eragin eta bizia dogu bere lehenengo ereskaian; eta bigarren atalean, ostera, apalagoa, bigunagoa, ur arteko susmurraren antzeko.

Eta soinu horregaz aldizka, aspaldi danik bertakotzat lez

---

<sup>1</sup> Zirin-zirin: laban, irristakor. Gastatzeko prest; xahutzeko moduan.

dauken «Tolosako zortzikoa», jatorrikoa baino beste hainbeste luzeagoa, benetan atsegina hau ere.

Musikariok kalez kalekoan «Kaigana» ingurura heltzean geldialdi egiten dakie, hantxe, arrantzale-etxe aurrean, Zerue-tako Giltzari gurenaren irudi aurrean soinukera alai bat jotea norezekoa dabelako, ohitura zaharrari dautsoelarik<sup>2</sup>.

Ta ordukoxe, eguzkia jagi barri baino ez danekoxe, ikotika ta jauzika, irraka ta saltoka, barrez ta zantzoka dantzan egin behar izaten dabe urterotsu hatan bere, emakume batzuek, eta kalean bertan gainera.

Ordu hartako dantzariak neskatilak baino ere andrak izaten dakie, andra sasoikoak, berrogetamar-ta urtetik gorakoak, ipurdi zabal, sabelastun, bular gizendunak,... baina oinez bizkor-rrak, soinez azkarrak, gorputzez zalak<sup>3</sup>, gogoz alaiak, tximista gorria!

Gazte asko baizen ardatzagoak, neskatila arpegi zuri askoren ondoan bestelakoak, madariena!! Makinatxu bat bidar ikusi izan zan dantza alai horretako buru, harako Pillar Tinteria, defunta ederra!

Argiz ta loraz apaindurik egon ohi da ordurako hantxen horma barruan dagon irudia, ta egun hortan xurbil, kolorga ta geiso-antzez agiri ez dedin euren Buru dabena, ta bai ostera eurak baizen gorribaltz eta osasun, ondo kolore gorritz ipinten deutse arpegia urteoro. Kendu alde batera beluritasun ta maskal antzak, ta odol-margoa ta arda kolorea agirian ipini!...

Zintzo gogoz, baina zaintsu ta sendo gorputzez ere. Horixe bai!

Goizeko bederatzietan eliza nagusian meza bat izaten da haren altaran eta hamarretan Nagusia, kanta ederrez ta hitzaldi samurrez.

---

<sup>2</sup> Dautsoelarik: eusten deusiela, atxikitzen diotela.

<sup>3</sup> Zal: zail, gogor.

Eguerdi aurrean beste jaikunik ezer ez baldin bada (1) arratsalderantz geituten dira egitadak, bata bestearen hurrengo. Santuaren irudi astunagaz eleiz ibilera luzea egiten dabe ta nasazarreko mutur bateraino heldurik, oraingo kai zabalaren barruan, eta Deunak berak itsasoaren onespina egiteko aieru edo zinua egingo baileuan, zanbulu handi bat eragiten deutse bere eroaileak, «kilinkada» ospatsua, emakumeen eztarrietatik oihu ta karraixiak urtenezotzen dituan zanbulu galanta.

Ohi diralako gertaerak jazo ziran egun haretan ere. Eliz ibilera ondorean, herriko ohitura zaharreko dantza entzutetsuaren aldi ta garaia heldu zan. Une hortan daki kaieko seme-alaben odol bero baina baketsuak irakiten hasten, pozaren indarpe, erromeri-usainean, nekeen aringarri, oinazeen ahaztugarri.

Nork ez daki «Kaixerrenka» deritxan jantza zahar honen barri?

Nork ez dau gure eguneton paragabeko irrada bakan ta aintzinatiko honen izena entzun?

Lekeitioko kaixerrenka zaharra! Bizkai osoan ezezik, EuskalERRI guztian ere edonork daki oinketa hau zelakoa dan, igaroko urteetan kaixa idor itzalgarrri hau, beste inun ez dakien dantza bedegar<sup>4</sup> hau, hara ta hona, batekotik bestekora erabili dabelako.

Noiztikakoa ete dogu errenketa hori? Batek badaki. Ez daigun ahaztu, ostera, arrantzaleen Kofradia —anaidia— XIV-garren mendetikoa doguna, ta orduan ere baekien jantza horren barri, paper zaharretatik jakin leitenez.

---

(1) Liburu hau argitara orduan, aintzinetatiko jaiok goizera aldatu ditue. Aldian aldiko... ta ontzat emoten ez dauanari, lepoko narrua kendu.

---

<sup>4</sup> Bedegar: berezi, desbardin.

Ez zan makala izan Kaixaganeke hori ikusteko bildu zan lagun piloan.

Hango lagunaren laguna! Kofradia inguruko kaleak ez eben ibilpiderik inorentzat; Kaigana jentex ganezka agiri zan, josita, jurjiduta<sup>5</sup>: gizonezko ta andrazko, bata besteari bultzaka ta sakadaka, ta umeak ostikopean zapaldu beharrez...

Txistu-tuntuna aurretik ebela atara eben kutxa jatorra lau gizon gaztek. Behar zanetan, batez ere dantzaldietan, beste lagun bik edo laurak lagunduten eutsen kaixea euren sorbalde-tan jaso edo eusten.

Kaixaganean zutunik, grezitar jainkoaizun baten irudi biziaren antzera, lerdan, baltzeran, harro, zal agertu zan dantzaria, Arraintza-etxetzarretik urteieran.

Oinetakorik bage, kaltzerdiño zuriez; kaltzak eta alkondare-rea ere, edurra bezin zuri; jakea, baltza oso, ta orobat kapela tunturra. Eskuman banderatu gorriluna, urrezko giltzak zeharka iruditurik. Ezkerreko eskuan kapela edo ginbaila hartu ohi dau, jantzaldian burutsik jardun behar daualako.

Lehenengo dantzaketea, ohiturari egokionez, Zeruko zaindarien aurrean bertan egin eban. Txistulariak «Zer dinona...» zortziko ezaguna hasi ta laster, jantzari gazteak lau aldeetara hurrengorik hurrengo, makurtuerak eta erreberentziak egin zituan gerria bigun eta malguki bihurtuaz, eta buruaz ukur<sup>6</sup> eginaz.

Jarraian, behingoan hasi eban bere arloa. Hiru atal dituen dantzaketea: zortziko, orripeko ta arin-arina, 5/8, 3/4 eta 2/4 musika-neurritz, hurrenik hurren.

Harek bai ebala oinetan bizkortasuna! Haren behatzen, ta orpoen, ta orkatilen, ta bernan ta iztarren arintasuna, kaixa

---

<sup>5</sup> Jurjiduta: bete-bete, ganez.

<sup>6</sup> Ukur: erreberentzia.

zaharraren ganeko oholari noizean bein berarizko dranga-dranga hotsak ateraziaz.

Hain leku estu medarrean eta beti ere lurrera jausteko, beheko harrigogorren ganera erortzeko arriskoaz; bainan zelako hanka-joko, oin-muturretako ta behatz-puntakoak egin, gero!...

Batez ere, arin-arinari ekiten eutsanean, ikusleen zantzo, uiuiu ta irrintziak kaleetan durundi zorrotz, luze, alai ta sarkorraz zabaldu ondorean, urrunago ere iges egiten eben.

Ekanduaren esanera, hurrengo beste saiaketa bi egin zituan, leku banatan, lehenengoaren antzera egin ere; urteko diruzain ardurea uzten dauanaren eta hartzen dauanaren etxe aurreetan.

Dantzariaren azkartasuna hainbatean zantzolarien jasa ere, gomutagarria jaku, andra ta neskatilen eztarri zoli ta bular indartsuen irrintzietara, ba, ikusle-entzule guztiak pozez eztitan jarri ohi dira-ta.

Handik gerotxoago, gazteen joera plazara izaten da, aurriskuak aurrisku egiteko sasoiak laster heltzen dalako. Gazteon ibilera ta jolasok ikusteko gurari handiz egoten da mundu guztia, Zumardian eta kai inguruan.

Iluntze hartan bere, horrelantxe zan, hurrengo orrietan ikusi daikegunez.



## V

### ARRANTZALEEN AURRESKUA

Une hontan ondo ta egoki izango da «Azkarrea» baten gomuta, oroipena egitea. «Azkarrea» zaharra! Ha zan dantzaria, dantzaririk inor izan bada! Herritar oinkalari ospatsu hau beste emakumetxu baten izenagaz batean jarri beharko: harako Luisatxu Kaiganeko. Hamaika bidar egin eban Doniane goizez Emakumeen aureskua deritzana, bertoko irrada jatorra hau ere, bere oinketa ta musika bereziaz. Dantza hortan andrazkoak jarduten dabe soil-soilik lehenengo, eta geroago gizonezkoak croaten ditue sokarako.

Gona gorri, amantal baltz, goruntz zuri, buruko zapi txistandunak belarriak tente eta zut, eta sorbaldetatik zintzilik bizkar eta besoak estaldurik Manilako ehun meheiak, mantoi koloretsu ta loradunak. Herriko alaba diran emakume txairo ta lirainak, edertasunezko jaikun ikusgarri opa ohi deuskue herriko jantza bikain, bakan ta berezi horretan.

Zeruko Ate-jagolearen eguneko kaixerrenkea!... Doniane goizeko Emakumeen aureskua!!!

Aurretikoengandikoak dituzuen eresoinketa zoragarriok, mundu zabal honen erdian: ez egizuez ahaztu, ez utzi, ez baztertu. Herrikosemeen ahaleginak arlo hortan ere, arduratsuak eta onuratsuak beitez. Urtero ikusi daitezela uriko kaleetan, izakera berarizkoaren agerkaietariko lez. Iraun begie mendeen hondarretaraino!

\* \* \*

Ikusmeneko zan, barriro bere, Uriko-etxe<sup>1</sup> aurreko plaza nagusian batu zan lagunaren laguna. Txistulariak aurretik, eta atzetik egundoko mutil saila etorren auresku erreskadan, abarketa zuriak, praka ta alkondara garbiak, ta honen idunak askatuta, paparrak zabalik zituela.

Halakoren batean, bere makilatxua edo aginpide-zartea gora jasota, Perkain herrizaina hasi zan erdian leku egiten, dantzariak euren ekitaldirako nahikoa toki izan eta ikusleak ere, egokiago ta aiseago<sup>2</sup> ikusi ahal izan egien.

—Atzera! Zoiaze atzera, atzerago! —didar egiten eban, lagunei besoaz saka ta saka eginaz.

—Hor datoz etorri gure mutilak —esan eban Egiluz zaharrak.

—Nor da, baina, atzesku datorren zimel hori? —galdetu eban jakingura betidanekoz neskazahar batek.

—Horiii? Horixe dozu ba, Zingulin esaten deutsena, Ez-paintxuren ordezkoa izaten dana, bestearen hutsa izan ezkerro.

—Izan bere, bai, bera da-ta! Argalago begitandu jat-eta...

—Argalago? —zirikaz aitatu eban albotxutik beste atso sorgin batek—. Maitetasunak argaldu izango eban. Laster loditu be egingo da, aska ona topau dau-ta... Ez be! Besomami-ñeanean...

—Erdia!! Ikusten dozu zein bizkor hasi dan Peru Ezpain aurrekuginen? Kaixa ganean egin barri dituan jantzaketan erakutsiriko irradakoak gora-behera, bapere nekatu danik ere ez dirudi berorrek. Hara gero, haren artaziak eta gerri-dardakadak!...

—Mutila makala!

---

<sup>1</sup> Uriko-etxe: udaletxe.

<sup>2</sup> Aise: erre, nasai.



—Beste horreik, neskarik aurkitu ezinik edo dirudie...

—Noren bila ete dabiltz ba? Gaur itsastarren eguna da-ta, neskatilak ere, arranegitarrak nahi litzakez.

Han egoan aintzina frontoi zaharra ei zan inguruan alkarrengana bildurik, neskatila aldra zoragarria. Ta zelan jantzita, zelan apainduta, ta zelan orraztuta egon bere!

Gizonen beratasun ta galpide, argalkeri ta oztopo, Egileak horrelantxe eginda —nork ez daki?—, emakumeak ohi dira.

Gudian lan gogorretan, neke latzetan, ekaitz artean, ezberharretan, beti,... gizona, sendo bai sendo agertu izaten da, ta edozein okerraldi ta zailtasuneri arpegi emon ta bularra erakusteko adore, kemen eta indarra izan ohi dau.

Bainan, emakumearen aurrean...

Eta han egoan, lehen esan dogunez, neskatila sail ikusgarria, zelaietako lorak eurak bere, bekaitzez ta ondamuz ikusi eukien gizalaba talde mardo. Zein baino zein txairoago, bata baino bestea dotoreago, nor baino nor txanbelinago.

Emakumea irudia da, irudi bizia ta biziduna.

Soinaren izate guztiak edertzen, apaintzen eta nabarmentzen dau izan, buruhausterik gogorrena, gazte ta gei dan artean batez ere, baina baita gerotxoago ere, ta urte luzeetan gainera.

Gudariaren antzera, emakumea beti dago gertu, beti ernai bere buru-eder aldezko burrukarako.

Gorputz osoa, hor hor, erakusgarri, urtenago, agiriago eskeini ohi deutse gizonen ikusmenai. Gorpuzkai batzuk batere estaldu bage, beste alderdi batzuk ehun edo tela mehez gainal-detik gorde arren, irudi-irudi, zorrotz, luze ala borobil, agerrezaz. Gizasemeen irriks eta grinen erasogarri ta piztutzailizat atondu ohi ditue andrazkoak, beti bai beti, euren jantziak.

Izadiak oparo emon deutsezan edergailuak, gorputzean dituen jas ta graziak, taiu ta tankerak, ondotxu dakiez egokia-gotuten oraingo emakumeak. Buru ondo orraztuak, soineko politak, gerri estuak, bular harrotu-hanpatuak, berna lirainak; arpegi, begi, ezpain, hortzuri, beso, lepondo, esku, behatz eta atzazalak arterainoko guztiak. Norberak erakusgarri berezirik baldin badau, ez dau emakumeak aintzakotzat hartu barik utziko, eta horregaitik agertu eta ikusi eragin begiak dituanari, lo egon ezik behintzat.

Aureskuaren emakumea mutil gazte bik erdian atara eben, Zinguliñen ezkongai maitagarria, Mariñe Besolodiñekoa. Atso tximur harek legezko zana esan eban lez, arranegitarra zan, berta-bertakoa izan bere, Berdara kalekoa. Inon dan aureskugintzarik azkarrena izan zan huraxe. Atzeskua ere, haren pare izan zan. Gure Zinguliñek egoki baino egokiago ekin eutsan. Honeri Irene eroan eutsen laguntzat, Kosepantoni-ren alaba zaharrena.

Bai ikusgarri izan zala esku bien oilar-auskea<sup>3</sup> ere. Neskatilak erreskadán atara zituen baizen laster, soinua bat-batean eten, eta bigarren aureskua hasi eben gero, azkenengo dantza-jotaldiak guztiak batean egiteko.

Bigarren auresku, Xirido mutil lerdena baizen atsegingarria zan. Jon Bizkor, ostera, atzesku. Ikusleen pozkarioak ez eban neurrik izan eta horregaitik barrero bere txaloka hasi ziran. Eta lehenengo dantzariak zal eta eraginak izan baldin baziran, besteok ez ziran, horixe ez, batere motelagoak. Ez ekien makalean dantzan mutilok ere!

Ordurarteko gelditu zan sail garaitikotik Arantza ta Zuriñe atera zituenean, bazterretako agure guztiak bere, erdi-erdira begitu ta begitu ziharduen. Halako lirio zoragarririk! Bata baltzerena; urrezko ulematasadun, bestea.

---

<sup>3</sup> Auska: burruka, errieta.

Soinekoak edurra iduri, gerriko gorrimez, paparrean kabelina mardulak zituelarik, lilien ahizpatxu zirudiela. Nork begiratu ez orduan, halako ikuskairik! Baita ezkonduak eurak ere!... Lekutan!

—Xirido, hori dok-eta!... —didar egiten eutsen pozkiro aldrako lagunak.

—Jontxu, hortxe haiz ba! —entzuten zan txaloen durundi ta zaparrada artean. Alagalako<sup>4</sup> lagunak batu ere-ta, sekulako aureskua izan zan.

Auresku bien artean, ikusgarrizko uztai zabala egin eben, eta plazea betean ekin eutsen tanbolin-soinuaz. Azkenez, turrun-turrunka edo biribilketea eginaz, txistua —etorreran lez— aurretik ebela, Uribarren kalean zehar alde egin eben, begirale guztien bihotzak eurekin eroiezalarik.

Bainan hirugarren aureskua ere, berehalakoan antolatu eben, nahi ta barregarria izan.

Nortzuk? eta... Karel, eta Mordoillo, buruzagi ganorabakoak. Ta neskatilak aukeratzeko, Zaztar eta Gorosti. Guztiok ordurako edariz behinepehin, ondotxu baru-hausiak.

Ikusleen barre-algarak, Arropainetik entzun zituen!

Herrian beste bi hautetsi behar izan balira bere, ezin zeitekezan egokiagorik aurkitu buruzagion neskagaluntzat, atera zituenak baino: Mikela Begi eta Timuti Belarri.

Begi eta Belarri, alagalako bi! Nork ez zituan ezagutzen, arranetan! Kaleko harriak eurak baino ere, haize-eguzki-iretar-gitan egote gehiago egiten ekien mutxurdina<sup>5</sup> ospatsuak!...

Gorua ta gorutzapela; bata Zu ta beste Ni; baleuko ta balitz...

---

<sup>4</sup> Alagalako: berebiziko, egoki, aproposko.

<sup>5</sup> Mutxurdin: neskazahar.

Horra urteak joan, urteak etorri, ezarri izan eutsezan izentxu batzuk. Umeginokoak ere<sup>6</sup>, ezagutzen zituen edonun eta edonoiz hara ta hona ebiltzan orbel biok.

Etenak egin zituen barreka ikusleak, hain ganorabako talde haren zirriparra ta joan-etorriak ikusita.

Bainan, honein gatz-urritasun ta ganorabakotasunari jaramon egiteke, goiazan, irakurle, lehen ikusitako gazte ederren artera.

---

<sup>6</sup> Umeginokoak ere: umeeek eurek ere.



## VI MAITEMINEZ

Ohi danez, gure neska-mutil sail ederra, dantzaketa ostean, gozotegira joan zan; egindako lanaren ordaingarriztat eta emakumeai zor jaken begiramenezko opariski lez, edari bigunak eta janari gozozkoak eskeiniatz.

Opiltxuneko dendara sartu ziran, eta mahai askotan banandurik, barriketa alai eta esangarrietan ekin eutsen. Baita kanta samur asko ere, abestu ta oihuztau zituen, euren artean hain atsegina dan olerkari herrikidearena, eta oraingo gazteak jakin ere ez dakiena, zorigaitzez: (1)

«Aro ona dago, kairantz goazan,  
kanpoan dabil iparra,  
gaurkoa da bai itsasaldia,  
eztago taiua txarra.  
Otzaratxu bat, otzaratxu bi,  
arraina dator portura beti...  
besigu, lebatz, sardina ta atun,  
eta beste asko ganeti.

Palu, erremu, bela ta kordel,  
mazia ta ura bere bai,  
sartu daiguzan txalupan laster  
itxaron barik gizonai.  
Otzaratxu bat...

---

(1) Azkue, Eusebio-M<sup>a</sup>, *Parnasorako Bidea*, 1896, 64. orrialdea.

Arrantzaleak barua ausita  
kanpora doaz zintzorik,  
betoz guztiak osasunagaz  
eta inor bere ez gaisorik.  
Otzaratxu bat...

Errira datoz iparraldetik  
belak betean ontziak,  
ondo dirudi egun argitan  
belan dabillen ontziak.  
Otzaratxu bat...

Berrogei arratz<sup>1</sup> besigu dakaz  
txalupa andiak eginak,  
ogetamar bat txikerrak eta  
larogei lebatz potinak.  
Otzaratxu bat...

Erbaixeruak<sup>2</sup> or goian dagoz  
arraina iminten narretan;  
garbitu arin, lagundu daigun  
asto ta mando zametan.  
Otzaratxu bat...»

Bitartean, astiak txiri-txara iges egin eban, atseginez dagozenai ohi deutesenez; eta eguzkia Otoioaren atzean ostendu eta itsasoan murgildu zala, aspaldi zan. Haren ordeez, gau estalki baltzekoa hasi zan uriko kaleak beteten, eta etxeetako argi-izpiñoak keinukadak egiten.

Jan-edana amaituta, gozozko sorgin-apariari azkena emonda, guztiak alkarri agur eginaz kalera ziran, eta bakoitza bere lekuetarantz abiau neska-laguntzen, arean bere, aurreskuari dagokionez, mutil bakoitzak gonadun berea ebalako.

---

<sup>1</sup> Arratz: bisiguak pisatzeko erabili ohi zan otzara handia.

<sup>2</sup> Erbaixeru: erbaiero, portuko behargina.

Arteetan, plazako soinuketea ere burutu zan, eta lagunak lagun kaleak betean joiazan euren etxeetarantz, batzuk goialderantz, beherantz enparaukoak, eta abar.

Bidezko zanez, Zinguliñek laster beregandu eban Mariñe Besolodi, bere *saiheski* kutuna, eta han joiazan Berdara kalean gora. Pozik joian Xirido bere, Arantza baltzerana alboko ebala.

Izarrak dirdizka ziharduen oskarbi zabalean, gogoari ziri egiten deutsan isilezko ahotsez, bihotzari indar eragiten deutsan hizbageko aginduz. Iparraize eme batek zurrumurru egian zumardiko zugatz-hostoetan.

Lagun bi joiazan nasan zehar, eta erdi-iluntasun hartan, ezin zeitekean nortzuk ziran ezagutu.

Arranegiko zabalaren barrenera heldu ziranean, kantoian gora egin eben, eta gero, eskumaldera. Zaldundegi etxearen aurrez aurre gelditu ziran, iturriaren ondoan. Hango argi hits, motel eta zurbilak indar handirik ez eukan-ta, ez zan errez arpegiak ikustea. Ordurako zehatz ilundu eban.

Autu luzeren batean ziharduen antza.

—... eta oraintxe baino ereti<sup>3</sup> oberik...

—Esan gura dozun hori, esan zineist<sup>4</sup> —jardetsi eutsan emakumeak.

—Bada, zera... hasarre-bide ez balitz...

—Ez, gauza txarra ez baldin bada.

—Gauza txarrik zelan esan neizu nik zuri... maite zaitudala esango baneutsu?

—Hori da guztiori?

—Guztia da, ba? Ala, nire esan hau uste al dozu egoki-eza dala?

<sup>3</sup> Ereti: abagadune, aukera. .

<sup>4</sup> Esan zineist: zineit, zeinkit, diezadakezu.

—Ez holakorik, baina uste-uste bagako zera azaldu deustazu-ta...

Emakumeak, horra ba!, honelako gertaeretan beti jokutzen dabe era bardinez. Gizonezkoaren maitetasun-agerkundera, usterik bako azalpena izan ohi da eurentzat, eta harritu ta konkortu antzean lotzen dira, euren inguruan —argiarenean inguma ta tximirritak bezela— jira ta bira hegoak erre beharrean, gizonezkoren bat aspaldi ikusi ta ikusita gero, noiz entzungo dagozana entzuten dabenean.

—Bada, lehen ez bazenian ere orain dakizun ezkeru, zer dinostazun entzun nahi neuke.

—Zer esan? Zer esatea nahi dozu ba? Erabatera eta itsumustuan<sup>5</sup> erantzunik ezin emon neizuna, jakin behar zenduke.

—Horrezkeru, belu<sup>6</sup> heldu nazanentz adiraziko?

—Niri esana, beste zenbat gehiagori ere ez ete deustazu esan?

—Baina ez bene-benetan, zuri orain azaldu deustudan lez.

—Tira ba, horrelan izan dedila...; baina, noian etxera berandu dalako, kaleak guztiak ere hutsik dagoz-ta.

—Orduan bihar gabaz...

—Biharko barri Jaungoikoak daki. Gabon, eta ondo lo egin! —hots baten esanaz, arin-aringa joan zan neskatilea euren atetarantz. Ertzedegian<sup>7</sup> egoan atea, apurtxu bat zabaldu eban eta han sartu zan behingo baten.

---

<sup>5</sup> Itsumustuan: bat-batean.

<sup>6</sup> Belu: berandu.

<sup>7</sup> Ertzedegian: apurtxu bat zabaldu; guztiz itxi barik.



Mutilak Arranegi kalean zehar gorantz egin eban, eta kalertzeko argipetik joakeran, burutsik joian gazte bat ezagutu genduan.

Jontxu zan.

Kaleetan ez ebilen ez, lagun handirik. Baina handik geroetara bere, gabontz, mozolo ta saguzahar banakaren bartzuk baebiltzan ibili; hegorik bageak, jakina ba.

Urrun samarretik etorren berba hotsa, hitz zaparradea, gero ta hurreago<sup>8</sup>, gero ta ozenago, eta noizean behingo barre algara gangarrak, Ezpeleta kalean atso bateri leihora urten eragin eutsen eta hitzaldi pipertsu hau eraso:

—Zer dakarre eurok, kankailuok halakuok! Nortzuk, eta betikoak! Itsasoko urak guztiak ez al jakez noiz edo noiz arda bihurtuko, halakoren baten nahia edanaz asetu eta ito daitezana! Bestelako bakea izango genduke auzuotan. Lotsagalduko, moskor, hordi, barrua zaragiak berak baino bere baltzago daukazuena! Lotsatu be, ez zarie egiten-ta, lotsatu be! Zantarreriari emonda zeharo, partila usainik bada! Lanbasok halakuok! Ez deusue behingoan diruak sakelik erreko! Zoiaze hondarrera, edo Talara, edo kabuko tanborrera!...

Hitzaldi luze, zorrotz eta garratzori arnasa baten esanda gero, draska! hertsi eban leiho-atetxua andra zimelak.

Baetozan —atsoaren esanak gora behera—, baetozan oilo-oiloka, alkarren jarraian, alkondarak kanpoan zituela, batak besteari oratuta erreskadan, banan-banan, hiru morrosko, haize ta eguzkiz baltzituriko arpegi ta kokotondo mardodunak, Ezpeleta kalean zehar, isil samar abestuz:

«Jarrai, jarrai, jarrai,  
geure aldra ederrari,  
etxaramon egin  
atsoen esanari...»

---

<sup>8</sup> Hurreago: hurrago, hurbilago.

Euren Zaindariaren aurrera, San Pedropera heldu ziranean, euretariko batek —Mordoillo, Karel eta Gorosti ziran hiru «erregeok»— agindu eutsen beste bie:

—Txo, hementxe egin behar jeutsaguk gure patroï nagusiarri agurra. Hortxe jagok egon, geuri begira egon bere, geulez arrantzale hutsa izanda, zeruetako *kaporal* egin zana. Gora geu, ta geutarrak! Aixaxorri! Ardor-motxorruak kaiganean! Goiazan Maria Txatxarrenera, herriko bandan!...

Doi-doi lortu eben ardandegi hartan sartzea, ateari hertsiteko<sup>9</sup> orduantxe egozan-ta. Baina handik laster atara zituen, eta Arranegiko zabalerantz egin eben.

Karelek ez ekian nun ebilen bere, ez legorrean oinez, ala ontzibarruan ala ur-azalean uhin artean.

—Nun bizi haiz, Karel? Heementxe, eztok?

—Asko jakiat nik ba! —erantzun eban Karelek, aharrausi handi bat eginaz. Ta horren hurrengo barre-karkaixa zoroa.

—A zelako zirri mamina egin deusadan Timutitxuri!...

—Isilik egon hadi, zantar iperdi, tentelduta hago-ta!

—Zaldun kalean gaiagozak, eta doiala kantal<sup>10</sup> barrenean gora etxeraino bera bakarrik —esan eutsan bigarrenak hirugarrenari, guztiak alkarrengandik aldenduaz eta banatuaz.

Egunak txirrist egin ebaneko, elizarantz joiazan andratxu goiztarrak han idoro eben lurrean luze, zan ginoan, Karel gurea, barruna eban zaztarraren besoetan lo.

Izan bere, ardautzan kareleraino<sup>11</sup> sartu zan-ta...

---

<sup>9</sup> Hertsia: itxi, zarratu.

<sup>10</sup> Kantal: kale-kantoi.

<sup>11</sup> Karel: untziaren albo-ertza. «Mozkor-mozkor eginda» hemen.



## VII

### TREOTZAREA? (1)

San Pedro Txiki egunak ere badau halako jator-usain eta kera berezia arraintzale urietan.

Uraren ertzerago joaten dira herri-jaietako egitadak. Itsasondorago, soinu ta dantzaketak. Ilunabarrean Talan, uhinen eragozpen diran atxen ganeko horma sendoen ondoan, izan ziran egundoko erromeri-jaiak.

Egun horretako goizean, Txalupetxe aurrean, sasi-eskola egiteko asmoz nunbait, olgetan eta jolasetan ebiltzan mutil koskor batzuek. Hamar urte inguruko mutikoak, bata bestea baino okerragoak. Txanbiurrezko<sup>1</sup> gorputz-arimak zituenak, Kosepan-toniren esakeraz.

Bata, honen lobeia, Mariñe sareginaren semea, Mikolas Aken zeritxana. Honen lagunak, Zozpal eta Ezten, anaiak. Lau-garrena Kiri zan, besteok baino apalagoa, bildurriago edo makalago zalako edo... Okerreriaren baten ondoren inork jarraituten eutsenetan, azkenengo honeri gehienetan oratuten eutsen, eta beronek galtzen zituala-ta, beti egozan asmotan euren sailetik kanpora alde eragiteko.

Buru, esku ta oinak okerreri ta bihurrikerietarako lez, mina bere, berbetarako bizkor ta artazia eben morroiok edo mutikuok.

---

(1) Maite-eskabidea egitean, emakumearen ezetza.

---

<sup>1</sup> Txanbiurrezko: bihurkor, malgu, zalu.

Akenek Ezteneri eskuetan erabilen lokarri edo sokazati bat kendu gura izan eutsala ta lortu ez ebanean, matarlako<sup>2</sup> handi bat emon eta negarrez utzi eban Zozpalen anaia gaztea.

—Al-itxi! —didarregin eutsan Eztenek—. Eioh hori amari nahi bok! Euen ama!...

—Tirixilik! —Akenen erantzuna, beste belarrondoko bat emonaz, gainera.

—Heuri itxi sokea! Guzurra dinok hik!

—Koipe gorriak atarauko jautsudazak!<sup>3</sup>

—Mutil txikiak joten! Piskala! Joik ia Zozpal!

—Isilik egoteko! Bestela...

—Heugaitik! Txikinagoak joten beti!...

Egundoko matxinadaren bat sortuko ete zan mutilen artean, esan zeitekean. Baina, bai zera! Handik ordulaurenera baino lehen, guztiak baketsu ta adiskidetuta egozan, hasarre irau-teko indarrik ez ohiturarik ez ebelako. Hamaika honelako burruka, auskaka ta haserrealdi izaten ditue urietako mutil koskorrak euren artean.

Halango batean, lurrean jesarrita egozan tokitik bat-batean zutundu, ta tximisteak baino arinago alde egin eben herri-rantz.

Asmoren bat bururatu jaken, antza, eta zirt-zart, asmau ta egin. Moilan zehar, Gamarran zehar (eskolarantz ez, zer gerta-  
tauko bere), Eskolapera heldu ziran eta Aterantz jarraitu.

Ateko erreka edo garbiketa-aterpe aurrera helduxe ziranean, Artolabaneko zerkan<sup>4</sup> barruna joan zan Mikolas Aken,

---

<sup>2</sup> Matarlako: matrailako, masailako.

<sup>3</sup> 1958: Yautzudazak. *Deuadaz*, dizkiat.

<sup>4</sup> Zerka: estrata, bideska.

buruzagi ernea, besteak, beste hirurak han geldi eginaz. Berehala burutzakoak dei egin eutsan Zozpaleri, lapur-txistua joaz.

Eta handik lasterrera agertu ziran mutiko biak, samatik lotuta asto bana ekarrela, bakoitzak. Asto-otzarak ez egozan hutsik, horraitino, baina euren asmoa etzan ezer ohostutea<sup>5</sup>.

Zumatzetako zerkara eroan eta han, behin-behinekoz, otzarak hutsitu eta gauzak polito-polito utzi nahi zituezan beian, lurrean. Dana dala, arinak arin ebiltzalako edo, zoritxarren baten boteilak hausi jakezan, eta batetik kaina-edaria eta bestetik orio ederra, beian zabaldu ziran lurra busti ta zikinduaz.

Ezbehar hori, ostera, ez eben mutilak aintzakotzat be hartu. Haen burubidea besterik zan, astoen *estropadak* egitea, hain zuzen.

Eta astotzarak zeharo hutsitutakoan, Kirik eta Eztenek asto bakoitzari musturretik oratu, eta Aken ta Zozpal zaldun edo astodun bihurtu ziran, abereganean harro ta gertu egozalarik hasierako aginduaren zain.

—Bat! Bi! Hiru!... Lau!! —esanda, norlehenka estuari ekin eutsen, sokamuturreko orapiloaz astoak atzealdean joaz. Zumatzetan aurrera joiazan asto biak arrapaladan, ez kontentuz ordea, behingoan jauzika ta iperturtika hasi jakezan-ta. Begira egozan lekuan, Eztenek eta Kirik nahia barreak egiten zituen, besteen estutasunak ikusita.

Astoen dardakada, inarroste ta zalapartak handiago, eta ikusleen barre-algarak areago. Haxe bai duhako<sup>6</sup> zirkua!...

Baina honetan, Bolunburuko andrea ta Armiñakoa, sekulako didar ta zaratak eginaz etozan biak bietara astoen galde, mutikoren batzuk izan ete ziranekoa alkarrri sinestaraziaz.

---

<sup>5</sup> Ohostu: lapurtu.

<sup>6</sup> Duhako: dohako, dohainik emana.

Egia zan, izan ere.

Ez ditue ba, ikusten, euren kankarru, esnepoto, kaiku ta abarrak lurlean uzkiz gora, eta edariak zirin-zirin zabaldua behearen ganean, eta haruntzatxuago mutil ziztrin bi, lurlean ia agiri ez ziranak, egundoko barre-algaraz, eta astoak han urrunago iperturtika ta arrantzaka hasi gurarik...

Han izan zan izatekoa!

Mutikoak igesari emon eutsen aitearen egin orduko, eta astoak bertan beheara utzita, tximistea baino arinago ostendu ziran gure «txanbiurrok» Arbietxeruntz edo.

Baina ez. Eskumarantz eginaz, Aldaztorren gora jo eben, eta Goraburutik beheko erre kara urtenaz, pelotatokian egozan pare bat minutu baino lehen. Harein barreak, arnasestua zerbait baretu ebenean!...

Jolasean ziharduen beste mutiko batzuk, euren kirolketea utzi, eta mutiko heldubarrion ondora ta albora ziran, eginiko okerreria ta «abilkeriak» jakin nahirik.

Asto korrikalarien ingurura agertu zan noizbait ere, Perkain herrizaina, eta baserriko emakumeen azalpenak entzun ostean, lau mutilen aztarrena laster hartuko ebala eta eurek merezi ebena hartuko ebela sinisterazo gura eutsen hasarratutako andra bie.

Perkainek zaharra zalako, ez azkarra zalako, susmoa hartu eban, nortzuk izango ete ziran, batez be, lau mutiko izan zirala entzutean.

Gerogarrenean, txalupetxeko atean agertu zan ertzain hau, Kosepantoniri lobearen eta laguntxuen galdea eginik, Armiñako ta Bolunburuko *asto-jagolak* eurek izan leitekezala adirazo gurarik.

—Ez dot uste gureak izango ziranik, oindino ointxe berton, hementxe ibili dira-ta —zirautsan etxekandreak—. Eta haek, ganera, eskolara joan izango ziran.

—Ez dakit ba, lau izan dira-ta, eta euren erreztua<sup>7</sup> hartu ez dodanik ez neuke esango. Atzo be, nortzuk izan ete ziran alkateareneko ortuan kerixa lapurretan egin eben lau mutikoak?

—Aingeru jagolea! Baina, baina... eurak izango ete dira ba? Horrek egingo ez daben okerreriarik egon be ez dago-ta.

—Ez ditue makalak esan baserritarrak, hemengo mutiko kakanarru lotsabagakaitik.

—Tira, Perkain, baretu zaite, arteak hartu ezinik egon barik. Eutsi txetxu<sup>8</sup> bat ardau zuri, ikarea kentzeko, gaur Sanpedro txiki be bada-ta.

Han barruan egozan gizonaekoak bere, ertzain zaharrak jazorikoaren zertzeladak esan-ahala, barreak barre egin zituen, gozaro egin bere.

Perkainek arandangetik kalera urten orduko, iparreko moilan igeri ebiltzan gure lau kuruminoak<sup>9</sup>, biloiz-biloizik, narrugorritan ibili ere. Lehenengo zapaletik zapalera, harrizko mailetan; gero zapart eginaz nasa ganetik uretara, zutunik, oinak beherantz zituela ta ezkerreko eskuaz surtziloak itxiaz. Hurrengo, dzangaka ekin eutsen, buruz aurrera. Geroago luzean, hau da, urazpitik, arnasa luzea eutsiaz. Baita aratean be egon ziran luze-luze gora begira, ur azalean anpor edo ohol baten moduan. Eta azkenez, moilatik moilara egin behar ebela erabagi eben, batez be, Perkain arandangetik urteten ikusi ebenean zeozer susmau ebelako, ta, gainera ur-jantzi barik ebiltzalako, zigorra irabazita euken-ta; lehengoak ezer gitxi balira ere.

Ez zituan loak hartu, beraz, gure mutiko bihurriak. Eurek ikusten edo eurei begira jantzita egozan beste mutiko batzuei

---

<sup>7</sup> Erreztu: arrasto, aztarren.

<sup>8</sup> Txetxu: kuartilu erdi, litro lauren.

<sup>9</sup> Kurumino: kurubio, liztor.

agindu hauxe emon eutsen: igarilarien praka-alkondara-abarke-  
tak hartu egiezela eta Perkain etorri baino lehen, nortekomoi-  
la ganera isil-isilik igon, eta txinelaren<sup>10</sup> atzekaldetik iges eginda,  
Izuntza hondartzarantz eroan egikioezala soinekoak, igarilariak  
urez Abadeen moilaratu eta hemen zehar joanaz, arineketan,  
euren soinekodunekaz han hondartzaldean bat egiteko.

Esan eta egin.

Perkain iparnasa muturrera heldu zaneko, an joiazan  
arrapaladan arin-aringa barriro bere legorrez harako lau *arrai-  
nak*, nortzuk ete ziran ezagutzeko be asti barik, bilozik  
egozalako,... eta horra herritzaina aho bete hazurrez utzi.

\* \* \*

Azkenengo egitadok nahi ta ez ikusi izango zituan Zuriñek  
etxeko ikusgu edo balkoitik, kanpora begira egoan-ta. Honen  
bizitokiak Zaldundegirantz eukan aurea, eta kai alderantz  
atzea, lehio eder bi ta balkoi luze samarra zitularik. Zaingorri  
edo geraneo zurigorritzak eukazan ontzietan, eta baita xulufrei  
ta kabelina odoltsuak ere.

Perkainek eskuko makilea jasota egiten zituan zinu, mogi-  
ra ta pariztak ikusirik, barre egin zeikean<sup>11</sup> edonork ere,  
baina eguerdi-aurre hartan ez eukan pozantzik neskatila honen  
arpegiak.

Aintzintiko gabaz, eguna amaituta atsedean bila joanean,  
buruhausteak eta ardurak biharamonerako utzi ohi ditugun  
orduan, izan ere, uste bako zer barria agertu izan jakon bere  
bizitzan.

Bere bidean, alai ta atsekaberik bage, gaztezaroko zelai  
atseginean, aita-amen pentzura, gurasoen esanera kezka barik  
bizi zan txori kantariari, gauza barria azaldu eutsen.

---

<sup>10</sup> Txinel: udaltzain. Erkiagak (*h*)*errizain*, (*h*)*errizain* eta *ertzain* formak ere  
badarabiltza lerrootan.

<sup>11</sup> 1958: zeinkean. 3. pertsoneari dagokio.



Noiz edo behin, halakoren batean kabi barri bat taiutu eta maitetasun egoitza egingo eukeala inoiz amestu edo adiskideen artean esan bai, esan eroian<sup>12</sup>; bainan gertaerok hain urrun, hain gerorako uste zituanez, Jontxuren hitzak zirala ta ez zirala, halako buruhauste astunetan jarri eben haren burua.

Gau hartan, etxeko mailak aitearen batean igon zituan, aurrekuari gabon esan ondorean. Aita, lotan egoan orduko; ama be, erdi-lo, sukaldeko aulki txiki baten jesarrita, bizkarra hormondoari eutsala lo-suman egoan, noizean behin burua loka edo zintzilik baileukan, zanbuluak zanbulu eginaz.

Alabea etxera zanean, laster arin oheratu zan ama. Zuriñe ere, berehala joan zan bere logelara; oinetakoak kendu, soinekoak erantzi oherako jauzkura jantzi ta zeruetako Amari eskeintza ta arrenak egin ondoren, argia itzali ta ohian sartu zan.

Logura zan, nunbait, baina ez etorkion lorik begietara. Burkoa gogorregia egoala begitandu jakon, eta ohian jesarririk, esku biekaz burkoari oratu ta astinaldi txiker batzuk emonaz. bigundu ta egokitu ebalakoan, barriro bere lekuan ipini ta etzin zan. Loak horraitio, beste asmo batzuk zituan.

Jonen hitzak ebilkiozan inguruan: «Neu maite nauala...».

Eta zer ete zan maitetasuna?

Olerkariak eta koblakariak berba hain gozoz ta esakera gartsuz kanta ohi daben maitetasunak, ez eban inoiz erneminik izan hogei urte bete bage zituan bihotz hartan.

Maitetasuna!

Gazte bihotzen alkar-beratasuna, lehengo ume-bizikerea aldaturik beste amesbizitza ta izakera bat sortuazoten dauan barruko garra.

---

<sup>12</sup> Esan eroian: esaten eban, esan ohi eban.

Umetako jolasak zehatz eta errotik irauliaz, emakumeak amodiozko txingarretan erreten jarten dituan bihotzaren inarrospen barria. Andrakila, similiki ta kopinak baztartuaz, gizon baten, mutil baten irudia barru-barrura sartu ta egun eta gau, beti isiotuta dagon argitxua lez, da izan. Edo uda ala negu puzkada epelez arnas-etenbakoan diharduan arimako maite-haize berogarriaren antzera. Beti bizi eta iraungiteke<sup>13</sup> ari dan su itzali-ezina.

Harako bertso bat heldu jakan gomutara:

«Niretzat luze dira  
gau eta egunak,  
gauak argiak ditut,  
egunak illunak:  
ez nekian zer eukan  
ai, maitetasunak...»

Zein ete zan ba, maitetasunaren lehendabiziko lege? Datorrena datorrela, baietza emon bihotz-eske etorrenari? Ala, mutil batek esaniko hitz legunei ezer erantzun aurretik, norbere lekuan geldi, norbere kolkoan ez ete zan grina indartsuaren joera sutsu bat dardarikatu behar?

Eta gainera, hitzetik hortzera, goizetik gabera jaioten ete da alkar-zaletasun hori? Eta ilunabar batean, edonun, esaterako kalean bertan ta gehiagoko barik, egiten ete jako neskatila bateri bihotzaren eskabidea?

San Pedro gabeko lehenengo lo-orduak itzarrik emon zituana, horrelako asmo ta burutapenak gora ta behera, azpikoz ganera ta goikoaz behera, atzekoz aurrera ta azpi-gainka erabiliaz. Halakoren baten, eguna txirrist egiteko egoala, loak hartu eban.

Eta goizean, haren amak, Iñese zoliak, eguna aurrera joiala-ta umeari dei egiteko gelan sartu zanean lozorroan

---

<sup>13</sup> Iraungiteke: amatau barik. Iraungi: amatau, itzali, itzungi.

aurkiturik, dantzaketan nekatua egon izango zala-ta, ez zan batere alabearen logura handiaz harritu.

Itzartu zanzan batera, Zuriñeri, gomutara jakozan barriren barri gabeko gogoetak. Hain zuzen, Arantza bere adiskidearen nebeak aitaturiko hartu-emon barriaz zer erantzun bialdu behar eutsan.

Mutila, ona zan, izan. Langilea, aroztegi ugazaba, gaztea izan arren. Erne, argi, eragina bere bai, edonoren aurrera joateko lakoxea; haxe, urtentxua aukeran.

—Ezin adiskide hobea, baina... bizitza-lagun izateko ez dakit ba nik ba! —zinotsan Zuriñek bere buruari—. Ez dot orain arte, egia esan, harenganako zaletasun berezirik igarri. Ez dot neuk horrelako lerarik<sup>14</sup> susmau. Eta... zer esan behar ete deusat? Baietz? Ene bihozpean ezer bigunkeririk nabari ez-ta? Baietz? Bera izan dodalako lehenengo maitaria? Ta lehenago, niri barik beste norbaiteri bardin esan izan badeutsa, zergaitik niri, ni bigarrentzat hartuaz, mintzo berbera aitatu? Emakume guztiak giza-soinu bardinen hotsera dantzan egin eta bihotz-ziriketa antzekoen menpe ibili behar ete dabe?

Zalantza ta ezpaiez beterik erabilen barrua.

—Benetan ziraustala adirazota ere, ez al zan, nunbait, edanda egongo bera? Ez, ez. Edanda ez egoan. Haren hitzak benazko ta ganora handizko ziran, holantxe da. Esangura ebana, argi ta garbi azaldu eban.

Bai, Jontxuren eskabide hori, egiatzkoa zan. Ez egoan norarik.

—Eta txartzat hartuko balebe, hartu, nire ezespren ez ba?

Norbere gogoaz besteko egitada bat, ezin leiteke inoiz egin, indarpe izan ezik. Norbere buruaren kaltezko edo aurka-

---

<sup>14</sup> Lera: grina.

ko *zer* bat, ezin zeitekean erabagi zuhurra izan. Bakoitzaren joera ta zaletasunak ezin leikez inork indarrez, bortxaz, bildurbidez ta zemai-ikaraz alda, lege onez behintzat.

—Eta, ezetza emongo baneutso? Ta, zergaitik hori, bai Jontxuk eta bai honen arreba Arantzak?...

Zer egin behar ete eban? Elorrioak zituan, behinepehin.

Arantzari bere ustea eskatu, bere iritzia agertu egiola? Eta honek ezer jakin ez-ta, hartuemon gura hori ezerezean geldituko balitzakean, zertan eban zertan ezer jakin Arantzak, nebearen maite-arazoan arnasarik ere?

Nori itandu orduan? Beste adiskide barrukoari, Madalen lagun zintzoari?

Bainan, lagun zintzoak ere, edo zintzotzakoak, neskaten artean behintzat, maitetasun-ele ta solasak agertutean, mutil gazte liluratzailak ingurura heltzean senargaitzakoak ezer aipatu baizen laster ala hitzerdiren bat agertaraztean, neskati-len arteko alkartasun ta adiskidetasunak, sarri askotan, haizeak daroazan orbelak lez, bata besteagandik berehalakoan alderatu ta urrundu ohi dira... Eta mutilen banaketa zolia egin ostean, hau nitzat,... hutsa zuretzat, agur neskaten alkartasuna!, agur neska gazteen maitetasun ta alkar beharra!...

Norbaitek maite-hitzak azaldutean badakie neskatila batzuk horrelako asmoak alkarri burutik kentzen, gero behar bada, zuretzat ez egokitzen etsitako mutikoa, niretzat berebiziko izateko; hitz batean esateko, aholkari edo esana emondakoa *mutil txarragaz* jabetuteko...

Ta horregaitik ez eritxan onurazkoa, adiskideari aitautea ere.

Nori beraz, adirazo, eta nori onua<sup>15</sup> eskatu? Nor erazko horretarako? Amari? Bere amari? Gurasoak eginiko ezkontzea

---

<sup>15</sup> Onu: aholku, kontseilu.

ere, ez dala egokiena askotan entzuna zan gure neskatoa, bertso berri zaharretan ere bai.

Orduan, zer zan egitea?...

Buruera bat bakarra otu jakon. Horrelangoetan ohi danez, ez goiko ez beheko; erdiko bidetik jo behar ebala erabagi eban, eta horixe egingo eban. Ez eutsan Joneri ez baietzik ez ezetzik esango.

Dagona dagon lez utzi, dagonean laga. Itxaropenik ez emon, baina ezta ezetz estu, zital eta borobilik adirazo ere. Utzi, bertan behera utzi. Luzatu, isilik egon, ez aipatu ere holako konturik. Etorkizunak erabagi egiala.

Horixe egingo eban.

Hartuemonetik sortu eta areagotuten ei da alkar-lera; bainan, sarri askotan, adiskide ta erdi-kutun hasitako alkarminetik betiko aspertze, ta iguina, ta gogaiketa, ta hasarrea: ta azkenez banakuntzea eldu ohi da.

Bego ba, bihotza, geldi ta baketsu.

Inguruko mutilen palagu ta txera samur eztiatara — udabarrian lore-pipilak eguzki epelera bezela— bihotz hori noizbait alderen alde iriki behar bazan, idekiko zan sasoi egokian, eta norbaitenganako zaletasun ta isuri bereziz. Eta bitartean, senargei beharrian gorririk ez ebanez...

Ta asmo horixe gorde eban bere buruan azkenengotzat. Ez eutsan arazo hontan inortxori ezer aitatuko.

Ez hartu, ez uka. Ez aurrerapiderik emon, eta ezta *treetzararik* ere, erdeinu ta ezetzik ere.



## VIII

### LAGUNAREN BEGIRA

Oso nekatua eritxan Jontxuk bere buruari, San Pedro egunaren biharamonean egun osoan lanean jardun ondoren. Ta ez ba, bestetan baino luzaroago ekin eutsalako, ta ezta inoiz ez lako ahalak eta leherrak<sup>1</sup> egin zitualako ere. Egunari luze iritzita egon zan, horra egia labur esan.

Ez zan bada, lanaren astuna, ez makalaldi edo osasunik eza ere. Beste zerbaitek, bere barruan ibilirik, emoten cutsan egonezin, neke, hala-holako zeozer zan.

Norberak igarri be egin barik, bihotz aldean sortuten dan gurari sendo ta sustraitsuak, bakea ohostuten deutsa gizonari, emeki emeki gau-lapurrak antzo. Harako urduritasuna, ezin-egona arteak hartu ezinik irakiten hasten da bularraren txo-koan, barruan alegia, ta zentzuna ta gogoa, adimena ta gurame-  
na, alkarren aurka jarri ohi dira gure baitan.

Horrelan ba, auresku-gau hartatik harrezkero Jonengan ere, gogoa ta irudimena orron<sup>2</sup> ebiltzan, atsedengabe, loka, gelezinik, espaz, aienez eta zinkurinez. Eskuak lanari lotuak izan arren, haren begiak egun osoan zuren, egurren eta oholen aurrez aur egonarren, mutilaren asmoak eta buruerak lantegitik aldeginik, batera bestera egan lez ibiliak ziran.

Ai, gazte maitemindua!

---

<sup>1</sup> Ahalak eta leherrak: ahalegin handiak.

<sup>2</sup> Orron: hara eta hona, noraezean.

Aspaldian bularraren hondarretan sortu izan jakon zaletasun hazia, noizbait zart eginez ernetan ikusteko antsiz ta egarriz egoana; eta txiker eta xume erne ondorean burua lerdan jasoaz, gora ta gora mardo indartsu hazi ta zorionen batean koskortu ta garatuta ikusi gogo ebana, zein aduk<sup>3</sup> bere itzalpean hartuko ete eban, gogoetan ziharduan.

Mutil jolasti, alai ta betargia, ardura haundiren baten menpe, arrenkuraz eta arbin<sup>4</sup> agiri zan iluntze hartan.

Eguneko lanaldia amaitu ebanean, afaldu eta Talaraino heldu zan, han egiteko zan erromerian, halan beharrez, bere barruko kezka mingotsa behin betiko poz-iturri bihurtuko ete zaneko susmo ta pekuz<sup>5</sup>. Eta horrela izan barik, bestela baltitz?...

Soinuketara, eurrezean<sup>6</sup> bildu zan laguna ilunabar eta gaulehenean. Lagun arteratu zan Jon ere. Begira ta begira, ikusi ta ikusi, ez eban ostera, ahotik hortzera, nahi ebanik aurkitu.

Idoro gura eban irudi liraina, ikusi nahi eban emakume aratz eta txairoa, ez zan inundik inora agiri.

Ez ete egoan han? Artean, goizegi ete zan neskatxa guztiak han batzeko? Ustez, ez. Ordua zan joateko ziranak bertara heltzeko. Harritutekoa zan ba, batez be, berak topez egin nahi ebana arrantzale-alaba zalako, eta erromeria hori hain zuzen, guztiena bainan bereziki, itsastarren artekoa ohi dalako.

Beste edozeintzuk neskatila hantxe ikusi ta agurtu zituan, banaka, pareka, sailka, mordoka. Behar ez, ta orduan aurkitu, esan ohi da, eta egia izan ohi. Bat bakarra ikusi nahi, eta

---

<sup>3</sup> Adu: zori, patu.

<sup>4</sup> Arbin: armin, bere onetik urtenda, urduri, artega, larri.

<sup>5</sup> Peku: peko, zantzu txar.

<sup>6</sup> Eurrezean: erruz, ugari.

beraren gerizerik ere ezin inun susma. Ezta aztarren txikienari hurrik emon ere.

Nun ete egoan Zuriñe?

Eta... nogaz ete egoan? Espaz<sup>7</sup> ta bekaizkeriaz, keixu hasi jakon barrua, maitalearena lez, norberentzat eta ez beste-  
rentzat, gauza guztiak, txikiena ere, norberentzat nahi ohi dauan irritsaren<sup>8</sup> mende.

Guzurra zirudian arranegitar neskatxa guzti-guztiak han egon behar eza. Nun ete, Talara agertu gabe? Orduan... beste norbaitegaz, ostantzeko lekuren batean ete egoan? Enparantz-an ala, Eskolapean ala...

Mutilik gehienak jantzaketan ziharduen; arrantzale ta legortar, hantxen ebiltzan betargi ta irribarreka dantza ta jolas, barre ta autuka, gaztetasun eta maitetasun indarrak harturik, neskatila alaiekin poz zoro mozkorberan.

Iparmoila muturrerantz joan zan bakarrik, geldi-geldiro Jontxu, alderdi guztietara beituaz, ta hantxe egoan, nasa ta kaiganea begiekin iruntsi nahirik, txoritxu gaisoa noiz hartuko dauala, orekan dagon mirotza lez.

Gau ilunean, han urruti samar, dirdiz egiten eban Donostiako argiak, maitearen begietan ikusi nahi zeukean keinua irudituaz.

Geroago, alperreko zainketa zala-ta, barriro bere, itsasalderago joan zan, Amandarri moilaraino, uginak<sup>9</sup> hausten diran moila lodi sendoraino.

Han gelditu zan urrunera begira, barruko maite-haziak emondako emaitz mingotsa hausnartuaz.

---

<sup>7</sup> Espa: jeloskeria.

<sup>8</sup> Irrits: gutizia, grina, gurari bizi.

<sup>9</sup> Ugin: uhin, olatu.



Ugarteko pinondoak ez eben dantzarik egiten, baina gabeko haizetxoak eraginda, terral usainagaz, euren orri mehe ziriantzekoz hornidutako adapuru-adarretan baebilen zirkintxu ta hara-honarik, Jonen buruko uleetan lez.

Isiotu ta itzali, izetu ta itzungi, ager eta gorde ziharduan Antzorizko farolak ere, itsaserdian legor-egarriaz joiazan ontzizonei lurraren mustur gogor zorrotza non egoan adierazorik.

Itsasoari bizkar emonik barrero, Amandarri nasan bertan, baina Ondarzabalera begira jarri zan, besoak burdinagetan gurutzetuta ipiniaz, alkar laztanka, gerria apur bat okertuta, balkoi batean bailegoan. Beti bakarrik, zeru aldeko ilargi zuriaren izpi motelen ditzirak lagun zituala, lagunaren begira... ta laguna ez agiri.

Zer zala-ta ez agertu neskatilea? Nahiz eta ezetz esateko ere, etortea baino ez eukana. Ala atsekabe albiste hori ez adiratzotearren, apurtxu baten baino ez bazan ere, Jonek, amesak ames egiten jarrai egian, beraizik<sup>10</sup> huts egin ete eban Zuriñe ederrak?

Honetan ziharduala, atzetxutik isil-isilik norbait hurreratu beragana eta begiak tapau edo itxiazio eutsazan. Hori egin eutsen eskuak, esku mehe bigun labanak ziran; emakume eskuak, esku gazteak, inolaz ere ez gizonaekoaren eskuak.

Ametsetan ete ziharduan Jonek?

Nor ete zan bakartadeko larritasuna arintzera etorkion aingerua? Nor ete zan? Berak nahien ebana, ziur asko.

Laster arin bira egin eban mutilak azkar ta sendo, ta bere esku latzekin esku guri bigunei oratu ta begi aurretik behingoan kenduaz, neskatilea baten aurrean aurkitu eban bere burua.

---

<sup>10</sup> Beraizik: berariaz, beren-beregi, apropos, nahita.

Irribarreka, begiak argi, ezpainak gorri, adiskide gisako hitz samurrez esan eutsan neskatxa zoragarri harek:

—Zer egiten dozu bakarrik hemen, Jon?

—Madalen! —ebaki eben mutilen ezpainak, erdi hasarre, erdi harrituta, amestutako aingerua beste bat zala ikustean—. Nork esan hemen nagona?

—Neuk ikusi bakarrik zagozana.

—Ta lagun egitera zatorkidaz, ezta?

—Zaharra da hori! Nahikoa dantzarik egin neban bart, eta gaur. Nahi al dozu apur batean hementxe jesarri gaitезan?

—Tira ba, zeuk gura izan ezkerо.

—Zetan zinarduan<sup>11</sup> zuk hemen, uraren gorabeherak ikusten ala?

—Ez, egon nengoan. Neu bere nekatuta atzokoaz ta gaurko lanaz.

—Lan ugari agian?

—Basotxura bidean erosi dodan etxe zahar horrek, emongo deust.

—Baina, zuk orain ez dirudizu atzokoa, Jontxu; ez atzokoa ta ez bestetakoa.

—Nik, zer ba?

Estutu zan arotza hori entzunik, eta bere baitako histura ta itzaltasuna estaldu beharrez, irribarrez gehitu eutsan Madaleni:

—Horren aldatua ete nago ba gaur? Ez nekien ezer. Orduan, zelan ezagutu nozu ba?

---

<sup>11</sup> 1958: ziarduan. Zuk zeniharduen.

Alperreko hitzak neskatilea zuritu nahirik. Alperrik esan erazo bere buruan beste ezertariko lorrik edo nahasterik ebanik, neskatzak behin eta berrero galdetu arren.

Ez, arranotan. Jakingura ebana jakinik, ez zan geldituko Madalen.

Bainan, neskatzak ez eban astirik alperrik emon. Zerbait lortu eban, emakumeak maiz eta sarri ohi dabenez. Etxera nahi ebala-ta, lagundu eragin eutsan Joneri, ta han egoan jente artetik, biak bietara, biak... bakarrik, joan ziran Madalenen etxerantz.

Holantxe aukera ta eretik txatxarrena ere ondu ta gonduten dakie emazteki zuhur, zoli ta usmotsuak. Tratulariak irabazpide aukera bila ta nun susma ibili ohi diran antzean, horrelantxe andrazkoak bere, euren garatz, kontu ta korapiloen etorkizuna danari buruzko abagunerik ta eretik, ez ei dabe inoiz galdu. Emakumearen sena!...



## IX

### ATSEKABE HANDI BAT

Jonek, etxe aurrean agur egin eutsanean Madaleni txalupetxean mutilik nahikoa egoan, artean; bainan atean bertan neskatilea utzi, ta bere bidean zehar etxerantz abiatu zan.

Nasa zehar joiala, burua jaso eban Zuriñe bizi zan etxe parean, baina inor ikusi ez-ta, aurrera ekin eutsan.

Horraitino, moila barrenetik Arranegiko zabalerantz egin eban, ta inguru hartan begirada luze ta arduratsua eginaz ta alperrik ebilela uste izanez, aguro joan zan etxealderantz.

Atetako atea zabal aurkitu eban, zan ginoan. Eta unean bertan, bere arrebearen gomutea heldu jakon gogora.

—Etxera ete da honezkero Arantza gurea? —galdegin bere buruari ta gehiagoko barik mailadian gora hasi zan—. Izan ere, ez dot nik Talan Arantzarik ere ikusi. Alkarrekin egon ete dira ba, Zuriñe ta biak?

Goian, etxeko eskilara-burura baino lehen Arantzaren eta amaren hizketa zurrumurrua entzun eban. Bero samar, estu ikaraz ziharduan gazteak. Zeozer jazo zaneke antza, haren berbetatik.

Atearen zaratea entzun ebanekoxe, aguro joan zan Arantza bere nebearengana, ta hitzetik hortzera esan eutsan:

—Ba al dakizu, Jon, Zuriñeren barri?

Hitzok eta izen hori entzutean, burutik beheraino zartakada larria egin eutsan mutilari gorputz osoak, eta zurbil, kolorga,

isil lotu zan, esku biak alkarri oratuta, hatzak hatzakaz estutuaz, begiak zabal, ahoa ertzedegi.

Une mingotsa haxe, lipar luze, urduri-usainez betea.

Ez dakigu guk haren buruan sortu ziran gogoeta txar, susmo oker eta adu baltzen barririk.

Alabaina, laster bere senera zan, eta:

—Zer jazo jako ba? —galdegin eutsen mutilak—. Ezbeharren bat ala?

Erantzuna zer izan ete zeitekean ere, ez ekian Jonek.

—Bai, nahikoa ezbehar; baina ez berari ostera, aitari baino. Bihotzeko min handi batek menpean hartu dau, eta hildakotzat izan daben arren, tira, Jaungoikoari eskerrak, halakoren baten be, arindu jako gaitza ta oraingotik onez gertautea izan leitekela dirudi.

—Ez deustazu ikara makala emon —esan eutsan nebeak, eta egiaz esan bere, aitorpenen bat egin beharrean egoalako, estu ta larri izan ebalako bere barrua unetxu bat lehentxuago. Ta arnasa luze ta sakona egin ostean, sukalderrantz joan ziran neba-arrebak.

Amak gabon-agurra eginik, lotara aldegin eban.

Jontxuk aulki zabal bat hartu ta bertan jesarri zan, nagi, bagai, astun ebala bere gorputza, baina kolkoan zerbaiten itxaropena barrero susmatuaz.

Ta jakingurearen jakingureaz, mutilak arrebeari:

—Ta, noiz izan dau estutasun hori?

—Ilunabarrean, ia gaututeko egoala. Afalduta, zuk, nik baino lehentxoago urten dozu hemendik. Handik berandu barik joan naiz Zuriñegana, ta atetatik deiadar egin deustadanean, gora igoteko agindu deust. Igon dot, sartu naiz barrura, eta:

—Aita daukagu ganora barik —esan deust Zuriñek. Arratsalde erdian hotz dala, ez dagola ondo, larri be badala, bularrean pisu handiren bat ete dauan, ta hortik hemendik. Ta ez afaldu ta ez etzun, hor dago aulki zabalean, besodun zizailutxoan jesarrita, bigunkiroago egon dedin, eta bizkar aldean lumazorro bat dauala. Horixe esatea baino ez dau egin, ta biok ate ondoan isilik gagozala, nun hasten dan ama karraisika ta aieneka:

—Enetxu, Zuriñe, ai ene! Aita galdu behar jaku! Zoiaz arin mediku bila! Ene bada ta bada! Arantza, laztanori! Zoiakidaz auzoko Maripagana! Datorkidala, arren, ta gero joan zaitez abadetan!...

Hango zotina ta estutasuna zer izan dan, Jaungoiko maitea! Tximisteak baino arinago egin zituan bideak Zuriñek osagiletan, negarraren gazitasuna ahoan txastaurik, eta negar-tantak legortuteko astirik bage.

Ni ere abiau naiz —jarraitu eban Arantzak arnas apurra hartuaz— abade bila, auzoko andratxuari dei eginda gero. Eretiz heldu naiz elizara ta mandatua eginik, barrero Zuriñenera bihurtu naizeneko, han egon da osagilea. Behingoan emon deutso zain barrura osakai horretariko bat, eta abadea agertu danean, begiak apurtxu bat edegi nahirik egon da Txanton Baixa. Bera izan dan gizon sendoaz-ta!... Era horretan abailduta, dangilizka, intziriz ikusi ta entzunez, barru guztiak ere bira egin deust. Gizaisoak, albetan<sup>1</sup> egoala zirudian. Haren arnases-tua ta ito-beharra!... Gero, apurka, baratze-baratze, hasi da konorteratuten. Ama-alabak hartu daben estutasuna ta izualdia ez da edozelakoa izan. Eta oindino oraintxe etortea baino ez dot egin, eta amari esan...

Horrelako azalpen zeatz-mehatz luzea —emakumeak ohi bezelakoa— egin ostean, Arantza ere lotaratu zan, Jon bakarrik utziaz sukaldean.

---

<sup>1</sup> Albetan: azkenetan.

Honek, bere burua bakar-bakarrik ikusi ebanean, arnas andi ta zabala eginaz:

—Tira —inoan berekiko—, nire burutasunak lar ilunak izan dira. Gure artean hasi bezin laster dana amaitu ete zan-ta, horra ba! Oker bai oker ibili naiz gau osoan neure burukerietan. Banengoan ba,... neskaxa horrek hori baino gehiago jaramon egiteke, bertan behera utziko ete ninduan, eskeko baten antzean, ate ondoan. Bai zera! —amaitu eban bere epaia, laster hil ta laster piztu zan mutil zainartak<sup>2</sup>—. Zuriñe ondo be ondo ezagutu ez baneu ere!... Hori baino beste modutakoa dozu Txantonen alabea. Banekian nik, ondo jakin bere, aintzakotzat ere hartu barik utziko ez ninduana. Ez horixe!...

Ta berak autortu ta berak sinistu, berak esan ta berak ontzat emon, han ari zan Jon bakarrizketan gabeko orduetan bere etxeko suetean<sup>3</sup>.

—Zuriñe... bere aitaren lagun ibili da, estu ta larri. Ta ni... ni... Madalenegaz besoz beso Talatik etxera. Holakorik! Zuriñek jakin balegi<sup>4</sup> nik egin deusadan itsuskeria,... neu konturatu bage!

---

<sup>2</sup> Zainart: behargin, langile, fin.

<sup>3</sup> Suate: eskaratz, sukalde.

<sup>4</sup> Jakin balegi: jakingo baleu.



## X

### HEGALUZETAN

Udako arrantzuketa honen hasiera-eguna heldu zan; lehentxoago azal dutako eguna iraganik heldu ere.

Udabarriko bokart eta sardinatako aldiari agur eginik, atuneta-sasoia, hegaluzetea hasi ohi dabe gure itsasertzeko gizon azkar, zangar, adoretzu ta jasankorrak.

Oraingo egunetan, untzi lurrun-indarrezko ta orio-lohidun bultzakinei esker, itsasora osterea edo joan-etorria aguro ta errezago egin ahal dabe, lehenagokoen ikusian, eta horregaitik, portura itzuliteko aukera hobea dabe.

Lehenagoko arrantzaleak euren gorputzetarutzen zituen neke ta oinaze gogorrek gomutara daiguzan, haize-ohiazez eta arraunketan aldi luzean joan eta joan egin behar izaten eben aro hartan.

Oraingo untzi sendo ta ironak, ganetik solairuz estalduta dagoz. Lehenagoko txalupa zapal haek, tantai luze bi zutik eta tostak izaten zituen, eurotan jesarrita, gau ta egun, hainbat ordu ta ordutan arraunai eraginaz, gogor ta bulartsu jardunaz, ontziari ibilpidea emon egioen barruko gizonen besoak. Itsasoa bare agertzen zanean, tira, hainbestean joan ohi ziran gelditu bage; beti, baina, erremuak azkar astinduaz; eta haize biguna erara oso edo behintzat poparean<sup>1</sup> ezarren ere, lagungarri izaten ebenetan, pozarren ibiltzen ekien olatuen dantzai gorabeheraketaz erantzunaz, eta beti jo-aurrera eginaz.

<sup>1</sup> Poparean: popaz, atzetik.



Batez bere, neguko itsasorateak dira bildurgarriago. Hoztez alatuta<sup>2</sup>, esku ta oinak hotzak gogortuta zituenetan, zerbait zuzpertzeko ta berotzeko besoez bular-bizkar ukaldika jarduten eben mutil eta gizonak. Izotz, euri ta erauntsi, haize ta edur, kaieko babesu utzirik, ohiaren epeletik aldeginik, ilunpe osoan jarri, goian zerua, behean ura ta ondo bagako lezea zituela arrantzuan ari izatea, bizibide gogor ta lanbide latza dana, edonork daki, maizegi ahaztuten dogun arren.

Baina giro epel beroa danean ere, udako egun sargori antzekoetan ere, uste bako edo bapateko galarrena dinotsen ekaitz bildurgarriak itsas handian hartzen dituanetan, orduan, Antiguako Ama maiteori! zeure pentzura ta kontura gelditu ohi dira marinel gaisoak!

Haize izugarriaren menpe, katxoi<sup>3</sup> jagi, uhin edo бага<sup>4</sup> handien erdian, haize-oihal eta belak urratuta, lema ta endaitzak<sup>5</sup> okertuta edo zatiturik, masta-tantaiak kikoloka eta tostar-teko arraunlariak unatuta, etenak eginda, euren intxaur-azala hondo edo zolabageko osin eskerga haretan noiz murgilduko ta hondoratuko, hamaika bidar euren buruak hondamendihurren ikusitakoak.

Zaharren esanez zeinbat bidar ez ete ziran etxeratzen gorputzeko atzealdeak minbera ta baltziturik, ipurmaminak azalak urratuta, aragi bizi gordin gelditzen jakezalarik, inoiz odol-iturri bihurtu-aginean<sup>6</sup>. Arrainaren jarrai urrunago ta urrunago, beti abant eta abant, tostaganean jesarrita, indarren indarrez untzia abiau araziak.

---

<sup>2</sup> Alatu: hozmindu, moteldu, inurritu.

<sup>3</sup> Katxoi: haizearen eraginez sorturiko olatua.

<sup>4</sup> Baga: uhin sakona.

<sup>5</sup> Endaitz: timoi, lema. *Endaitz* dogu, hain zuzen, Erkiagak erabilitako ezizenatariko bat.

<sup>6</sup> Bihurtu-aginean: bihurtzeko zorian, bihurtu beharrean.

Eta ahalak eta leherrak egin ostean, zazpi ahaleginetan indarrak guztiak emon ondoren, gertatu izan da gizagaiso haundi haek, untzia galdurik eta urez inguraturik, ur kresala, ur gazia besterik ikusi bage, eta ikutu bage, herri ta kai ta emazte ta ume ta senide ta adiskideei agurrik ere egin barik, azkena emotea nekaldi izugarriari; aztarrenik utzi bage, ekaitz zital edo galarren ankerrari bere erpe zorrotzetan gueneko<sup>7</sup> arnas-ito ta hatsankak eskeiniaz.

Txalupa haek ere, zorionez, amaitu ziran, gizonen asmakizun egoki, eratsu ta ongileak izanik bide.

\* \* \*

Eguerdi aldean zan, eta arrantzaleak goizbarkaria eginda, bajoiazan banaka-banaka euren untzietarantz, kaiaren kolkotik behingoan itsasorantz ekiteko.

Untzien tutuluak kee ta kee, lurrun eta txipar makinak, nasa ganeetan halako gizonteria ebilen, guztiak itsastarrak.

Moila-ertzetan baporak azkenengo gizonen zain egozan, mutikoak lokarriak eskuetan zituela, noizbait zehatz askatuteko gertu.

Hor-hemen andrazko taldeak, ume koskorak, legortar ikusgura batzuk agiri ziran, arrantzalien gertakizunak ikusiaz.

Hantxen egoan guk dakigun txalupetxearen aurrez aur, alai barri-barriak, atsoaren buruko zapiaren belarriak bezela txairo ta sotil zituala, «Otoiop» untzi ederra, urdinez oraintsu margoztua, lemazainaren etxeizkia<sup>8</sup> letra zuri haundiz apaindua.

Baina itsasora joakera hartan, hainbeste bidar zuzendu eban gizona ez zan barrurako; betiro lemakaina<sup>9</sup> erabili eben eskuak, ez eben oraingoan lan hori hartuko; beste bat joan

<sup>7</sup> Gueneko: azkeneko.

<sup>8</sup> Etxeizki: etxe-izen.

<sup>9</sup> Lemakain(a): lema-bürdina, lema-girten.

joian haren ordezko. Ez zan hila, ez; bizi zan, baina ez zan ostera egikizun hortarako gai, ez zan gauza.

Untzi liraina jaio zanik harrezkero agintari izan eban gizonik bage, urrunduko zan portutik. Bere patroirik barik, Txanton Baixa legorrean utzita. Hamar-hamabi urtetan bera baino beste nagusirik ezagutu ez eban «Otoiop»k ordezko buruzagia eroian: arinak arin ta itsasoraldi horretarako soil eta bakarrik arren bai arren zuritu ta limurtu eben beste arrantzale zahar jator bat joian, «Laba» zintzoa, ona bera betekoa.

Aitaren untziari agur egiteko asmoz —agur atsekabe-tua—, jatsi zan kalera Zuriñe, hogei urteko babalora zuri, liluragarri baizen maitagarria.

Hain zuzen ere, Atxabal kalean behera etorren Xirido gazte eder, kokot-gorri, begi zuri, beti irribarretsua.

—Nora zoi az Zuriñe, ederrori?

—Horra ba; gaur, barruko mingostasunez, gure aitak, zeuk dakizunez, itsasoraterik ez daukan arren, nik neuk behintzat gure untziari agur egin behar deutsadala-ta, kairantz noia.

—Ondo esana, ta ondo egina. Ta aitaren barri?

—Emon euskun ikaraldia iraganik, gero gaberago, gaberdiantz politoago jarri zan ta goizerartekoa ondo-edo emon dauala dirudi. Goizeon hoherentza egin dau eta orain beste gizon dirudi, ta hitz bat edo beste egiten deusku.

—Eta min handiak al ditu?

—Minik? Esatekorik ez dauka euki. Oso nekatua dago, osteraz; jausia, makal, erkin-itxura gelditu da. Ai, bartko estullaria!

—Etxera orduko jakin neban. Talatik etxerantz gentozala.

—Nork esan eutsun, ba?

—Nork esan? Zera: Gorua ta Gorutxapela topau nituan beheko Botikatik urteten joiazala, eta neure artean, «Nonor txarto dago» esan neban, eta itandu neutsen. Jakin barri zirala jardetsi eusten, baina jarraian, hauxe ta hauxe zehaztasunez azaldu ere bai. Ez neban halakoa makala hartu zuen aitagaitik, eta ganera...

—Ganera, zer?

—Eee!... Han dabiltz gure untzikoak neuri deiez-edo. Ni ete naiz ba, azkena, «Artizar»ekoenetatik? Bizkortu dagidazan oinok; zuk ez daukazu holako arin-beharrrik eta zoiiaz geldiroago. Tira, ba Zuriñe, ondo ondo zaindu aita, ta...

Irribarre gozoagorik Xirdok erakutsi eutsana baino!

Honen begi argietan zeruaren oskarbietako baretasun bizigarria eta zerbait gehiago sumau<sup>10</sup> eban neskatileak. Haren hortzuri ederrak, ezpain artean isil-ostuka<sup>11</sup> azalduaz, parreirri gozoaren sorleku atsegin zirala esan gura eben. Haxe zan bai gazte jator, zal, segail, alagalakoa; ordurarte guztian inoiz ere ikusi ez baileuan, barri-barriki begien aurrera etorkion mutil samur, mazal, xalo ta begibetegarria.

Zaharbidean egoan zugatz okertu, zirritodun ta makartsua zan aitaren ondoan, landara txuxen, lerdan, mardo ta zuta zirudian arrantzale gazte harek.

Etxetik larri ta nahigabez urten eban neskatxaren barruan, halako barriraztasun ta antzaldatze nabarmena erazo eben gizonezko haren irudi berezi, irribarre gozo ta hitz samurrak. Aitagan gizon gaiso, itun, akitu ta zaharkitua zekusan; kalean topez egindako mutil ezagun hartan, barriz, gizaki gazte, sendo, osasuntsu ta bizi-deiakakoa musuz musu aurkitu eban Zuriñe poz-egarrituak.

---

<sup>10</sup> Sumau: susmatu, barruntau, igarri.

<sup>11</sup> Isil-ostuka: isilik ostagarri, isilka.

Arrantzale nekatuaren ordez, itsastar sasoikoa; aita urte-  
tsuaren truke-edo, odol hezeko mutil azarria; gorputz lehertua-  
ren pare, beso sendoak.

Eta hitzetik hortzera, bapatean, bere aitaren lehenagoko  
irudia Xirdogan ikusi ebanez, aitaganako penaz ta atsekabez  
bete jakon gogo. Eta, horretatik, aitaren itsas-agurra betikoz-  
koa izango zala antzemonik, haren ordezko izan zeitekean  
beste gazte batengan amesegiten hasi...

—Bai, bai; ahaleginduko naiz bera zainduten —jardetsi  
utsan neskatxak—, baina haren arrantzuak amaitu edo, egingo  
ziran, urrean.

—Nork daki ba holakorik, Goiko Harek baino?

—Ez, Xirido; «Otoiope» untziak ez dot uste, arean, lehengo  
lemazainik izango dauan, ganeko denporetan. Horixe bururatu-  
teaz hozkirio egiten deust gorputzak.

Eta negar-tanta lodi bat agertu jakon begi-ertzean irrist  
egin nahirik, neskatila xarmentari.

—Tira, ba, ez estutu, osatuko da-ta —esanaz, begirakune  
bigun bat egin eutsalarik, urtentzear<sup>12</sup> eukan negar-anpulua  
begian bertan lotu jakon erion bage—. Agur, ba, Zuriñetxu:  
hor gelditzen zarie neskatila garbi, emazte zintzo ta ume  
errubageok legorrekoen kontura, gu itsasoak hausten gabiltzan  
artean. Euren eskuetan uzten zaituegu... eta guk u, aldegin  
behar zeuentzat ogia ta janaria ekarteko. Laster arte, ba, eta  
ez ahaztu «Otoiope»gaz, ta ezta «Artizar»en barruan doiazane-  
kin ere...

—Agur, ta Andra Mariak ondo erabili zagiezala.

Azkenengo hitzok entzuteko asti barik, arrapaladan egin  
zituan gure mutilak untzira bitarteko bideak.

---

<sup>12</sup> Urtentzear: urten beharrean.

Hitz labur haen bidez Xirdok, gizaseme-alaben arteko alkartasun-alorrean, zerbaiten hazia erein nahi ebala zirudian...

Haren irudiari begiak kentzeke gelditu zan Zuriñe, bere bihozpean zerbaiten kilika ohartzen ebalarik. Zerbaiten zirika barri, kilika bigun, ezezaguna orduraino.

Irudipen huts, begitazino soil, lilura-izpi, gurari-ernamin; zer ete?...

\* \* \*

Alkondara urdin iluna, mahonezko prakak, lepotik zintzilik elastiku baltza besoetatik idunari lotua, galtzarpean itsasorako otzarea ta beste eskuan atabaka<sup>13</sup> zituala, joan joian mutil lerdin eragina.

Hots batean lokarriak eta txikotak askatu, naseari sakatu, untzia zerbait bultzatu, brankaldeko<sup>14</sup> erremuaren laguntasunaz alboratz piskat igitu, beste untzien artean bide egin, txiparra<sup>15</sup> bota ta keia zeru alderantz parra-parra ta lodi jaurtiaz, makinaren indarrez handik lasterrean urten eban portutik «Otoiop»k, eta Ipar-nasearen ostean ezkutau. Kaiganekoen ikusmenetik aldegitean, portu-urteieran uberan erreten txiki bat utzi eban.

Eta haren hurrengo «Artizar», ta gero beste bat, eta beste bat... erreskada luzean, bata bestearen ondoren hogetaz unti.

Txistu luze luze bat jo eban alde egikeran «Otoiop»k, herriari eta batez bere, une hartan —inoiz ezta— patroiz zaharrari, betiko lemazainari agur eginaz, berarizko agurra, egun gomutagarri hartararte bera barik inora joaten jakin ez ebalako.

<sup>13</sup> Atabaka: botoak sartzeko ontzia. Portuetan itsasora urten ala ez erabagiteko erabili ohi da.

<sup>14</sup> Branka: itsasuntziaren aurreko aldea.

<sup>15</sup> Txipar: galdaran presino handian dagoan ura.

Talaraino joan zan Zuriñe, euren untzia ateko bandan ikusten. Uginen agindura, ur ganean batean azal, hurrengoan sakon, gorantz-beherantz ikotika, joan joian «Otoiop», gero ta urrunago, gero ta txikiago, beti aurrera ta aurrera, beti iparrerantz, legorra ta kaia ta bere lotu-lekua urrun utzi arte. Haren jarraian «Artizar» eta beste enparaukoak ere, lehiatsu, azkor<sup>16</sup>, urrun-minez, zeregin gorrien akuilu errukigabeak ziztatuta bezela.

Txantonen alaba liraina Talako kurtzea baino be harantzago joan zan, harik eta hiru harmailak aurkitu arteraino, arrantzale zaharrak ohi dabenez, muga edo hesi borondatezko hortan geldi eginaz. Bai egunez ta bai gabaz, maila horren muturrean egiten dakie itsasoari begiraldi zehatz, baretsu ta maitakorra.

Itsasoa!

Euren etxeakoak, herria ta senideen hurrengo, arrantzaleak munduko gauzetarik maiteen daberen ur zabaldi, kresalezko zelai handi, itsaso harro, sendo, neurribagea.

Jarri egikezuz itsastarrok lurralde zabaletan, herri haundi ta uri ospatsuetan, eta ezetz iraun gura izan eguntxu batzuetan baino, aste bat edo beste baizik, edertasun ta ugaritasunez beterik egon arren? Euren bizitzan alboko ta auzo, lagun ta adiskide ta bizi-inguragi izan daberen itsasoagandik aldeginik egon nahi ezetz? Alperrik urrundu.

Legor-barrukaldeetan ezin iraun izango leukee arrantzaleok: itsas-minak jota, euren izaera ta gogo alaia, ilun-itzal-mingots bihurtu bagarik.

Horrelantxe daroe erraietan uraganako maitetasuna, itsas zaletasuna arrantzale euskaldunak. Eta euren seme ta alabak, eta hurrengorik hurrengo, belaunik belaun, ur-ertzean jaio, hazi, koskondu ta bizi izan diran jatorri osoko gizakiak.

---

<sup>16</sup> Azkor: gogotsu, sutsu.

«Hor geldituten zarie, emazte zintzo, neskatila garbi..., legorrekoen kontura lagaten zaituegu», esan ohi dabe kanta zaharretan.

Bai samur-samurki adirazi eutsala egia hori Xirdok Zuriñeri agur egitean. Isil eta bigunkiro «laster arte» entzun erazo eutsanean.

Egia, izan ere. Legortarrei dagokie herriko andren izen ona garbi zaindutea. Senarrak urruti dituen emazteai urrundueganako zintzotasunean iraun eragitea; aldetakoen<sup>17</sup> emaztegai eta alabak garbi jagotea...

---

<sup>17</sup> Aldetako: alde egindako.





## XI AMA BATEN ARDURAK

Ganeko egunetan Txantonek hoberantz egin eban ezagun-  
ezagunean, baina osagileak harengan gauza astunen bat ikusi-  
edo ta, inun ziran agindu estu ta zehatzak jakinerazo eutsazan  
haren emazte Ifneseri, osasuna gauza oso galdu erreza zala  
irakatsiaz, ta bai jan-edanari egokionez ta bai atsedenaldi ta  
gitxi ibilteari buruz ere, egundoko galerazpenak ezarririk.

«Baixa»ren osasuna beraz, guztia beharrekoa zan. Haren  
bihotzak egin eban beheraldia, ez zala, gero, ahuntzaren  
gaberdiko eztula. Jan-urri egiteko, ta halako ta holako janariak  
bakarrik, hatan be. Edan ere gitxi, oso gitxi, bihotzaren ahuleri  
ta erkintasunaz gainera, odolaren heda-zartada ertain ordez  
sendoegia ebala-ta. Lanak alde batera uzteko; zeregin eta  
buruhausteak, beste horrenbeste. Ibili, gauza handirik ez ibilte-  
ko; eta batez ere, aldatsak inorentzat uzteko. Guk al dakigu  
zenbat onu, aholku, esan, eta zenbat eragozpen, maila ta  
neurri hain maite dogun gorputz txanpor<sup>1</sup> ta minberati honen  
osasuna zaindutearren.

«Edertasuna, osasuna,  
iraute gutiko ondasuna...»

Txanton, «Otoiope»ren lemazainaz landa, jabekide ere ba-  
zan. Eta entzutea zanez, hirutarik bat berea ei eban untzi ta  
garaitiko gai ta tresnetan. Horregaitik, untzi edo baporaren  
hartuemon, kontu ta garbitasunak berberak gehienbat aztertu,

---

<sup>1</sup> Txanpor: hauskor.

arteztu ta erabilten zituan, eta noizik noizera besteei batzardegi eginaz, guztien aurrean ohi danez azi-orraziak<sup>2</sup> erakutsi ta azaldu, ta behar ziran diru banaketak egin.

Gaiso edo eri egokera horretan, ostera, arazuok berberak erabiltea ez jakon komeni, ez jakon egoki kaltegarri baino, eta korapilo hori behar bezela ebatzi gurarik, emazteari hotsegin utsan, Iñeseri dei, eta biek bietara xede hartu ta erabakia burutu eben.

Aurreantzean, zeregin hori, lanbide hori Zuriñek edo egin beharko eban, hortarako beste eskolaren jabe, nunbait be, bazan-ta.

Alabainan, hasieran, lehenbizikoan, aitaren laguntasunaz ganera, egoki izango zan Zuriñek norbaitengandik irakaspenen batzuk beragandutea, txikitan ikasi ta geroago erdi ahazturik-edo zituan kontu-arloak barriren barri aztertuaz. Ta nonork lezinoren batzuk irakatsi ezkeru...

Autu hortan ziharduela, etxekandre zuhur ta maratzari behingo batean otu jakon irakasle berebizikoa nor izan zeitekean; eta bai harira etorkiola andra zoliari hautespén eta izentatze bat.

—Nor hortarako egokiagorik, izan ere —inotsan senarrari Iñesek—, Bizkarrondoren semea baino, herrian egoan-ta? Nor benetan be, aitari antzeko arazoetan eta astunagoetan laguntzen ekian Kerman gazte ikasi ta buru-jantzia baino?

Pare bat hilabetez haren laguntasuna izan ezkeru, ontziaren gorabehera guztiak ezin erabilirik ez eukan, neskatileak.

Eta gainera (hau bere artean eragoion<sup>3</sup> jalkiten, hausnartzen eta mamurtzen Iñesek, ama guztiak ohi dabenez, gauza bi ta gehiago ere bat-batean buruketan erabili ezinik ez eban-ta),

---

<sup>2</sup> Azi-orraziak: izandako gorabeherak, egintzak, etab.

<sup>3</sup> Eragoion: ziharduan, ekiten utsan; ari zen.

eta gainera, haxe bai mutil aukerakoa ta aukeratua hark berak, jakitun entzutea eukanaz batean, aspaldi begiz jota eukalako. Kerman, gei egoan: Zuriñe ere, gei. Zelan, bada, abagune hori alperrik galdu? Zer zala-ta ereti berebiziko horri iges egiten laga? Ez horixe, inundik ahal bazan, behintzat.

Ez eritxon txarto Txantonek, emazteak azaldutako asmoari. Bigarren asmoa agertu ez eutsana, badakigu.

Mutila, etxera deituko eben, eta arrantzale zaharrak zer guztien egoera ta maratilak erakutsi ta adirazoaz, geroago, Kermanek apurka-apurka irakatsi ta jakinerazi euskiozan Zuriñeri.

Irabaztaile urten eban Iñesek, andrazkoak gehienez urten ohi dabenez. Bai asmoak azaldutean, ta bai, batez ere, erabakiak hartzean. Haren senarrak ez eutsen emaztearen gurari ta burutasun guztiei antzemon ez igarri. Ezta hurrik emon bere.

Ez ebilen ama, alabarentzat maisu bila bakarrik, senarrak holakorik susmau ere ez egin arren. Maisu edo irakasle soila ez eban gura; aldameneko laguntxua topau nahi eutsan alaba hainbakoari<sup>4</sup>, ama zoli ta erne harek.

—Gure neska hau isilik dago; egundo ez deust inor senargaitzat aitatu ez izentau. Nik neuk, izan be, ez dot inoiz honegaz edo haregaz gaur ta bihar ta jarraian ikusi, beti edozeinegaz eta mutil guztiekin baino. Apurtxu bat lotsortxua ete dan-ta nago. Ai, alia! Nik i, hogeï urte baino lehen bota neutsan begi lehenengo neure senargei izan neban Kaittano defuntu ederrari. Hogeï urte ostera? Hamazazpi be, ba ete nituan, gero, kaiganeko mutilen artean galantena bera zala arpegira esanaz, keinu agirikoa egin neutsanean?...

Horrelan eragoion andre Iñesek bere kolkorako, berberak pilotu ta metatutako egurrai, egur barriak gaineratuaz; eta

---

<sup>4</sup> Hainbako: zerbait falta dauana.

aspaldian barruan eban asmoari bapatean, uste ezik, hitzetik hortzera, izakerea emon leikeola gogartuaz ta gogoberotuaz.

—Bai, zirt zart; erabaki ta egin, asmo hartu ta bete. Orain-txe berton bialdu behar dot norbait Bizkarrondonera —gehitu eban Iñesek.

Ez erabilen berekiko, erretolika makala Txantonen emazteak.

—Kerman bere, oindino gei dago ta berandutu baino lehen... Nahi dozu hemengo neskatila zororen batek beharbada, oratuten deusola geu lo gagozan artean? Horraitinoko!... Horixe ez, gero! Ez deusat nik Kerman lako mutil jaseko ta laster gizon handi izan behar dauan horreri, ganora barik igesik egiten utziko. Geldi hortxe! Bajagok hobarik! Ez da hori edozein neska gangarren senar izateko jaioa! Ezta gure Zuriñe bere, alper guztiren batentzat izateko! Hauxe bai bikote ederra!... Herri guztian ere ez, holako beste gazte birik...

Aurrera, ba, Iñese —zirautsan<sup>5</sup> bere buruari—, eta ez utzi inongo atso ziztrineri, euren alaba ganorabakoren bat Kermanen jabe egiten. Urak joanda gero errekeari hesia egitea, ez da behin ere onuratsu izan. Horrelako zerok ikusi behar dira, ta lo egon barik, adionez<sup>6</sup> bizkor ibili, eretia heldu-hurren danean...

Ta ganera, laster kanpora doa, barriro bere, Kerman, eta erbesteratzean, nork daki?, batedobatek sareren bat botauko ez ete deuson, edota amuzkiren bat janerazoaz *bota barrura* ez ete dauan egingo? Bai, gaztearen bihotzak bero-beroa izaten daki-ta... Bainan ez, ez! Holakorik jazo baino lehen, hemen dago Iñese, zer egiten dauan ondo baino hobeto dakiana, eta ez deusat, tximista gorria, txoritxu txanbelin

---

<sup>5</sup> Zirautsan: inotsan, ziotson.

<sup>6</sup> Adionez: sasoiz, denporaz, eraz.

horri, eskuartetik hegazik egiten lagako. Erroman be, badakie hori.

Eta buruak emon, eta haxe egin.

Kalera urten ebanaz batera, Iñese berberak jo eban Bizkarondonera, eta Kermanetzaz galde egin.

Eta haren izekoak dei eginda, berehalakoan agertu zan mutila.

—Albista txarren bat ala zeregin astunen bat al dakastazu?— esan eutsan Kermanek.

—Ez ba, Kerman —jardetsia, arrantzale andreak—, zorionez ez dauka Txanton gureak txarragorik. Baina beste gauzatu bat zeuri azaldu beharrean nago.

Ta zehatz-mehatz iragarritako burubideari, baietzaz erantzun eutsan Bizkarrondo zaldunak.

Zuriñeren amari arpegian irribarrerik susmatea beti ere erraz ez zan arren, egun hareitako oinazeen pozgarri ta aringarritzat zerbait baebala, edonork igarri euskion<sup>7</sup> haren begien dirdaiketa biziagoetan.

Etixeratzean, aita aurrean ebela, itsumustuan<sup>8</sup> agertu eutsan amak Zuriñeri, Kermanen abotik harako<sup>9</sup> erantzun asegarri ta mazala.

Alabeak, ondo eritxi eutsan gurasoen burubideari, ta beste bat izatekotan, irakasle egokitzat onartu eban.

Iñeseren barrua ez zan makalean zabaldu.

Ez ekian arteetan inortxuk ere, ostera, andre zuhurraren lakio<sup>10</sup> haren barri.

---

<sup>7</sup> Euskion: eikion, ziezaiokeen.

<sup>8</sup> Itsumustuan: ustekabeen.

<sup>9</sup> Abotik hara: ahotik urten eta batera.

<sup>10</sup> Lakio: lakirio. Txori edo piztiak harrapatzeko tresna, tranpa, segada.



## XII

### BARRUAK AGINDUTA

Txantonek aldigaiztoa izan eban gau hartan Jon aipatu genduanean, etxeko bazter batean ikusi genduan, arrangura-unea gainditu ta gero, barrero ere itxaropen epelaren gozotasuna milizkatuaz.

Zeren itxaropena, ostera?

Bihotz bateri eginiko eskea, irudi atsegin bati egindako galdea, neskatila ederrari azalduko autorkuntzearen ordezkotzat, erantzuera baikorra-edo hartu ustez, amesa egia bihurtuko ete zaneke itxaropena.

Indar-emoile ta zuzpergarri hauta<sup>1</sup> da, izan ere, itxaropena. Gorputzeko zentzunak azku<sup>2</sup> barriez eta gogoaren zokondoak argi beroz berpiztu ta haizatuaz, irmo ta zutik eta biziminez jarten gaituan goitik beherainoko bultzada zoli ta eragina da. Bihotzaren erdian sortu ta zainetan eta kirioetan zehar dabilen odola ta bizindarra, bor-bor irakiten jarten deuskun kemen eskutua.

Udalenean<sup>3</sup>, lozorrotik itzartuta, izadiak edonun zornajarioz<sup>4</sup>, ezetasunez ta urinez<sup>5</sup> beterik, bazter guztiak jantzi barriez aldatzen dituan antzera, holantxe maitetasunak ere,

---

<sup>1</sup> Hauta: berebiziko, aparta.

<sup>2</sup> Azku: indar, kemen.

<sup>3</sup> Udalen: udabarri.

<sup>4</sup> Zorna: sapa. Landareen barruko zuku elikagarria.

<sup>5</sup> Urin: erretxina.

gaztearen izakera osoa luze-zabal lodian igurtziaz, amesez ganezkatu daroa.

Nork ez dau ames horren barri jakin, bizitzako hamalau, hamasei edo hogeitau urtera heltzean? Nork uka leike horrelakorik, lilura, buruera ta bihotzaldiok hogetalau ordu besterik irauan ez baldin baeben ere?

Gaztezaroko bideetan zehar iraganiko edozeinek daki su ikusezin horren barri. Ez da sinisgarri, benetan, gizaseme edo giralaba bakartxu bat ere izan danik, *zer* hori nabari edo senti ez dauanik. Guztion ondare, gizaki ooren dohaia da izan-ta, maitetasun-garazia, alkar-beratasuna.

Besterenganako lera, norbere kidearekiko grina, gizonen ta emakumeen alkar-beharreko erantzupen estua; maitetasun-eskea dan lokarri arin mehe ta ezereza ainakoa, bainan gogoak sarri askotan, haitz andiaren pisua baino astunagotzat jo ohi dauana.

Gau hartatik harrezkero, hiru egun mando<sup>6</sup> iraganak ziran, eta mutilaren gogoa barriren barri iluntzen ta larritzen hasia zan.

Egungentziaren etorrerea lanbroak urratu eta mendi-gailurak eta muino-bizkarrak urrez jantzirik eta goienera heldurik izpi ta errainu ederrenak isuri ostean, bertan goxo laburraren ondoren, eguzkia ere makaltzen ta urruntzen danez, bere ames epel bero gorria ere hoztu ta ezereztzen zala edo, zirautsan Jonek bere buruari. Egunabarrak arrats-behera<sup>7</sup> hurre samar eukala, labur esateko.

Babes ta aterpe bila doan eskalearen irudira; zidor ta bide medarretatik noizbait atsenleku<sup>8</sup> ta abaroa izan zeiteke-

---

<sup>6</sup> Mando: handi. Hiru egun luze (adj.).

<sup>7</sup> Arrats-behera: Erkiagak *arrasbehera* (arrasbeera) ere erabilten dau.

<sup>8</sup> Atsenleku: atsedenleku.

an etxe ta etxolan ate-joka diharduan eskekoaren gisan, bihotz-atadian oles egin eban. Deiadar, oihu, zinkurin ta hasberapen, maitetasunak nun eta hantxe, agindu eutsan tokian bertan egin ere.

Ate-joka hasi zan, baina ordurarte ez eban jardespenik hartu, erantzunik jaso. Hiru egun astun, barruko intziri-erosta minberatsua, neska apainari agertu eutsanetik. Eta ezer jakiteke. Hiru egun, burutu ezinak birloraz ta liluraz gertu, mozkor-amesez beteten hasi ta gehiagoko barik, orratza sarturiko puxika edo mazkuri harro arola<sup>9</sup> lez, zerbait zirudian zorion-bola puztua, isil-isilik urrituaz, ibituaz, zimelduaz, haizez hutsitu zimur ta zimel gelditu arte. Horra dana.

Adu txarra, siats<sup>10</sup> makurra ete ebilkion, zigor-zarta hanker bihurriaz bere barne-baratzeko landaratxo pipil barriak lorrintuten? Habea<sup>11</sup> ete eukan, bihotzak limurtzeko<sup>12</sup> arazo bigun ta zeregin samur hartan?

Nahikoa zan lorrik eta mingostasunik. Nekaldia amaituteko gurariz jagi zan ohetik Jontxu goiz hartan. Eta atzera-aurrera, zer dan edo zer ez dan egiteko adorea eskatu eban jagikerako otoian.

Ez eban nahi, horraitio, Zuriñeren eta bere arteko maite-hartuemon horren barri inortxuk ere jakin egian.

Jagi ta batera, Txantonetzazko galdea egin eutsan Arantzari. Makaleri hori luzarorako zala, erantzun eutsan bere arrebeak, ta gero ta gero ere, ez zala nunbait Txanton lehenera bihurtuko, eta beste zertzelada gehiago, irakurleak ondo daki-zanak.

---

<sup>9</sup> Arol: apatz, apotz.

<sup>10</sup> Siats: sirats, adu, zori, patu.

<sup>11</sup> Habea izan: zoritxarra izan.

<sup>12</sup> Limurtu: zuritu, atzipetu.



—Eta Zuriñek zer dino? —izan zan bigarren itaunea, bes-tela baitakoan, ezarian, asmoa malmuzkeriz estaliaz—. Ez dakit noiz ikusi dodan be.

—Neuk bere, ez dot iragoko<sup>13</sup> egun bieton ikusi, goizetan elizan izan ezik.

Jantzi, apaindu, gosaldu eta urten eban mutilak kalera, aroztegirako ustez.

Lantegia, Apalloa kalearen guen<sup>14</sup> aldean eukan, herriko azkenengo ehule zaharraren etxetik hurre-hurre, eta baita azkenengo santuginaren bizilekuaren aurrez aur bere.

Eta aintzinako Zingizango leku hartatik igaroz —oraingo Uriarte jauregia baino barrenerago zan, antza—, Gamarran zehar, aspaldiko Guzurmendi zan tokira heldu zan, gaur Udaletxeko harrimaila ederrak hasten diran zabaluneraino, eta hantxe harrizko pilaretan gelditu zan, kurikari edo barrandari edo talaierua bailitzan.

Han hurrunean, sorkaldetik, Labagane goitian, eder, dizdizari, indar bete ta garailari agiri zan eguzkia, inguru guztiak biziaz ta pozez kutsatuten zitualarik.

Urganean, itsas-azal urdin apalean, argi-adarrak izlegiten<sup>15</sup> eben, zidarrezko bide zabal zirudiala. Dirdai haetara ikusleen begiak hertsu ta gorde beharra eben, itsutu lez egiten ziran-ta.

Uragora egoan, eta itsasoaren sabelak, harro puztua, ganezka zabalguraz egoala emoten eban. Izadiaren indarrak mukuru<sup>16</sup> zirauen, goi ta behe.

---

<sup>13</sup> Iragoko: igaro diran, igarotako.

<sup>14</sup> Guen: goien, azken.

<sup>15</sup> Izlegin: distiratu, dirdira egin.

<sup>16</sup> Mukuru: indartsu, sendo, euren betean.

Haize apurraren zeragaz dantzari ziharduan barrako itsas-kolkoan, belak zabal egoan jolasuntzi politak.

Une laburrean Jonen begiak ikustaldi luze ta arduratsua egin eben. Haren buruan ibili ebiltzan hara-honaka asmoak eta nahikunak, Karrazpioko olatuen antzera, beti artega ta egon ezinik. Gorputza geldu eukan, eta orekan egoala zirudian, «gorria», arrain-talde ugaria nun agertuko itxaroten dagoan kaioaren antzean, gero, zaust! bere oparikizunari laster arin erasoteko.

Ez zan, ostera, harek gura eban *arrainik* inundik inora agiri.

Bainan... halako batean, aspertuta, gogaituta, enparantzara jatsi zan harmailetan behera, eta salerosleen artetik aurrera ekin utsan.

Eta zorionen batean, egin ere.

Bila ebilen pitxia, Txatxu kontramaixuaren nasa hedatsuan bertan ikusi ebalako.

Arranegiko zabaleko uso-tortola zuria, izenez baizen izanez azal ta begi urdin zan Zuriñe ezti koloreko ulematasa ikusgarriaren jabea, mezatatik joian, baltzez jantziriko andra zahartxu bategaz autuan eta barriketan.

Neskatila zoragarria ikusiaz bertatik, geldu lotu zan mutila, oinak lurrean katigatu bailitzakiozan. Barruak ere, bira egin utsan. Baina baretuta bere senera zanean, Zuriñeganantz egin eban.

Urratsok egin bitartean, begiak harenganik aldentuteke, inoiz baino liluragarriago, guragarriago ta eskurakoiago begitandu jakon.

Soineko urdina eukan, ortzia bezin. Luzean, belaunak ainakoa. Beso motz samarrak, ukondo pareraino. Idunekoa, zurixka; adats horail dizdizaria, xingola batek lepatxokoan

baturik, txorta eder zabalduaren antzera bizkarrean behera ebalatzen. Gerria, lokarri gorrimin medar batek estututa, emakumetxo eginaren irudi liraina zan haren gorputz polita.

Mahai ganetan ipinten ditugun alabastrozko iruditxo pitxi txoragarrien hainbatekoa zan haren tankera segail lerdena, zumea bezin. Zutia, lizarra aina. Otzana, usakumaren antzera. Gozoa, marrubi heldua bestean.

Hantxe egoan Zuriñe; begi-aurre eukan neska pin-pina. Aukerearen egokia, buruz buru hitzegiteko!

Eta bere burua adoretuaz ta kemen preminazkoz jorituaz, haren ondotxura zan. Irriberatsu agurtu eban Txantonen alaba.

Honetan, zaharrak ohi daben susmo-jakituriar, atsotxuak aldegin eban haengandik, eta agur eginaz, amarruki<sup>17</sup>, bakarrik utzi zituan neska-mutilok.

Begiak zabal-zabal egoan egon neskatilea. Ez jakin ba, berekiko zer erabilen. Baina berehalakoan mintzokera amultsuaz jardunean hasi zan Jonekin.

Honek lehendabizi hitzegin eban.

—Ez dot, Zuriñe, iragan hiru eguneton zure gerizetarik ere ikusi, ez bizi zarean ala hila zarean ere jakin —inotsan erdi-bildurrez.

—Badakizu zergaitik izan dan. Baina, tira, aitak hoberantz egin dauala dirudi-ta...

Euren arteko arazoa aipatu gura eban mutilak. Baina ohi danez, ahaztu jakon aurretiaz gertauta ekarren hasarretzeko hitzaldia. Bidean, bakarrean, esan, esan eta berresaten jardun, eta lekuratzean, horra, kittu, dana ahaztu, burutik joan.

---

<sup>17</sup> Amarruki: maltzurki.

Apur bat artega egoan Jon, eta eskuak bataz bestea igurtzika hasi zan.

Isilgura batek azpian hartu bailituan, murtik egin barik lotu ziran une hartan neska-mutilak.

—Zuriñe! Horraitino ez al jatzu ahaztu oraintsurengoan<sup>18</sup> agertu neutsun zera.

—A... bai! Ez jat ahaztu; baina zer nahi dozu nik esatea?

Eta matarlondoak gorri-gorri egin jakozan, begiak lurre-rantz begira, eta zitzortuaz<sup>19</sup>.

—Horixe da esatekoa! Zer nahi dodan? Ondotxu dakizu zuk nik zer nahi neukean.

Eta gauzak harira etozala sumau ebanean, barruko labatik urten gurarik egozan txingar eta txinpartak ahotik boladan iges egin ez egien, Jon, bigun itxuraz, zarbokeriz<sup>20</sup> berba egiten ahalegindu zan, halan bere, bero-antza guztiz estaltzea lortu ez arren.

—Aori dok ona! Zauria edegirik daukanak, zer gura dau besterik, osagileak bigunkiro osatu deion<sup>21</sup> baino? Basoan galdu dan bidaztiak, biderakusle zintzo bat aurkitzea baino? Edota, uretan galdu dan untzi-gizonak, potin oskil batek bada ere, lehenbailehen barruan hartu dagian baino?

—Horren galdugordean zagozanik ez dot uste, Jon.

—Tira, ba. Argi ta garbi hitzegino dogu. Badakizu, neuk esanda, neuretzat nahi zindukedana.

Bitartean, gazteok ez egozan geldi. Etxerantz joian astiro neskatilea, bere jaubegai-gurakoa alboan ebala.

<sup>18</sup> 1958: oraintsumengoan.

<sup>19</sup> Zitzortu: ertzedegi eta uzkurtu (begiak).

<sup>20</sup> Zarbo: maltzur.

<sup>21</sup> 1958: dakion.

—Sinistuten deusut, sinistu. Nik neuk, barriz, ez dot oindino horrelako buruhausterik hartu nahi, gazte be banaiz-ta...

—Bai, zaharra ez zara, tximista gorria! Ez behinipehin. Ezta umea bere, ostera. Zeuri begiratutea baino ez dago, ume-denporak zukanik alde ebela jakiteko. Ba, emakumeak horrelantxe gozandu daroe, giza-gogoak saminduaz.

—Zu atsekabetuaz ezer irabazten dodala nik, uste al dozu? Barruak niri zukanako amodioa sortu erazoko baleuskit, baietza emongo neuskizula ez ete dozu sinisten?

—Ez dakit.

—Honen bihotz gogortzat al naukazu?

—Beti gara galtzeko gizonok, autu honeitan.

—Ez dakit nik honelako gorabeheren barri. Zeu izan zara lehenengoa-ta...

—Lehenen heldu naizelako, beste inork baino eskubide handiago ez ete daukat zugandik maite-erantzuera on bat iristeko? Ez be! Zelan lagako zaitut ba, besteren pentzura, neure gurariok ito ezik, neure amesak guztiak erruki bage irato<sup>22</sup> ezik, neure etorkizuneko irudipena urratu bage? Nire gaurko pozbide bakarra zaitudanori, bertanbehera uzteko ez nagona, jakin egizu. Tira ba, ederrorrek, itxaropen apur bat emoidazu; eskeini egidazu halakotuko gareala, gaur ez baldin bada, bihar; agindu niri zorion-edontziaren edari tintil bat, pozgarri tantatxua besterik ezean. Bai, ederrorrek! Ez zakidaz hasarratu, ez egidazu betondo ilunik ipini; ez egizuz larrosa-orri usaintsu direan ezpain gorriok, mukertasunez tximurtu...

Zuriñe, berba gartsuok entzutean, grinaz beteriko hitzok jasotean, zetan egoan be ez ekiala gelditu zanentz esango genduke. Gizonik zirtzilenen zurikeri ta limurkeri gozoak entzutean, ezin uka edozein emakumek, danik ederrenak ere, barruan senti ohi dauan zauskada edo zimikoa.

---

<sup>22</sup> Irato: ito eragin.

Egia esan: ez ete gizaseme guztiok hazur-mamizkoak? Zelan ba aintzat ez hartu gure Egileak seme ta eme, gizaki guztiongan ereindako hazi ezkutuaren noizbaiteko ernamin-zartadak?

Euren ibilketa astirotsuan, geldialdi egin eben gazteak, harako *matxina* —grua— handiaren ingurura heldu ziranean. Hantxe geldi erazo eban neskatilea Jonek, nasa ertzean.

Ez eukean sinistuko Zuriñek gizonen bularretan halako sugarrik egon zeitekeanik, eta, arean bere, aspaldiko adiskide Jonek beraganako zaletasun hain berorik ebanik.

Eta ezetz biribila esateko asmoak egiten hasitako neskatilea, zer esan jakin ezta, txintik be atara bage egokion, mutil maiteminduaren etorria entzun ta entzun.

\* \* \*

Ezin izan deutso eguno emakumeak entzungor egin gizon gordinaren maite-hitzei, nahiz eta gero ezetza emon.

Olerkariak, euren irudi-asma-iturriak idekiaz, lilura-olde zoramenezkoak eta bihotzaren irakin-borboiladak ero-mozkor edariz opa ta eskeini ohi deuskuez. Bainan, hauxe dinogu: zenbat gizonek ez dabe esan olerkari bikainenak baizen gartsu, bertsogile aipatuenak baizen edergarriro, eta idazle gailenak baino sutsuago ta biziago, kutunaren aurre dagozalarik, gogotik hara, emakume maitaturen entzumenera, ahapaldi, neurtitz ta esanaldi bero, gori, ezti-jarioak?

Nor ez da horrelako eretietan olerkari izan? Etorri haundiko poeta edo azti bezela agertu? Nork ez daki abagune bardinetan solas gozo bigun sarkorra kutunarengan isurtzen?

Bai, ospe ta goratzapen edozein gizoneri ere, bere maitetuntuan diharduanean. Emakumearen aurrean gizona gizon izango baida.

Maite-aroa heltzean, elkarketa-nahiaren ernaminaldiratzean<sup>23</sup>, txoriak beti kanta bikain pozgarriez jarduten dakie. Eta

---

<sup>23</sup> Ernaminaldiratu: ernamin denborara heldu.

nahiz eta txorieme batzuk isilak izan, mintzogabeak izan, arrak, txoriaita daitekeanak zoragarrizko txintak eta txorrotxio txar-mantak jo ohi ditu.

Zelan bada, beste gauzarik uste izan eban gure Zuriñe ederrak, maitetasuna zer zan ez ekiala egoanean?

Aldia heltzean, zelan kantau ez euskeon beragan begiak egotzita, zaletasunez beterik egokion Jon adiskide maminak, kolko barruan sortu jakan ilentia egundoko sumendi ta gar-meta bihurtu jakanean?

Hiru egunez gehituaz-gehituaz joiakon erretura harek, bazterrak guztiak kiskaldu eutsazan bere ariman. Irudi laztana ikusiaz bakarrik, bere maite hautetsiaren alboan egoalako beste barik, ganezka egin eutsan amodiozko esanbeharrak.

Horrelantxe ekiten deutso maiatzeko gauetan kanta-kantari isiltzeke, arrasbeheratik egunsentirarte urretxindorrek, ilargi ala izar, zoharbi<sup>24</sup> nahiz gau ilun, adar ganean ernai ta bero, leratsu ta maitakor, gau osoan erosta joten txindorreme isilari, honen neke-oinazeak arindu beharrez.

Kolkotik erion uriolari azkena emon arte, horrelan jardun eban Jonek; gogoan urten nahirik eukana adierazo arte.

Neskatxak, nahikoa bihozpera ta samurtua zirudian entzundako hitz gozo gartsuak izanik bide.

Bainan...

Nork jakin gizalaba eder haren begi gardenen barruan agiri zan osinaren sakona? Nork ohartu haren gogoeten joera? Haren azken hitza, nork igarri?

Belarriak gorri, masailak sutan, begirakunea apal ta lotsati, han joan zan Txantonen alaba bakarra etxerantz mutilari — ez bai, ta ez uka— agur samur eginaz, Arranegiko lirio apaina, kaialdeko neskatilarik txairoena...

<sup>24</sup> Zoharbi: izarratu.



### XIII

## IÑESEREN UZIAK<sup>1</sup> ARGITARA

Hasitako arloan eguneroko ikastalditxua egin ostean, alde eban Kermanek Zuriñeren etxetik. Eguerdi aurrettxua zan, eta Argi-iturri nagusia kiskalgarri, gingan<sup>2</sup> egoan, udako egunik beroenak heldu ziralako.

Ez dakigu egunaren berotasunak eraginda ala zer, baina Iñese, Txantonen emaztea, arpegiko koloreak gorrituta egoan sukaldean, lapikoari azkenengo emonaldiak egiten. Honen senarra, gizaiso haundia, leihoan egoan, urrunera so, itsas zabalari begiak eskeiniatz, edota hondartzetan azal-haragiak baltzituten edota uretan igeri atseginetan ebiltzanei irazean<sup>3</sup> begira.

Paper eta agiriak gordeten ziharduan Zuriñek, eta lan hori amaitu orduko ta gauzak euren lekuetan behar bezela jarri baino lehen, dei egin eutsan amak, sutondora joateko aginduaz.

Behingoan egin eban alabeak, amaren esana. Joan zan suetera ta han sartuaz batera, atea hertsiteko adirazo eutsan bere amak. Ikusiaz beste barik, artega ta geraka<sup>4</sup> suma eban Iñese.

---

<sup>1</sup> Uzi: nahi, irrika.

<sup>2</sup> Gingan: bere punturik garaienean.

<sup>3</sup> Irazean: arreta handi barik, gain-gainetik.

<sup>4</sup> Geraka: kezkatu, urduri.



Zerbait gauza astunen bat iragarriko ete eutsaneko gertakizunetan ebilela uste izan eban; beharba, Jonegazkoagaitik hasarre edo agiraka egingo ete eutsan.

—Entzuidana, ene alaba horrek, arazo baten joan etorri ta azi-orrazia.

—Zer, ama, nogazkoa ete da zer hori?

—Eugazkoa don, hain zuzen.

—Ezer txarto egin dot, ala?

—Ez jakinat zelan esan. Txarto egin donalako ez, bapere egin ez donalako baino.

Arnasa apur bat hartu eban neska gazteak. Mutilaren mandatua isilik eukalako, agian? Ez, zinez, inortxuk ez ekian ba, hori.

—Tira, ba, esaidazu, jakinguraz naiagotzu-ta.

Orduan, andra harek arteak hartu zituala zirudian, eta astirotsuago ta gozoago jardunaz, arpegiko berotasuna zerbait ibitzenago<sup>5</sup> ta hausitzenago<sup>6</sup> joiakon.

—Ene alabatuorrek, badakin hik, hire aitak eta biok ardua haundiz hazi ta hezi haunagula. Eugaitik egin jonaguzan lan eta ahaleginak, eta eroan jonaguzan neke ta lorrak. Arrantzale-alaba ezerez bat baino zeozer gehiago izango haunagula koan, marinel neska soila baino mailatxuren bat gorago inoiz ikusteko asmotan.

—Badakit, ama, zure gurarion barri.

—Bihar edo etzi, etorkizunean, gu izan gaitunan baino eratsuagoki bizi izan haitenala nahi gaienduken. Ez uste, horraitino, hire aita, ondo gizon zintzoa, eta ni, zoriontsu bizi izan ez gaitunanik, horixe ez. Gure Jaungoikoak horrela nahi

---

<sup>5</sup> Ibitu: lasaitu, eztitu. Ibitzenago: gehiago ibitu.

<sup>6</sup> Hausi: umorea baretu.

izanda, itsas seme adoretzu horregaz ezkondu nintzonan, ta ez egina hik uste izan, arrantzaleak gauza hustzat jonadazanik. Ni neu, hik ondo dakin, ez non itsastar arteko izan jatorriz, baserrian jaioa baino; ta gaztetxu nintzonalan herri polit honetara etorri eta harrezkero hemen hazi, hemengo ohiturak neuregandu, hemengo euskerea ikasi ta labur esateko, bertoko egin nintzonan.

Neskatila esanekoa, adi egokion.

—Urteak joan, urteak etorri, ez bertoko bakarrik, baita *arranegitar* be, egin nintzonan behin ta betiko, eta nire bizitza osoa harrezkero hortxe daukagun neurribako itsaso urdin zabalari begira ta begira emon jonat, hortxe nire ardurak eta amesak, nire etxeko jaun eta maitelagunak hortxe izan jonazalako bere lanak, hortxe bere irabaziak, hortxe bere arriskuak.

Hitz gordin samurrok esatean, negar-angulu galantak eriozan begi bietatik Iñeseri. Zotin batzuk bere egin zituan, eta gero, amantal-barrenagaz legortu, matarlan behera joiakoan negar-tantak.

—Ezer txarrik esan al dau osagileak? —galdetu eban neskatxak, isilaldi harek biei ere barruan zarrada nahigabezkoa egin eutsela oharturik, ta hitz egin bitartean beti ere isilaren izua uxatu ohi dalako.

—Ez don, Zuriñetxu, hari horretakoa orain zuri adirazi nahirik naiarabilena. Ez jon gaur osagileak ezer makurragorik iragarri. Umearoan ondo hazi eta gaztezarroan hobeto hezi haunagula esaten ninardunan nik. Bainan urteak txirimara igarri ere egin barik joan ohi dirala-ta, bakoitza bere sasoiari, norbere biziera ta garaitiko gauzak ere erabaki egin behar ditunala, ondotxu dakina hik. Ta hauxe esateko gogoz naienganon.

—Zeu noiz ezkondu zinan? Hori esateko?

—Bai. Behin baino sarriago irakatsi jeutsunat; ni, hire urteak baino aldiz aurretik ere, komentu barrura sartzeko gai

ez nintzala igarririk naiengonan, ta hamasei udabarrirako mutilik askori irri ta barre, hitz eta txistegin bere bai, ta horrelako beste gaztekeri ta arinkeriak. Hamazazpi urte bete aginean, mutil txairo begi-urdin batek, Tutuluneko seme zaharrenak hortxe kontseiupean isilmandatua egin, eta goizetik gabera, alkarri begira, bata besteari begiraka, aurrez aurre nun ikusiko, hasi gintzonazan. Ganeko egunetan, alkarrentzako izango ginalakoan amesez beterik biziten hasi baizen laster, behinola itsasora joan, geisorik ekarri eta handik denpora asko barik eroan jonen hor goiko Solosantu baketsura... Eta handik geroetara, Txanton hire aita laztanak esan jeustanan euk asmau heikeana, ta neure buruari galdegin eta ama neureari bere esana entzunaz, urtea joan baino lehen eleizaratu naiendunan, Antiguako Amaren oinetan auzpazturik, Bikario zaharrarengandik ezkon-buztarria hartuaz, bitzta osorako alkarren izateko.

—Bai ederto be, ama, norberak maite dauan gizonagaz eta harek maitatua izanik.

—Ondo esana, izan be. Ointxe harira jo behar jonagu. Gaztezaroko urterik gozoenak hik oraintxe ditun. Bainan, bizimoduaz hire burubidea erabagiteko ordua geroago ta hurre-rago don. Ezkongei betiko ez izatekotan, lekai-me-edo ez joatekotan, beti neska gelditzeko asmoak aurretiaz izan ezik, beranduegi barik ahaleginez, aukerako mutil jaseko batekin atondu behar heuken. Hik euk, ez jakinat ba nik, oindinokarren ez don inoganako joera berezirik, ezton? Oso egoki izan ohi don holakoetan, umeagan ezer zerik ez ikustean, gurasoak eurak bideak garbitu ta laguntxu egoki berebizikoa begiz jo, aukeratu ta erdi-eskuratutea.

—Ama, nik sarri entzuna dot, ostera, gurasoak eginiko ezkontzeak ez dauala atze onik izaten.

—Ai, ene alabea, bai sarri askotan norbere arinkeriz eginiko hamaikak baino. Ez al dakin aurretiaz bizi izan diran urteetan, aitag eta amak, bizitzako gauzarik makina bat ikusi

ta ikasi ohi joezanala, ta bigarrenez jaioko balitzonaz, zer horreik asko beste era batez ta aldaturik egiteko asmo ta gogoia izango laieunkeena? Eta bigarrenez jaiote hori, ez don besterik euren umeen joan-etorriak lehen ikusi ta alderdi onenez zuzendu nahi izatea baino; bigarren aldiko egitadak, zuhurrago, egokiago ta onuratsuagoak izan daitezkan.

Eguerdiko hamabien kanpaiak hots astunez iragarri eben egunaren gerrialdia. Hamabiak, bota platerera begi biak,... esaera zaharra.

Kanpai nagosiaren durunda hotsak, hamabietan eta jai aintzitiko ilunabarretan izaten dira soilik. Edota zorigaiztoko egunetan, etxeren bat su ta gar erreten dagoela-ta. Eta baita itsasoan laino edo gurma<sup>7</sup> zarratua dagon egunetan bere, deitzale itun, ulun<sup>8</sup> eta itzala izan ohi da, untzi ta itsasgizonei portura bidea ezagunarazoteko gogoz.

Ama-alabak eten eben unetxu batez euren barriketa luzea. Aitaganaino heldurik hirurok egin eben arrena.

Biak bakarrik gelditzean, etxekandreak ekin eutson:

—Eta orain itaune bat egin behar jeutsunat: hik ez al don inoiz inogaz amesik egin? Edo mutil apainen baten irudia ez al jan kolkoan barru-barrura sartu? Ez al don behin bere inorgaitik lorik galdu? Ez, ezta? Ba, orduan, erdu ona; esan: zer deritxan geurera datorkigun mutil bana-banako Kermani? Ai, nik hire hogeit urte oindino bete bakoak banaieunkanaz!... Laster arin sare estua bota ta norbere gustokotxu bat *bota-barrura* egingo naieukana.

—Kerman atsegin ete jatan?

—Zer esan bakoa, ene alaba hori. Gazte jaseko<sup>9</sup> bat

<sup>7</sup> Gurma: behelaino zarratu, zarrazoi.

<sup>8</sup> Ulun: ilun.

<sup>9</sup> Jaseko: lirain, txairo.

ondoan gertauten danean; mutil eder galanta norbere alboan eukiteko eretia daukanak, zer besterik egiten jakina, bere senean bajagona ta emakume zentzuneza edo ganorabakoa ez baldin badona, ereti hortaz baliauta, egoki dagokiona lortzen ahalegindutea baino?

—Kerman jasekoa ta alagalakoa ez danik, ez neuke nik neuk esango. Ez jat niri ostera horrelakorik bururatu be egin.

—Ai, alia. Oraingo neskak dauken gatz! Zeren begira ete jagonaz<sup>10</sup>, sasoirik onenean behar diran tretza<sup>11</sup> ta sare ta lakirioak gertau ta ipini barik! Gero, ez don neskazaharrrik faltako...

—Baina, ama, senargaia norberak hautetsi behar al dau?

—Dana dala, zerbait egin behintzat, hor ganora bage manatan egon<sup>12</sup> barik. Mutilik onenak neska ziztrinen eskuetan jausi ditunala eta beste batzuk erbesteko emakumeen sareetan galdu, entzungo jonagu gero, ta orduan izango ditun izatekoak. Hor konpon! Ai, Zuriñe, hik ez dakin asko munduko barririk. Gaur egunean, begien aurrean ikusten jonagu, ez dona egoki neskatilea papaua lez erdi lo egotea, inor alboratuko ete jakon zai. Bestelako senar izango hinduken hik Kerman, eta hi, haren emazte zabal... Nork jon harek lako haziera onik, ekandu zindorik, karrera ederrik ta jatorri hoberik bere, aberatsak eurarak izan ezik?

—Ez da txarto esana, ama.

—Ene bihotzeko aingeru hori! Hamaika ameskeri irakurri ta ikasten joenaz gaurko neskatxa bihozperak, nobela edo elebarri diralakoetan. Ez daukana berakautakoa<sup>13</sup> makala, mundua, zineetan agertzen diran irudikeri zoragarrietan lez

---

<sup>10</sup> Jagonaz: jagozan. *Dagoz* adizkiaren hitanoko alokutiboa.

<sup>11</sup> Tretza: arrantzan egiteko tresna. Ikus VII. kapituluaren izenburua.

<sup>12</sup> Manatan egon: egonean egon.

<sup>13</sup> Berakautako: laprastada, labankada.

dabilela sinistuten badon. Maitetasuna, zine ta teatroetan hots baten ta zerugoitik agertzen don, inoiz ikusi be ozta egin ohi diran lagunen bihotzetan. Bizitzan oster, hemen benetan esan gura jonat, gure ingurukoengana izan ohi jon joera gure bihotzak; ingurukoren bat bere itu<sup>14</sup>, xede, jomuga ta azken.

—Zaharra da hori, ama, ezagutzen ez dana maitatutea errez ez dalako.

—Prakadunok eta gonadunok zenbat eta alkarren hurrea-go egon, hainbat laztanago, maiteago, alkarrenago egiten gaitun. Nor jabilna hiregandik hurreen, nor daukana egunero cure ondo-ondoan?... Horra ba, argi esan, esanbehar guztia. Ez al don eure amaren esanik egingo? Bai damutuko ere!...

---

<sup>14</sup> Itu: helburu.



## XIV

### ARRANTZALEAREN GORAIPA

Udako egunak aurrera joiazan.

Itzasuntziak atuneta eratsua erabilen, eta kaian poza geituten eta itxaropena mamintsuagotzen joian.

«Otoiop» birritako aldiz heldu zan etxera, eta biotan nasa zaharra hegaluzez beterik horniduta utzi eban. Arraina nahikoa samar erabilen arren, diru ederra egiten eban saldukeran; eta ekarri-ahala errez saltzen zan kanporako, kabanetarako<sup>1</sup> ta baita herrirako be, lasterrean jateko.

Zuriñe pozarren hasi zan untzia-aren kontu-arazoetan. Eta hasi barritan horren zori ona izatea gertatuaz, itsasoko ardurak, untzien joan-etorriak, arrainaren gorabeherak, ikatz eta izotzen hartu-emonak eta untziburu gizonen autu, esames ta iritziak inoiz ez bestean zituan buru ta bihotzean.

Aurreko urteko atunetatik harrezkero, zorra besterik ez eben untziak egin. Gitxi ziran portuaren egoera onean egozarak. Gehienak zorrik asko zituen bazterretan, eta hasi harrikatzetik eta patente eta maziatarainokoak<sup>2</sup> bere, ordaindu bage eukezanak, ez ziran bat eta bi, gehiago baino.

Aurreko neguteko arrantzuak ez eban ondore onik izan. Ta gero, udabarrian bere, arrain barriak benetan *tati* egin<sup>3</sup>

<sup>1</sup> Kabana: arrain-fabrika.

<sup>2</sup> Mazi: maziko txalupak: arrantzurako amuzkia edo beita botaten eben untziak.

<sup>3</sup> Tati egin: eskaini bai, baina emon ez.

ebana! Egun bi edo hirutan sardina apur bat hartu eben, baina geroztik esatekorik ez.

Ontziak garbi, kaiganea legorregi, loiea<sup>4</sup> usain bage, etxe asko kee barik, umeak goserik, gurasoak atsekabez; herri osoa itzal, ilun. Horrelakoxe negua izan zan azkenengoa.

Baina, tira! Jaungoiko handiak gizonen eroapen ta egonarrria neurri bateraino zabaldu danean, barriren barri gose-aroa etenaz, gose ordeaz asea, beharizanaren ondoren ogia, esku hutsen betegarritzat zidarra, nekeen ostean poza bialdu eutsen kaitarrai, arrain maminaren bidez.

Negu ta udalena hesteak kizkortuta iragan ondoren, sabelari betekada sendo bat emoteko eretia heldu jaken itsasora begira bizi diranei. Negar-iturri diran begiak apurtxu bat argitu, eta hileta-kanpai diran mingainak euren soinu ta mintzoa hots alai gozo bihurturik, portu ta inguruak, herri osoa erabat esateko begitarte alai aldatu zan.

Dirua etorren herrira kanpoko erosleen eskuetatik. Dirua, arrantzaleekana kabana-jabe ta ola-lantegi ugazabengandik. Dirua, hainbat eta hainbat hilabetetan bizikariak zorko edo zorrean emoten jardun eben dendariengana ere.

Dirua ta poza etxe bakoitzerako. Eskuartekoa, soineko barriak egiteko, oinetakoak lortuteko, umiei gauza beharrezkoak erosteko, janari-zorrak eta ogi-zorrak zurituteko, ta zergaitik ez ba?, baita janaldi mamin bat eta txurrutaldi gozo batzuk egiteko bere.

Nork dauka, ba, inork baldin badau, jan-edan ugari bat egiteko eskubiderik, arrantzale adoretuak bezenbat? Nork, eta beti alperreri nasaian bizi danak ete dau ba, hestekadak<sup>5</sup> egiteko esker hori?

Arriskuz beterik bizi danak, egitada zori hutsezkoetan diharduanak, gudari edo burrukalari errimeak eta arrantzale

---

<sup>4</sup> Loia: arraina untzitik hara saltzen dan tokia.

<sup>5</sup> Hestekada: betekada.



jasankorrek, horretzek dauka, nonbait, egiaz esku ta ahalmen, horretxeri dagokio dagonean *bonbon*-egitea.

Zer dala-ta? Ai, guztiok arrantzale bagina, horrelantxe uste izango genduke, dudarik bage, orain beste iritzirik izan arren.

Aurtemein, Iñesek bere alabeari esana gomutau ezkeru, harekin batean esango: norbait zenbat eta ezagutzenago, maitatzenago dogula, bihotz zintzoa izan ezkeru.

Euskal arrantzaleagaitik, hau, hori ta bestea maixiatu<sup>6</sup> dabe. Hamaika bidar bidegabe, gainera.

Alperra dala, ardauzale dala, diru-eralgitzaille, zabar, utzia, ardurabako ta ezjakina. Baina hamaika ezjakin, hamaika ardurabako, baldar, diru-ereintzaille, gangar, hordi eta alper dago bazterretan hain zuzen, arrantzale ez diranak, eta, arean bere, arrain-usain bageak!...

Zenbat mozkor, zatar, alper-harri eta sakel-bahedun<sup>7</sup> ete da mundu zabalean, inoiz itsasorik amesetan ere ikusi ez dabenak? Horrelan, ba, arrantzaleak... edonun dagoz, itsasoan eta legorrean, ur-ertzetan eta lurralde idorretan, iparrean eta hegoaldean, hemen eta hemendik urrun.

Zerik asko, asmau-ahala, arinkeriz esan ohi ditue gizonak.

Itsasoko bizitzatik kanpo diharduenak, ez dakie han urrunean, ur handian, egunak eta gauak, jai ta asteak, goiz ta ilunabarrak bardin samarrak diranik. Legortarra, egunez lan egin ondoren —edo behintzat bere ordu neurtuak, gehienbat— gabaz oinak luze eta gorputza zabal-zabal etzanda, nasai lo dagoan bitartean, arrantzalearen untzia, txikia beti ere, kilin-kolonka ibili dabil oinarri sendo bage, eustazpi zirinaren azal-azalean, leze sakonaren agin ta erpe artean.

---

<sup>6</sup> Maixiatu: masiatu, eragon, kritikatu, trufatu.

<sup>7</sup> Sakel-bahedun: poltsiko-zulodun.

Zein da legorrekoen bizimodua, honenbeste edo harenbeste ordutan lan egin ondoren, lantegiari agur eginik bakoitzaren etxera joatea baino, arrisku esatekorik bage, gehienetan?

Arrantzaleak, bere lanbide ta jardunean hasten dan ba-koitzean, beti ta beti, bere biziaren guna arrisku ta galtzoripean<sup>8</sup> ezarten dau, bildurra alde batera utzirik. Etxeko ogia, sendiaren poza, umien atsegina, herri osoaren alaibide ta aberastasuna, horra zer dan arrantzalearen arloa; horra hor kai-herri ta portualdeetan itxaropena ta ondasuna erein ta zabalduten dakian gizasemea.

Bihotz eder, gogo zintzo, barru oneko ta esku zabal, daukanean edonori emoteko gertu egon ohi dan gizaki begiko, apal, gorrotorik bageko, edonoren adiskidea. Horixe dozu arrantza euskalduna, horixe dozu egunero, arrisku bildur gabe, lekurik txarretara, osin izugarri horren atzaparretan guretzat ere janari bila joaten dakian itsas seme jatorra!

Dirurik ezarren, jaun agertzen da arrantzalea. Haundikeri bage, gizon eta zaldun. Biziteko lain egiten daki, ez aberastu beharreko *urregose txarrez*, Barruko bakearen jabe, bihotz nare ta baredun, eroapenez bete, egoarritsu. Daukonagaz nahikoa esaten dakiana. Eskean ibiltea gorroto dauana, beharrian gorriaz haztamuka<sup>9</sup> ibili arren sarritan. Okituak eta ondasunez beteak ezagutzen ez daben mana, baretasun, arte ta nasaipena beragan dauan gizon apal, mazal eta gogo onekoa.

Zer esan daikee legortarrik askok arrantzaleen ala ta kontra, uretan ordu bat edo bi egin ezkeru, legorretik hiruzpa-lau mila urrunerantz joan ezkeru, oindino mendiak ere begi aurrean ostendu bage izanik burutik behatsetara dardaraka, ikaraka, laudarduan, izuturik jarten diran barritsu, minluze, prakestuak?

---

<sup>8</sup> Galtzoripean: galzorian.

<sup>9</sup> Haztamuka: itsuka, bidea ikumenaz igarriz.

Isil beitez, ba, jakitun azalekoak. Jantzi beitez euren soinekoz, bizi beitez euren etxe zirtzilueta, ta batez ere, bioaz itsasora, bioaz egunetan eta egunetan, uda ta negu, hotz ala bero, sargori ala izotz, egunez bezela gau baltzean ere.

Eta joan beitez, joan ekaitz egunetan itsas urak irakiten diharduen denporaletan, sartu beitez orduan intxaur-azal hortan, ta bioaz urrutira...

Orduan esango litukee, noski, lotsa haundiko berba astunak, orduan solas ta ele gurgarriak, orduantxe eskubidezko hitzak, arrantzale ta itsastarrentzako zorrezko gorapenak. Une hartantxe litzakez marinelarentzako ele-sari bikainak, esanaldi aipagarri ta biribilak.

Ez da jakituna gure arrantzalea, ez; baina ezta eskalea ere.

Ekonomi-arazoetan ez daki zinez jakitea komeni litzakion gutzia. Baina gizabihotza ikasten ari izan diran filosofu ainitzek hainbat jakituri erakutsi deuskue euren biziera ta egitadetan. Aintzinako balezale ta makailauzaleen ondorengoak ditugu, orain mila urte ta gehiago beharbada, Gaskuinekin batean Terranovaraino itsasuntzi txiki ta makal erkinetan joaten ziran euskaldun zaharren oinordekoak<sup>10</sup>.

Gizonik gehienak aberastasun egarriz jarduten deutesenez, gure arrantzaleak *lan biziteko* lain egin ohi dabe, ez haundikitzeke.

Sarri eta maiz, sabel huts edo erdi-huts izan arren, barrua bakez, arpegia argi ta bekokia jasota, okituaren ondampurik bage ikusi ohi ditugu, eskean hasteko lotsa, bila ta esku-luzaka hasteko gauza ez izan-ta, lorpide horri narda ta iguin eginaz.

Baina kaira arrain apurra heldu dedineko<sup>11</sup>, ikustekoa da portualdeak hartzen dauan bizinahia. Alaitasun, jolasgura,

---

<sup>10</sup> Oinordeko: ondorengo, ondoko.

<sup>11</sup> Heldu dedineko: heltzen daneko.

barregozo, dantzadeia, horixe izaten da lehen itxaropen, egoarri-  
riz ta nekez irabazitako saria.

Ez dau arrantzaleak, zeken-usainik ez zuhurkeri larregirik.  
«Dirua, —hauxe baita euren doktrina— ez da gordeteko egina,  
esku-aldatuz ibilteko baino».

Aiurri, mendu ta izakera atsegina dau. Arma edo iskilu  
bako gudularia, bizia arriskuan egunero erabili arren, guduzelai  
maitera, itsaso urdin zabalera edonoiz-edonoiz baretsu, nasai,  
narq ta lerden joan ohi dan gizasemea.

Ez daukanean isil samar, daukanean edonori emoteko  
gertu... Arrantzale bihotzaren ederra! Ai, gizon ikasia bezin  
kulturadun balitz!

Bainan, isil gaitazan. Itxaropentsu izaten, gu baino ukondo  
bat gorago dagolako euskal arrantzalea.



## XV

### LARROSATXOAK BOST ORRI DITU

Egun hartan, Santi Iago<sup>1</sup> biharamona, auzoherri bateko erromeria izaten da. Ta Zuriñe ere, aita hobeto egoala-ta, bere neska-adiskideekin eta beste mutil batzuekin batean *goizaparia* egiten joateko zan, eta nora? ta, Izpazter urruntxu egoala eritzirik, etxera aisago ta lasterrago bihurtu zedin, Elutzeta basetxe ondora joatea erabagi eben.

Asmo egokia izan bere, Txantoneneko esneduna baserri hartakoxea zan-ta.

Bai pozgarria izan ohi dala herriko neska-mutilak esnedu-nenera edota inude-ainanera<sup>2</sup> joatea, hango gauza gozoak ahoratuteko uzian: intxaurra dala, sagar heldua dala, arbolatik harako kerixak dirala, okaran, madari, urretx edo arto beroa, erre barria, labatik harakoa. Eta udako egun beroetan gogokoen izan ohi dan gatzatu bigun dardaratia, ardi-esneaz eginiko gatzatu zuria, azpil<sup>3</sup> sabel-handi batean dantza-dantzari, goxokiz edo azukarez estaldua.

Arrautza-talo edo tortila guri-guriak izango zituen jaki, basetxeko ogi zuriaz batean, lukainka mamintsuz gorriturik. Eta hango sagardau garratz samarra edari, eta ganetik nahia gatzatu, jan-ahala, bete arte, ok eginda toton<sup>4</sup> esan arte.

<sup>1</sup> Santi Iago: Done Jakue, Santiago.

<sup>2</sup> Inude, aina: umearen ama izan ez arren, titia emonaz ha hazten dauan emakumea.

<sup>3</sup> Azpil: plater.

<sup>4</sup> Toton: nahikoa.

Arantza, Irene, Madalen, Nere ta Zuriñe, alkarreri itxaron eta batuaz, bidean gora joiazan seirak aldean. Mutilak, aurretik ziran, Ikaran inguruan bat egitekotan. Holantxe izan ere. Guztiak talde bakarra egin ebenean, bideak betean joiazan barriketa ta barrez.

Kerman, Jon, Txuspin gaztea ta Seberi Totolo ziran mutilak. Azkenengo biok, arrantzuko gizonak, legorrean gertu ziran, eta alagalan<sup>5</sup> etorri jaken arratsalde epel haretan lagunarteko goizaparia gogaro onez ta atsegintsu egiteko.

Uriko lurren mugara ziranean<sup>6</sup>, bidezabala utzi ta burdibidean barruna ziranez, haen hizketa ozena ta zaparradatsua sumaurik, basetxeko txakurrak zaunka ta zaunka hasi ziran, lapur-sailen bat edo ijitano mordoedota bertako ez ziranak behintzat hurreratuten etozala adirazi nahirik.

Bainan soloan egozan nekazariak urrunetik ezagutu zituen nortzuk ziran, ta bai laster arin txakurrak lotu ta isilduerazo.

Aspaldi baten ospatsua ta entzutetsua zan gaztainedi ederrak badirau iraun oindino Elutzetan, gaztainondoak parra-parra igartu ta galdu diran arren.

Aintzinako denporetan, oindino zaharren batzuk esan leie ta horregaitik ez da hain asagokoa, basoko jan-edanak egiteko, horixe zan lekeitiarrak eben leku egoki ta gogokoena.

Artean, ez zan orduan gaur lez, hondartzetara joateko gar, zaletasun eta moda hori England-etik erakarria izan. Orduan, Elutzetara joaten ekien jaunak eta nekazaleak, handikiak eta langileak udako jaiegun beroetan, eguzkiaren igesi, hangoxe gerizpeta gozoan, itsasaize urrun samarrekkoa itzalpean hozkirri hartuaz, aro egokian arratsalde ederra emoteko ustez, janariak etxetik eroan eta edaria bertan eskatuaz.

---

<sup>5</sup> Alagalan: ederto baten, ondo baino hobeto.

<sup>6</sup> Mugara ziranean: mugara heldu ziranean.

Bedarra erdi heze erdi igar, iratzak berde mamin, zugatzak hostroz ta orriz beterik, haizea eguzkitan bero ta gerizpean hozpera, bestelako leku apaina aukeratu eben askari hori egiteko! Ta horrez ganera, guztiak gazteak izanik, horra gauza osoz atsegifa.

Zelaian, bedartzan jesarri ziran, zabal lurean, izadiak udarako gertau dituan bigungarrien ganean. Goienean, txinpar-taz ziharduan eguzkiak gingabegian<sup>7</sup>. Buruz gain, gaztainondo ta pagandoen hostoak haizegiten ari ziran.

Askari-iskia, goizaparia, gogotsu garbitu eben. Samako zuloan behera erreztu ta zirin-zirin joiakioen sagardau urre kolorea, eta azkenean inun ziran plater zabal eta sakonak ekarri eutsezan basetxetik, Elutzetako ardien esneaz egindako gatzatua guraina jan egien. Ta baita iruntsi bere, ta moduetan ganera! Mutilak!...

—Haunek emakumeok be, ez dira makalak abantean — esan eban Txuspinek barreari eutsi ezinik—. Donostiako estropadetan eskasagorik izango da txanpan egiteko. Beti daukez erremuak —jateko koilarak, alegia— edo ahoan edo platerean, bideak tximisteak baino bizkorrago egiten dituezalarik!...

Jan-edanaz bapo egin ondoren, kanta-kantari ekin eutsen, beti lez, basetxeko oiloak euren inguruan ogi-apur ta jaki-hondakin bila piko ta piko janguraz ebiltzan artean.

Txuspiñek kantua hasi, ta beste guztiak batean jarraitu eutsen.

«Mundekatik ekarri neban  
atso bat ostuta,  
leioan esegi neban  
uleak, uleak orraztuta...»

<sup>7</sup> Gingabegian: bere betean.

Ta horretariko oihuzki ta kanta arinak abestuaz, une gozoa emon eban taldeak, igarri be egin barik hiru bat orduk iges egin eutselarik. Handik lokatuteko sasoi heldu jaken, ta damuz heldu be, ordu atseginak ohi daben neurri labur ta latzez.

Honetan egozala, Zuriñek adierazo eutsen garaitikoei:

—Ai, ene lagun maiteok! Zuek joan zineie<sup>8</sup> orain erromeriara, baina nik etxera beharra dot, gure amak niri honaino etorten uztea bere, nahikoa egin dau-ta.

—Ez zaitetz horren goiz etxeratu, Zuriñe. Zatoz geugaz, erdu orain ta gerotxoago joango zara —zirautsan Irenek—. Ez gagizuz honen goiz laga.

—Ezin baina. Bestela amak,... emon-emonak egingo deustaz.

—Bai zera jo!

—Ez be, zuek ez dakizue gure ama nor dan...

—Tira ba, orduan, bakarrik joan beharko dozu.

—Ez bakarrik —esan eben Txuspiñek eta Seberik biak batean—. Geu be, haruntz goiaz, itsasoratea goizaldean izango dogu-ta.

—Horrelan, ba, hurrengo zatozen arte! —zirautsen gonadunak gure arrantzaliei.

Eta alkarri agurrak eginaz, arrantzale biak eta Zuriñe herrirantz abiau ziran behin behinean farolerako bidea hartuaz. Garaitikoak, Gardata alderantz joiazan, handik gero Izpazter, erromeri lekurantz egiteko.

Bapatean, oinkada batzuk arrapaladan eginaz, Zuriñeri dei egin eutsan urrunetik Jonek. Totolo ta Txuspin astiro-

---

<sup>8</sup> Zineie. Hemen *zeintekete* intransitiboaren lekuan idatzi dau adizki transitibo hau.



astiरो aurrera joiazan, baina neskatilea geldi lotu zan beste gaztearen deia entzunda.

—Entzuidazu, Zuriñe.

—Zer dakastazu orain be, arnas-estuka?

—Lehentxuago zeuenean izan naiz.

—Gurean? Zer ba? Ez al deustazu baketan itxi behar?

—Ez, ez deustut baketan utziko, harik eta nahi dodana lortu arte.

—Bai, nahikoa dozu. Zetan izan zara?

Aurreraka joiazanetatik batek, Nerek uste dogu, didarka esan eutsen:

—Zer darabiltzue zuek hor isil-isilik? Ez ete dago, gero, zeozer zeuen artean?...

Bizkorrek irribarreka gehitu eutsan Zuriñeri:

—Ointxe esango deustut. Badakizu Basotxu-bidean egiten dihardudan etxea laster amaituteko dagona. Etxe horretako bizileku bat, lehenengo oinekkoa, edo behekoa, zeuen amari eskeini deustat, zuen aitak gora eta behera ibili beharrik izan ez dagian.

—Ai, zarbo galantori! Bazabiltz zu, satorra lez, azpiak jaten. Alabea behingoan limurtu edo zuritu ez dozunean, amaganaino jo dozu.

—Nahi dauanak, ahal dau. Badakizu zer egin dodan? Gure herriko kanta zaharrak dinoana bururatu jat, ta beste bideak alperreko badira be... Hona, entzun:

«Larrosatxuak bost orri ditu,  
kabelineak amabi,  
gure umetxua gura dauanak  
eskatu bere amari...»

—Guzurrak urtengo deutsu!<sup>9</sup> —irriz esan ondoren, iges egin eutsan Zuriñek han zain eukozan arrantzaliekana.

—Emakume hezigaitza! —inoan berekiko Jonek—. Baina, tira. Gauza baten jakin guran ibili naiz estu egun honeitan, eta orain badakit. Ez daidan itxaropen-izpirik galdu. Aurrera, Jon, beti aurrera!

Zer zan, ostera, ekian gauza barri hori?

Egunik egun, iraganiko aste batzuetan, barruak jaten erabilen susmo zitala, behaztun mingotsez erreta jarten eban ezpaia<sup>10</sup>. Kerman, Zuriñeren ondorik ete ebileneko susmo ta peku garratza.

Bainan, ezetz zirudian. Agirian egoan Kerman Txantonen alabearen gura ez zana. Bestelan, ez eban itxiko bertanbehera bakarrik Zuriñe, une haretan.

Horixe jakin nahi eban Jontxuk arratsalde haretan. Bae-kian Zuriñe etxera beharreko zana, baina bera, Jon, isilik lotu zan, Kermanek zer egiten eban ikusi arte. Eta Kerman erromeriara joian beste neskatile gazteekin batean.

Horixe zan ba, arotzaren itxaropen-dirdai barria. Horixe Jonen barrua zabal jarri eban albistea.

---

<sup>9</sup> Guzurrak urten: usteak ustel urten.

<sup>10</sup> Ezpai: ezbai, zalantza.



## XVI

### BIDABURUAN

Txanton eta Iñese senar-emazteak Jontxuren agerraldia izan ondorean, alkarregaz autuan ekin eutsen, harek eskiniriko etxebizitza zala-ta-etzala.

Jaio zanik aurrera beti, moilaganean bizi izan zan ontziburu azkarrak, eskeintzea entzun ebanean edo entzun barrian, halako larritasuntxua susmau eban barruan. Itsasegiko<sup>1</sup> bizitokitik legorrerago, lurrarterago, porturik asago joango zaneke damua.

Bere denporan itsas urrumarak entzuten ohitua egoalako, otoz otozko barri horregaz, zerbaiten hutsunea izango eukelako bildurrak joa zirudian. Begien aurrean, urdinaren orde zela ta soloen kolore berde-nabarra ikusten, ekandutuko ete zan Kantauriko ume bulartsua?

Osasuna zan, ordea, aldaketa barri horren zio<sup>2</sup>. Osasuna, galdu-aginean ikusi arte, bere izakera baliozkoan aintzat hartzen ez doguna.

—Antzoriz (Santa Kataliña)ko bide zabalaren hasieran, Basotxua deritxon tokia baino lehen, han bizi beharra baino ez balitz, gaitz erdi litzake —zirautsan geroago bere buruari lemazainak—. Zerik saminena, itsasorako egundo gehiago ez naizela gauza izango jakitea, horixe dot.

<sup>1</sup> Itsasegi: itsas bazter.

<sup>2</sup> Zio: arrazoi, zergaitia.

Eta ekin eta ekin, berbazko matasa nahastea biribildu arte, bakoitzaren iritzi ta aburuak eiho ondoren, ontzat hartu eben senar-emazteak, Jonek azalduko asmo ta eskeintzea.

Opari hori zala bide, egundoko mutil egoki ta berebizikotzat jo eban arotza Txantonek, eta haren gorapen ta elesarietan ziharduan.

—Ta mutilari gogoratu, edo bururatu hobeto esan, niri egoki ta mesedegarri jatana! —esaten eban behin ta barrero Txantonek—. Oindino holakorik! Baina aspaldion daukat nik, hori, gizon jaseko izango danekoa. Argia inor bada, azkarra, ta behargina, zelakoa gero! Etxe zaharraz barria egin, lehen bizitza bakarreko zana, orain hirukoa jaso ta iragi<sup>3</sup>, ta alboan bertan, egurrak eta anporrak<sup>4</sup> zur ta ohol bihurtzeko serra ederrak bi, ipini ei ditu!...

—Bai, holantxe esan dau.

—Lehenengo urtenaldian, ahal badot, haraxeraino egin nahi neuke ibiltalditxua, neure kabi barri izango dana, ahalik lasterren ezagutu dagidan. Eta han, negu aldian, egon bere eguzki begitan dago-ta, bestelako leku epela egongo da, eguzkiak Otoio ostean kuku egin arte. Eta moilara joan gura dodanean, handik txirimara Kolmenares kalean behera, aldats biguntxutik, ez naiz horren txarto be ibiliko. Itsasora hamaika joan-etorri egin izan dogu baina,... zelan izango da ba! Hoba izango dot, ausaz, legorrean tirabira egin<sup>5</sup>, lur gogorrean itxulaztu<sup>6</sup>, eta ez han, itsas frankuan, aztarrenik be utzi barik, behar bada... Hainbeste arriskuren ondoren, nork daki, nire azkenengo egunak hementxe, zahartzaro baketsuan...

<sup>3</sup> Iragi: eregi, eraiki.

<sup>4</sup> Anpor: enbor.

<sup>5</sup> Tirabira egin: txalupearen iraulketa, txalupea irauli.

<sup>6</sup> Itxulaztu: iruntzitara jarri, aldrebestu.

Bere senarraren alboan aulkian jesarrita, miesa<sup>7</sup>-erropa zuriak atonduten ta adabakiak ipinten ziharduan Iñesek.

Betiko egonarri ta patxarazko esakeraz mintzatzen zan Txanton. Lehengoa zan, bai, hortan; haren bihotz zintzo ta gogo zindoak lehengoak ziran; baina makaleriak zantzu ta seinale zitalak ezarten ditu gizonaren soin, kemen eta izakeran. Horrelan ba, gurari barri horrek, aringarri bezela, gozatu eroian haren egoera itun eta larria.

Bapatean beste zerbait otu jakon arrantzaleari. Seme-minak jo eban Txantonen barrua. Ta semearen galdez lez hasi jakon emazteari. Behinola, jaiobarri zalarik, hil egin jakon semetxu bat. Ta orain ez eukan semerik, dakigun alabeaz gainera.

Horraino,... semetzakoa izateko bidean egoan, alaba ederrarentzat senar egoki ta jaseko bat bilatuaz. Ta nor seme horberik etxera etorkion Jon gaztea baino? Etxe-eske etorkiona ez; etxe eskeinka etorria zana, baizik. Benetan be, mutil haxe izango litzakion baino suin halakoagorik, seme antzeko xalogoarik! Zelan ez eta eban lehenago holako buruerarik izan?

Bere alaba maitea ez eukan, ez, edonori emoteko. Mutilak, ordea, ez eukan hutsik ez akatsik ez estakururik.

Txantonen asmo osoak ez jakazan bere emazteari gogobeteko, harek begizatua eukan mutila, Jon barik Kerman zalako. Isilik egoan, ostera, auzizalea ez zalako. Ezetz eta baietz, gora-goraka hasi ordez, bide bigun maltzur eta isilekua hartzen ekiana zan. Ekina zan, hori bai, bere burubidea izentau ezkerero. Lehentxoago gerotxoago, bere harileratzen<sup>8</sup> ekizan hari-albainuak, bere piloratzen egurrak. Isilka-misilka, ezarian, bila ebilenaren aztarrenari jarraitu ta guraria lortu arte, bere uzia jadetsi arteraino, ez eban nagikeririk erakutsiko ez etsipenik

---

<sup>7</sup> Miesa: mihise. Linoz edo kalamuz eginiko ehuna.

<sup>8</sup> Harileratu: harildu, harilkatu.

agertuko, katua saguaren atzean ala txoriren baten ondorik astiro, makur, zapal, lurrari deutsola joan ohi dan bezela.

Horregaitik, Kerman alabearen irakasletzat etxeratu ebanean bere, ez eban belarririk agertu lehenengotan, eta harrezkero Zuriñeri zerbait adirazi eutsan arren, gaur bere, senarrak ez ekian ezer holakorik.

Hori dala-ta, Txantoneri bururatu jakon lehenengo suingeia Jon izan zan, eskeintzeagaitik esker ona agertzeko, agian.

Afalduten ziharduelarik heldu zan Zuriñe, egin barri eben goizapari atseginaren gora handiak eginaz eta beste kontu ta gertaerak azalduaz. Aita eta ama adi egokiozan, alabearen jita edo isuria zein mutilengan ete zan jakin nahirik, bakoitzak bere santuari argi egin guraz egozan-ta.

Neskatilearen hitzetatik, ostera, ezin esan gauza garbirik, mutil guztiak bardinean aipatzen zitualako.

—Entzuizu, Zuri —jalki eutsan aitak—; ez al deutsu ezer iragarri Jonek etxe barriaz?

—Bai, hemen egon dala eskeintzen, esan deust bakarrik.

Orduan aitak, mutilaren goralpenak egin eutsazan alabea-ri, lehen emazteari eginak barriztauz. Alabeak, baina, aitak baino gehiago ekianez, Txantonen zintzotasuna ta on-gurea ezagutuaz, Jonek lehenago berari eginiko isil-mandatua iragarri eutsan. Aitarentzat, ezti gozo ziran hitz horreik; amarentzat, barriz, lor eta nahigabe.

Ta bakoitzaren asmoak asmo ta gurariak gurari, egun gitxiren buruan aitak batetik eta amak bestetik, bide biren erdian jarri eben Zuriñeren gogoia ta nahimena. Bidaburuan ikusten eban bere burua, nundik joko ez ekialarik.

Zein bide bereiziko ete eban? Nor aukeratuko? Amari jaramon egin? Ala, aitaren gogoari amor egin, Jonek aurretiaz egindako eskabideari baietzaren usaina iratziaz<sup>9</sup>?

<sup>9</sup> Iratzi: biztu, bizitu.

Edozelan ere, bien amesa beteterik ez egoan. Bata hartu, bestea uka; hortxe egoan untze, matasa ta atsekabea.

Bainan hirugarren oztopoa, eta larriena eban Zuriñek. Bata nahiz bestea adiskide izanik, beste gehiagoko ezer ez ziran beretzat. Ez jakozan, benetan bere, osoro errotuten bere kolko barruan. Batak, maite-autorpena egin arren, ez eukan berak nahi eukean ariurri edo izakerarik; ez ekian zergaitik, bainan horrela zan. Eta Kermanen asmoak, Iñeseren uziak gorabehera, ez ziran errez jakitekoak, antza.

Argitasun bat nahi eban, bere etorkizunari buruz, nundik edo handik halako ezaugarri berarizkoren bat.

Eta bere buruaz ekin-ekinean ziharduala, atetako atean aldaba-hots galantak entzunerazo zituen.

Bitartean, gautu eban osoro, eta eskilara-burura urtenaz, dei egin eban gure neskatzak:

—Nor da?

—«Otoiope» portura dala —erantzun eutsen didar zoliz, kaletik.

Soineko erropa onak arinak-arin erantzi, maizago<sup>10</sup> batzuk jantzi ta bizkor bai bizkor joan zan kaiganera Txantonen alabea.

Atun-pilo polita ekarren untziak. Horregaitik, pozez etozan barruko gizonak, eta berehalakoan hasi ziran nasaganera hegaluze lodi biribil baltz-zidarrezkoak jaurti ta jaurti.

Andrazko mordo batek eta arrantzale batzuk atunok otzaretaratu eta ibilera azkarrez eroaten zituen pisuetara, zenbat ekarri eban behingoan jakin eta gero saltzekoan, euren diru-mukuruaren neurriaz edo sariaz jabetuteko.

---

<sup>10</sup> Maiz: zaharkitu, arrunt, higatu (erropa-jantziekin erabili ohi da).

Egundoko harrera ona egin eutsen untzikoak euren arduradun eben neskatila lirainari. Batez be, Zinguliñek. Untzitik legorreratu kaikada batean, ta Zuriñeren albotxuraino helduaz, isil-misil esan eutsan belarri-ertzera:

—Entzuina: Gorantziak uekana emoteko euri, agindu jeustanan atzo bertan Xirdok, eta ez dakinala asko euganako gomitea zelakoa jonan berak!...

Hitzok entzutean, kerixa heldua baino gorriago egin jakazan arpegiko koloreak Zuriñeri; gaba zanez, ostera, ez eukeon inork igarterik edo susmaterik izan.

Lehentxoago, arratsaldean Elutzetako jan-edanean izan zituen irri ta barre alaitsuetan, zerbaiten hutsunea ete eban uste izanikoa genduan gure neskatoa, bainan ez ekian une hartan hutsune hori zerk sortu edo zerk egina zitekean.

Barri gogoko hori beraganatzean, ostera; gazte urrundua-  
ren urrunetiko goraintziak hartzean, halako zarrada bigun bat senti eban; halako arnasaldi bereizi bat barruan; halako ameslaino-kutsuak igurtzi ebalá bere burua uste izan eban...

Bide biren bidaburuan egoan ordutxu bete lehenago; aurrez aur eukozan mutil gazte bi, bietarik bata ere, atsegin osoko ez izan arren.

Eta orain...

Bidaburu horrek hirugarren zidor bat agertu eban. Ez eskuma ta ez ezker, erdiko bide argi bat, eguzki gozoak izpizatua: bihotzarena.

Eta nork ekian hirugarren bide urdin hori, hiruren — aita, ama, alaba— gogoko izango ete zanentz?...

—Ai, holakoren bat Antiguako Amak —zinkurin egin eben Zuriñeren ezpainak...





## XVII

### ERREKAKO ESAMESAK

(Vox populi)

Badau gure herriak lehenengo ikasketen mailaz goitiko beste ikastetxe nagusiago bat.

Bertan iragan mende erdian ikasi izan dabe hainbat eta hainbat herriko semek eta baita inguruetakori ta herrixketako mutil gazte askok ere. Hori esanaz, Itsasketa edo Nautikako eskola adirazi nahi dogu. Itsas handietan ibilteko behar diran jakingaiak ikasteko etxe bedegarra.

Horraitio, beste ikaste-leku berezi-bereziak ere, oindio badirala autortu behar, dana dan lez argi esateko.

Ikasteleku, edo behintzat, jakite-lekuak bai, nahiz eta jakintza hori erdipurdikoa izan. Zeintzuk ete? Nun ete dira toki ospatsu biok, irakaste-aulki goren biok? Ointxe azaldu behar ko, uriko albista ta barri-zabalkunde-gela ta lagunak ta euren lanbide-kerak ta iturriak, jakite-iturriak. Zabalkunde aldi honetan, *propaganda* dalako oraingo gar eta ekinbeharren sorpuru, behar bada, esango ditugun lekuak izango ziran.

Tokiz txikiak, lurrez medarrak, goibehez motzak; baina «Unibersidade» bi, emonpidez, erionez, zabalgarritz ugari ta akitu<sup>1</sup> ezinak. Teologia izan ezik, beste eledergai guztiak agertu, aztertu, ikertu eta azaldu ta adirazi ohi dira euren lau horma barruan.

---

<sup>1</sup> Akitu: agortu, amaitu.

Badira herrian xahuleku edo garbiketak egiteko etxe koxkor bi. Aintzina, garbiketak errekan edo ibaian edo iturrian egiten ziranez, etxetxu honeiri «Erreka» izena gelditu jake. Bi dira izan: bata Arranegiko errekea ta Ateko errekea bestea, haundimaundi beti ere herria zati edo alderdi bitan banatzen dalako.

Soineko ta oheko miesa-erropak garbituteko lekuak, jatorriz, bainan denporen aldakuntzaz, baita emakumeak batzeko batzarleku ospatsuak bere.

Etxe txikiak dira, izan. Biak bardinak, alderdi bakoitzetik hamabi-hamalauna metro luze —luze ta zabal, jakina, kua-drauak edo diralako—, aurrean ate bakar bana dituela. Leiho estu luzangak ere baditue, baina gehienbat gogorturik, lo egoten dira, hertsita.

Ate ta leiho inguruak harlanduzko, politak izan dira etxetxuok.

Barruan, erdi-erdian uraska handia, beti urez betea, soinekoak, ehunak, mantak, miesa-erropa zuriak txaboiak edo kuztoreaz garbitu ta joteko. Jote hau egiteko, uraren inguru osoan, lau alderdietan bardin bardinik, harri laban egokiak ditue —aska-saihetsok polito-polito izanik aldapatxu edo pikea—, joteko oso aukerara jarriak.

Uraska haundi horren neurrian, goia estalki bage dago, goibakoa da, eta garaitikoan, inguru osoan teilatua dauanez, hutsune hortaz zerua agiri da beraren ginoan.

Lau hormei deutsela, atxikiak, barrukaldetik, beste aska txiki ugari dago, harrizkoak honeik bere, batez be, azkenengo lana egiteko. Aska bakoitzak bere iturria dau, eta hemen egiten dabe azkenengo lana, ur garbi-garbia erionez ipinita, ehun eta miesak iturriaren txorropean ezarrita, argitu edo «aklarau», gero etxeko leihoan edo balkoian edo inguruko hormaren batean untze ta kordel batzuetan zintzilik edota sasi-gainetan edo lurrean zabal ipinteko, lehenbailehen legortu daitezcan.

Dana dala, emakumeak lan egiteko aterpea dabe, bai aska nagusiaren inguruan ta bai bazterreko asketan. Han ez da euririk sartzen... aterri ez dagonean ere.

Lanaldia edo... ikastaldia, egunero izaten da leku bi horreitan. Uda ta negu, oporrik gabe; bai goizean ta bai arratsaldean.

Bainan goizetakoak, halako gazmin ta gazi-geza bereizia izaten dakie, izparringi ta egunkariak izaten daben lez. Goizekoak beti jakinminago, opagarriago.

«Eskola» nagusi hontara, beste antzekoetara bezela, era askotako ikasleak dabe jokera. Gazteak batzuk, beste batzuk areago, hasi barriak, isil samar egoten dakienak, entzule edo «oyente» diralakoak, noski. Eta batez bere, ikasleme gazteen arduradun, begirale ta irakasletzako lez —ikasle ta irakasle, guztiak *emeak* dirala esan dogula uste dogu— emakume aspaldi garatuak, andra eginak, eta urteen bide latzetan zehar ibilitaun ohituak diranak. Eta nahiz eta adinez zarko-marko<sup>2</sup> ez izan, erre kara edo ikuztetxera edo... Irakastetxera, «Uni» hortara alegia, joanen joanaz, irakasle soil ezezik goi maila jagira ere heldu diranak. Erabat esan, honeixek ditugu hemengo egiazko ta benetako «Doctor honoris causa» izendunak, maisuandra jator bihurtu diranak.

«Doctor-eme» honein artean baegozan bi, entzute haundi-koak biak, ta irakurlearen ezagunak. Ate aldeko errekea alde batera utziaz, gaurko jarduna, Arranegiko errekeaz izango dogu.

Arranegiko erreka hortan, bada, kukurruku zoliak egiten ekiezan *dotoreme* biak, beste askoren artean Timuti Belarri eta Mikela Begi ziran. Herriko eguneroko zeregina ondo baino hobeto beteten ekienak.

---

<sup>2</sup> Zarko-marko: zahar-zaharrak.

Ez ziran katedratiku bakarrik, baita korresponsalak ere.

Uri osoko, ta inguruko, albista ta barri ta esamesen BEGI ta BELARRI ziran arren, kaisaldeko arloetan batez bere, Arranegiko sailetan hain zuzen, «espezialistak» ziran. Begibelarrien usmaketa lanak beti-betiro alkarrekiko —konbinazio-ka— egin ondorean, euren MINGAINAK emon ta iragarri ohi eban azalpen zehatz, biribil eta osoena. Alegia, oraingoek «sintesis» izenez iruntsiten dabena.

Eskolapetik hasi eta Talaraino ez zan izango arazo, gora-behera, albista edo jazoerarik euren erakarkinak edo jasogailuak suma, oratu ta beragandu ez ebanik. Herrialde horretako bizi-zirkinak euren esku ta ardurape egozan, kontrolpean nunbait ere.

Ta sarri askotan, ez egitadak bakarrik, baita lagun askoren asmo, burutasun, gogoeta ta bihozkadak ere, aurretiaz igarri ta susmauten ekien emakume biok, euren esanak sinestu ezkerro behintzat.

Goiz hartan bere, Beheko edo Arranegiko errekea lagunetz beterik egoan. Udako legortez ura urri samar ebilela-ta, ez eben egun oso osoan urik emoten, aurretiaz izentauriko ordu batzuetan baino.

Hori zala-ta, andra ta neska, ezkondu ta ezkongei ta alargun, bakoitzaren aldia noiz izan zeitekean ez jakinik, lagunik ugari ta ura eskas izanik, zer gerta ere, taldeka ta erruz joiazan. Barrua bete samar egin zan arren, oindino tamalez egozan beste asko kanpoan, sartu ezinik.

Mikela ta Timuti bere, goiz haretan goiztarrenak ez izanta, luze eretxian egozan barruratzeko beta noiz izango.

Halakoren baten, sartu ziran ba. Baina ez barrura orduko, batzu-batzukin hasarrezko berba batzuk izan barik.

Barrura ziraneke, erreka atea iragan ebenekoxe, Timutik eta Mikelak laster ikusi zituen... ikasle-irakasle gutzien

arpegiak. Hamalau-hamabost urtetik hasi ta gorakoak ziran han miesa ta ehunak ta beste edozer oihal garbigarri eskuetan harturik, euren txukunketa lanean ziharduenak.

Erdiko askan ta inguruetakoetan be bai, oihalak inun diran astinaldi ta zartakadak hartzen zituen, uretan bat-batean sartuaz, igurtziaz, harriak jo eraginaz, bihurtuaz, eta guk al dakigu zenbat irabiaketa gehiago eginerazoaz. Iturri guztiak zabalik egozan, gainera, emon ahalean ura erioela.

Zarata ta zaparrada artean, gizalaba langile ta jaseko haen mingainak ez egozan alper gozoan, nagi ta bagai. Bai zera! Hitzegiteko, alkarrerri norbere barri ta albista ta jakin-gaiak adierazoteko, nahi ta nahiezkoa eben, gainera, didarrez, oihuka jardun beharra. Eztarri ta bular edo hauspo onak behar ziran han hitzaldi mamintsuak egiteko, buruko argitasunaz batean, jakina.

Hantxen egoan, hobeto esan, han ziharduan zetan edo hatan atzeko horma onduan, atearen aurrez aur, askatxu berezian, orduko sasoiari sarrien joaten zan emakume bat. Behar bada, egunean eguneango bezerua, inoiz bere hutsik egiten ez ebana, ta hori dala-ta-eztala, nor bera baino egokiagorik, irakasleme azkarren artean, zaharren ta ikasiena nunbait zanez, hango «dekanu» izateko?

Nor zan berau? Artazitxuneko alarguna zan, edo behintzat, izen horregaz ezagutua. Baina, Berdara kaleko Oraldi-Usteleneko atso sorginak esaten ekianez, alarguna barik bizialarguna edo... ete zanekoa; baina ondo argitu bako arazoa ei zan.

Mikelari ta Timutiri ez jaken, nunbait, atsegin dekanutzakoa.

—Artazitxuneko bizialarguna hor jagona oin be —esan eutsan isilpean Mikelak bere lagunari—. Bestelako «preata» polita dona hori! Goizeko izarretarako jagi ta etorriko zonan atsuori errekarra, gazteen kontu, ipuin, barriketa, irain eta

esamesak lehenengotik hasi ta azkenerainoko guztiak batu, entzun ta gero hor zehar bala-bala zabalduteko asmoz.

—Zaharra don hori! Goizeko kafesnea hartzeko baino be, amuru ta gurari handiago jon horrek hemengoxe hizki-mizkiak jakiteko. Batzu-batzuk barriketa hutsez mantenduten ei donaz— gehitu eutsan Timutik.

—Hori bai, behinepehin. Arpegiko narrua ez jakinat garbitu jonentz, baina mihinganeko zikinak honezkero alden-durik izango jonaz berbearen berbeaz. Horren mingainak, ba, honezkero, txopo-hostroak ipar-haizetan baino zirkin gehiago egin izango jonan-ta.

—Bai, gero! Isildu gaitzean, ostera, hemen dagon lagunen lagunak hamaika zeresan ta barritsukeri izango jon-ta. Ia zer entzuten dogun.

Buru-buruan eroiezan burdinorrizko kankarruak eratsi<sup>3</sup> ebezan gure neskazahar biok. Eta hor saka ta hemen bultza, bientzako lain tarte ta leku egin eben, erdiko uraska nagusiaren biran egin be.

Norbaitek, horraitino, erremuskada hasarrea egin eutsen, berba garratzak azalduaz. Heldu-barriak lehen egozanen kaltez sartu zireala, alkarrengandik hurreegi egonik, besuak erabilteko leku aiserik ez ebela izango-ta.

—Lehen egon gareanok, txarto, geure lanak amaituteko, ukondoak gorputzari deitsaguzala egon beharko dogu-ta. Eta etorri diranak, bardin. Ez dogu horrelan ezer aurreratuko geure eginbeharretan.

Hori ta guzti be, ez eben etorri barriak amor emon, ta isilik baina, sartu ziran; ta lanean hasi be bai, ontzi zabaletatik euren miesak atarauaz; inori jaramon egiteke, edota etxamon eginda.

---

<sup>3</sup> Eratsi: bajatu.

Erabateko gauzak ziran une hartan, elebide ta barriketa-gai. Urteko atuneta gorabeherak; zeintzuk erabilen arrainik gehien, eta abar. Eta batzun iritxiz, Anporrandiñekoak ziran jo ta ke ebiltzanak, ikatz-zorrak ordukoxe ordainduta eukezala-ko, ta ganera etxebizitza barri bat erosteko tratuetan ebiltzala-ko. Beste batzun ustez, Ogimerkenekoei hurrik emotekorik ez zan, eurak erakutsirik ez emon arren. Ta Ondobiziñeko untzi barria? Honexek bai ekarrela bitsa! Astean-astea, zortzian behin ala sarriago etorria zan kaira eta beti beterik, hegaluzez plen-plen.

«Otoiop» bere, ondo baino hobeto hasi ei zan hegaluzetan, ta hori, ezbeharra zala-ta, Txanton lemazaina legorrea geldituta.

Geroago, hortik urten eban Zinguliñen autuak. Honen emaztegeiak ei eukan egiten sekulako arrio ederra, ez dakit nik zenbat izara ta badakit zenbat atorra ta praka labur... Mariñe, Besolodiñeko alaba zaharrena bera.

Hurrengo, egun batzuk lehenago auzo-herrian izan zan erromeriako kontuak eta erromeria ostekoak. Dantzaketa harretatik asko bai asko beranduegi barik etxeratu ei zirean, batzuk oinez bidebarritik, beste batzuk beribiletan etorriaz. Bainan... halako ta honako, urlia ta sandia, bidezaharretik eta zidorretatik bere, ibili ete zireanekoa. Behartu ezker, esango ei zituen izen ta abizenak be. Han, Zerengapean, ibili ei ziran bai, gaberdi inguruan edo ...-neko<sup>4</sup> neskatilea ta haren adiskide ...-neko<sup>5</sup> be; ta mutilak ez jakin herrikoak ziran ala kanpotarrak.

Orduan hasi zan eztabaida gogorra. *Debate*-aldi, nunbait.

Sargori astun geldiaren ondoren hasi ohi dan erabateko galarren haize indartsua zirudian.

---

<sup>4</sup> -neko: Urlia(re)neko.

<sup>5</sup> -nekoa: Sandia(re)nekoa.

Errekan egozan guztiak talde bi egin zituen, gehienbat, targo<sup>6</sup> bitan banandu ziran, batezbateko edo neutralak guztiz gitxi izanik. Batzuk aitaturiko neskatilen izen onaren alde, horrelakorik sinistu be egitea irain gordina zala adirazoaz. Eta beste aldekoak, hori ta gehiago be, premina haundirik balitz, mundu guztiaren agiri, egiak zirti-zarta esateko bildurrik ez lotsarik ez leukeela izango zinoenak.

Makalenak, eta lotsakorrak isilik egozan.

Nahaste ta iskanbila haretako talde edo alderdi bie behingoan agertu jakezan bakoitzaren buruzagiak. Kukurruku ta garai egiten ohituak egozan oilartzakoak.

Salatarien saileko buru, Artazitzuneko bizialarguna. Izen onaren aldekoen buruzagi, ostera, Mikela ta Timuti jarri ziran.

Arteetan, ez dakigu ziur ziur, izena hain zuzen ez eben aitatu-ta, ez bata zein neskatxa zan ez bestea ere, nungoak ziran bakar bakarrik. Zehaztasun horren ardurarik behar ez-ta, begoz izenok isilean.

Ekinaren ekinaz —nork jaso han esan ziranak guztiak, manetofonikaz izan ezik—, bai aldra batekoak eta bai bestekoak aspertzenago ta moteltzenago joiazan, banaka-banaka isilduaz.

Azkenerrako, hiru emakume zorrotzen gain gelditu zan buruko edo gueneko eztabaidea. Buruzagiak ziran, izan bere, amaierako ezpatalariak.

Neskazahar biak batetik; eta bestetik Artazitzu.

Heldu zan, heldu ere, *thesis*-a argitu beharra, eztabaida gorena, zezio bakana.

—Bai. Ezta, herriko lagun guztiak ondotxu ezagutuko ez bagenduz be! —inoan bizialargunak—. Askok hemen, arpegia bai ona; baina... egikerak! Ai, alia, egikerak!

<sup>6</sup> Targo: talde, alderdi.



—Inoren egikerak ezin leiz, askotan, zelakoak izan diran esan, ikusi edota ondo jakin ezik behintzat —erantzun eutsan Timutik.

—Ez daukagu ezer esateko berorregaz —gehitu eutsan Mikelak, atsoari sorbalda gainetik erdeinu ta destainazko begirakunea eginaz.

—Ba, nik, ointxe be, badaukat zer esan barri-barririk, zuek beti LO ta beti GOR zagozenok ez dakizuen arren.

—Ene! Hara osterakoa! Zer dakizula zuk, gero, guk ez dakigunik?

—Neuk zer dakidan? Hona, entzun, bart bertan jakin nebana. Azkenengo orduko albistea. Karrabasueneko andra gaztea, Durdukiñeko Maribizar bat eta neure burua, hirurok gengoan Artaloraneke etxaurretik ez urrun. Badakizue etxe hau, etxebakarra, nun dagon. Ba handixek urteten ikusi genduan gau beranduan Salome Umegiña, ta sasoi haretan eta leku haretan ikusteaz, harritu egin ginean hiru androk, eta zerbait susmauz, galdez joan gaiakozan<sup>7</sup> Salomeri:

«—Erdia, Salome, entzuizu. Nun izan zara edo zetan zabiltz hemen?

—Zetan nabilen? —erantzun euskun, eta honetxek dira haren berbak, Jaungoikorako!—. Neure ogibideko zereginetan. Hortxe etxeon<sup>8</sup> izan naiz, eta egun asko barik etorri beharko dot barriro be.

—Ene ba! —esan geuntsan—. Zelan etxe horretan zeure arazoak giten, hor neskabila bat baino ez da bizi-ta?

—Neskea? Ez jagon hor orain neskarik. Gabonak baino lehen galdu zonan.

—Zer dinon? Artaloraneke Trini...

---

<sup>7</sup> Gaiakozan: gintxakozan, gintzaizkion. Iraganeke balioaz.

<sup>8</sup> Hortxe etxeon: etxe horrexetan.

—Sasilora esatea, egokiago litzaken, nunbait be...! Tira, ba, androk; gabon bat deigula gure Jaungoikoak.»

Ta horixe esanaz, joan zan joan Salome, gehiegi dan berbarik esatea ez jako hareri gustaten-ta.

Erreka osoan mundu guztia isildu zan.

Iturriak bere, hertsi edo zarratu egin zituela esan zeitekean<sup>9</sup>.

Entzungarria ta ardurazkoa zan, beraz, Dekanoaren epaia.

—Laster arin jakin genduzan ganetiko kontu ta zehetasunak —jarraitu eban patxaraz ta maisukeraz, argi ta geldiro, ikasguko lagun guztiak adi-adi egokiozala konturatzean—. Erbestean egoan aspaldion haren nebea, Trinirena —azaldu eban Artazitxuk—, eta bart bertan, etxeratzean eta bere arreba ezkongea itxura haretan —astun ta tuntur— ikustean, bertan jo ta garbitu behar ebala-ta, gogor bai gogor hartu ei eban. Ta orduan, neskea didar ta garraixika kaleko leihoa edegiten hasi zanean, etxetik iges egin ei eban haren nebeak. Baina gero, arrebeaz errukituta, Salome bialdu hari lagun egitera, ta jazorikoaren zertzelada guztiak behar dan begiramenez jakin eta berberari adirazo egikiozan<sup>10</sup>.

—Ta hori hemengo inork be, ez dozue jakin —esan eutsen Artazitxuneko bizialargunak inguruko guztiei, ahoa zabalik eukazan inguruko entzulei harro-harroki begiratuaz—. Baina are gitxiago dakizue —jarraiki eban— mundu honetara laster jatorkun sein errubagearen aitatzakoa nor dan, dinoenez behintzat. Horretxegaitik esan dot ba, nik ba, askok arpegia ona, baina egikerak...

Eta Artazitxu atso barrabanak bere entzuleak isil, otzan

<sup>9</sup> 1958: zeintekean.

<sup>10</sup> Egikiozan: egiozan, ziezazkion. Balio subjuntiboz.

ta eskurakoi jarri zituala igarri ebanean, jaurti eban, jaurti guraz eukana:

—Badakizue nor dan aitatzakuori? Arrantzale kolore gorri, begi zuri bat. Izenez, Xirido.

—Guzurra be, berbea da-ta! —didar egin eutsan Timutik.

—Holakorik entzuteko be! Zelan dinozu inon izenik, egia dan ala ez jakiteke —zirika ekin eutsan Mikelak, erreta.

—Atso sorgin guzurtia!

—Hamaika hamaika ta erdiko ibili izango ziran hor!

—Ez da guzurra, kontxo! —inoan atso piperrak.

—Zure ahotik beti be, sugeak eta zapoak urteten ikusten ohituta gagoz-ta!...

—Gauza zindorik edo garbirik sekula esan ete dau, gero, berorrek!

—Garbirik? Ez esan, ta ez egin. Bere antzekoak dirala guztiak uste dau horrek.

—Zer da ba nik egin dodana? —oihu egin eban atso nabarmenak.

—Zer egin? Talako Sankuan atzeko ormak berbetan balekie!...

—Bai horixe! Ondarزابalekoak balekie be!...

—Nik gauza lohirik? —atsoak gero ta estutuago.

—Nork ba, zeuk baino? Entzuizu: zeure gizontzakoa be, edo gizontzako zenduana be, nundik nora hartu zenduan eta nundik nora aldendu?

—Neeek?... Zuek baino garbiago daukat nik barrua, ta soinekoak, be bai, ganeko zein azpiko! Ikusi, ikusi!... —ta hori adirazoaz, gonak jaso, eta azpiko gona zuri ta atorra muturra erakutsi nahi eutsen han inguruko emakumeei, horre-

lako nahaspiletan arranegitar andra lotsagabe *batzuk* egin ohi ebenez.

—Bai, zalea don errotaria!...

—... arto ordez, emoten garia.

—Turrit!!... —esan eutsen azkenean neskazahar «letradu» biak atso gaizto zimelari—. Hemen gagoz gu neskazaharrik, horixe bai, baina geure iztarrak inork ikusi, ez ikutu barik!

Mutilak! Une honetan hasi zan benetako ekaitza.

Batzuk atsoaren alde zerbait egin nahirik, gehienak haren kaltez, egundoko zaparrada, nahaste ta iskanbila sortu eben. Hango irain, destaina, ezespén, erdeinu, garraixi, didar ta baita zantzoak be!

Bat-batean, horraitino, teilatuan zehar edo, trumoiaren antzeko zarata lodia entzun eben, burrruun!... burrrun!... eta gero, plausta!, gauza handiren bat edo luzeren bat jausi zan erreka erdiko askako uretara, baztarrak urez ta txipriztinez beteaz!

Ene penea bada-ta!... Zeruak ete etozan goiak behera?

Orduko ikarak eta estutasunak! Hango bildur-izu, txilio ta didarrak!

Berehalakoan amaitu zan eztabaida gordina.

Zer zan jazo zana? Zer zan jausi zana? Pinu-anpor luze bat, bilin-balaunka teilatuan behera. Zerutik jausi ete zan — Jovis-en ta ugarasioen<sup>11</sup> eztabaida barriratua—, andra lotsagaldukoen mingaina atertu ta isil zedin?

Bai zera! Emakumerik gehienak ate ondora heldu ziranean ezin ikusi ahal izan zituen han urrunean orduko, arineketan joiazan lau txerrenkumak, Basotxurako bidean zehar; harako Aken, Zozpal eta beste mutiko biak.

<sup>11</sup> Ugarasio: igel.

Mutil bihurri haei bururatu jaken okerreria, ondore onekoa ta onuragarria izan zan, atsoen barriketa likitsa eten erazoteko.

Ta bihurrikeri horreri esker, ez zan egun haretan, Arranegiko errekan, odolik isuri.

Baina, norbaiten izen ona bai, zikindu zan edo...



## XVIII ORBANA

Zinguliñek emon eutsazan goraintzi-agurrak zirala-ta, egun bi edo hirutan, amesez beterik bizi izan zan Zuriñe.

Egia gozo bihurtuko ete ziran barruan erabilezan gogoe-tak? Halakoren batean, bere irudimenako zerak, izakera itxu-raz jantziko ete ziran? Edota, zakur-ames edo katu-ames bihurturik, hutsean geldituko ete? Bere uzi, joran ta gurariak loratu ostean, antzu aldatuko?

Aita geisotu zanik harrezkero, ez ebezan etxe hartan entzun, lehenago ohi ziran kanta samur atsegingarriak. Kabi hartako txoria mutu edo mintzul gelditu izan bailitzan, txinta guragarri ta txio soinuen ordezt, isilikako oihartzuna besterik ez zan nabari inguruan.

Bainan aitaturiko egun bi ala hirutan, barriro bere, soinu alaiak, kanta zoragarriak entzun zituen hormarte hartakoak. Ostera be, txoria, lehengo senera ta taiura itzuliaz, aintzina bezin pozkiro, inoiz ez ainako doinu pozkorak jotzen hasia zan.

Gazteen ta umeen jokabide ta ibilerak zaharragoi ta gurasoei barrenean zirkin ta zaustada eragin ohi badeutse, egun hactan etxeko senar-emazteai ere, gogo ta bihotzak zuzpertz ta jaso erazoko eutsezan, nunbait, alaba maitearen kanta liluragarriak entzutean.

«Nik badut maiteño bat,  
ai, eta zelako!  
Ez da tipi, ez da handi,

bai bien arteko.

Begia dau ederra, argi, gozo, urdin...  
bihotzean sartu jat, ta nik kendu ezin.»

Etxeko zereginak egiten zituan bitartean, alde batetik eta bestera, sukaldetik eta gizategira, eta gela batetik bestera, bizilekuaren lau aldeetan ebiltzan txoriak, txori alaiak,... inguragia samurtasunez gaindituaz.

—Gure neskeak darabilen aidea! —inuan Iñesek—. Aspaldion ez dogu, egia esan, gurean, holako kanturik aditu. Auzoko kardantxiloaren hots zoliak hutsa dira gure urretxindorraren ondoan. Urretxindorra esan dot, gero? Tira ba, urretxindor-eme kantaria orduan... Holakorik!

Barriro be, neskatilearen ahots bigunak ziharduan:

«Ene mutil ederra,  
nire gogokoa,  
aspaldion zaukadaz nik  
txito urrundua,  
laster helduko zara  
txiker da mundua!  
zuretzat dot bihotza  
maitez lurrundua...»

Barruan poza ganezka dogunean, gure kolkuan zorion-apurrak irakiten diharduenean, holantxe urten ohi dabe urten be, atseginaren iturburutik eresizko iturriak, kanta mehe, intziri samur uxterren igesiak, harako atsekabe-aldiko taupada makal ta guztiabeharrekoak urrundurazoaz.

Amesezkero habia txairo egiten ziharduan Zuriñek bere barruan. Zori-egokerako egun argiak zituan. Aste erdi ez zan zalantzaz ta kezkaz bizi zala. Harako gauza ezezagunak beregan toki ta bazter-txoko aurkitu eban, antza.

Arestian, aurtemeen, maitetasunari nor zan galdezka ekin utsal neska politak, bere barrena maiteminez edo ebala sinistuten eben. Besterenganako zaletasun bizia, joera berezia,

isurki ezagun ta jita, bere baitan ekusan Zuriñek egun haetan. Inorentzako leraz egotea zer zan ez ekian neskato pertxentak, zio ta errorik baeban bere gain, argiro; ukatu ezina zan hori.

Edertasuna, dirua ta indarra gordetea ez ei da lanbide erreza. Ezta, arean, maitetasun-grina estaltzea bere.

Eta horregaitik, ez ziharduan neskatxa harek bere amodioaren agerpena gordeten. Bestera ziharduan: abesti zoli entzungarriez adirazoten eban bihotzaren esangurea.

Zuriñek norbait maite eban. Errotik, sustarretik, barruko gunetik ete? Negu-ondoko lozorro ostean zuhaitzak esnatu, esnetu ta itzarri ohi diranez, loraz ta orriz, hostoz ta liliz, heze, apain ta mardul agiri zan, nunbait, neskato arrasoilaren<sup>1</sup> bihotz-kuskua.

Zuriñek Xirido eban maite. Arrantzale lerdan, gazte begiko, kolore gorri, begi zuria.

Azkenengo ikustorduan hain berariz hitzegin eutsana; gueneko itsasoratean, egundoko txera samur ta agur beroa egin eutsana. Harako irribarre gozoak, harako begirakune samurrak zerbait adirazten eban.

Eta orain barriro be, urrunetik, goraintzi bizi-biziak bialdutako mutila,... haxe, eban maite.

Zerualdeko atadian egoan, ausaz, Txantonen alabea, zoriontegiko atea erdikusten ebalarik edo. Azkenean, sirats onak aldameneko laguntzat ekarri nahi eutsan berak nahi eban norbait.

\* \* \*

Mundu hontako adua, makurra, oster! Ez izan ba, erbeste teko negar-ibarrean gure amesak, osoketarik ez betegunerik. Ez dau izango, ez —eguno, izan ez dauan lez—, gizonaren lilura orok giaren jantzirik.

---

<sup>1</sup> Arrasoil: ulehori.



Ez dago, agian, gure eskuan hamaika bideren mugarik, ez gure asmo soiletan gertakuntzen oinarririk.

Errekan esandako ahobeteko berba gordin eta esakera liksak lasterrean zabaldu ziran herrian. Hango albistak isil-misil, belarririk belarri barreatu ziran. Antzinako esakuneak esan, ba, badino-ta: «Guzurra esan neban median, neu baino lehen zan herrian...».

Garaitikoen entzumenetara bide egiten ondotxu dakie gizonen hitzak.

Arratsalde belua zan.

Itsasaldeko etsaritik<sup>2</sup> sukalderantz joan zan Zuriñe.

Ama kanpoan zala-ta, sutondoan egiten ziharduen jatekoai jaramon egin nahirik joian. Gelarte edo pasilua iragotean, zurubian, eskilaretan berba-zurrumurrua entzun eban, eta emakumea izanik, jakingureak gehiago egin eutsan. Atea edegi barrik, geldi lotu zan, zerbait entzun nahirik, asnasea isil, belarriak adi.

Mailadian, auzoko emakume bik autu jardunean ziharduen.

Hitz banakak baino ez zituan jasoten. Ezin ezelan be, hariarik hartu andren arloari. Alperrik entzumena erneagotu.

Horraitinoko, zeozer entzuten, edo aituteko berba batzuk hartzen hasi zan.

«Artaloraneke neskea... neba zaharrak hil nahi... tuntuixa... hamaika hamaika ta erdiko!... gitxien uste dana.»

Hitzok alkarregaz jostea ez zan lanbide argia izan lehenengotan. Bainan, emakumeen berezko zerak ulertu erazoten ekian, arrannotan.

---

<sup>2</sup> Etsari: egongela.

Azken hitza bai, argiroegi, lar zorrotz jaso eban neskatzak. Bala indartsua bailitzan, zital, mingarri zaztatu jakon barru-barruan.

«Xirido... ete danekoa.»

Ez dakigu, zorigaiztoak hartuta, bertan zelan jausi ez zan luze, neskabila errugabea. Ezin jakin nundik atarau eban indarra ta kemena bere gelaraino heltzeko, eta han, ohiaren ganean bere burua bertanbehera uzteko.

Ez eutsan, halan behar-ta, barruak leher egin. Ez jakon bularra urratu ta edegi, ez bihotza erdibi eginda gelditu.

Nahikoa mirari izan zan bizitzagabe ez lotzea. Arnasea, betiko ez etentea. Odolaren takadak sekulakotz ez atertutea.

Neskatila maitemindu barria! Zerk ekarri deutsu horrelako sari txar hori? Zer egin al dozu, horrelako esku-erakutsi doilorra zureganatzeko? Zelako bezuza<sup>3</sup> zirtzil ta zekena egin deutsue adu ziztrin erraiabakoak?...

Zelan, ostera, gizon guztiak guzurti alenak izatea? Aintzina Salomon erregeak esana, egia biribil ete zan, mendeak mende, betierekotz, gizonen artean?

Zein musika ilun baltz minezkok egiten dau orain durundu zure belarrietan, Zuriñe eder?

Norberak maitatu izan dauan gizon gazte batek, zelan, baina, horrelako petralkeria okerrik egin? Hain andur<sup>4</sup> eta doilorrak ete, gizasemeak?...

Maitetasunaren arantza, oinaze ta atsekabeak! Zer dala-ta horren goiz agertu, maite-ertzia gozartuten hasteneko<sup>5</sup>?

---

<sup>3</sup> Bezuza: opari.

<sup>4</sup> Andur: ziztrin.

<sup>5</sup> Hasteneko: hasten daneko.

Benetan ete zan, Ume Itsu horrek, gizaseme-emakumeak, bazterrik bazter, zauriz beteten ziharduana, egun eta eguzki? Cupido hori, itsua izanez gainera, gaizto anker purtzil baino ez ete zan?

Bai, maitetasuna ez zan ziur asko, atsegin-baratzeko ate zabal, paradisuko sartzeiera<sup>6</sup> apain.

Maitetasuna odola zan, zauria, mina, heriotzaren deia. Madarikagarria ete zan?

Ai, ei, ai, eta miletan ai! Neska zoragarria atsekabe latzaren jopu<sup>7</sup> bihurturik dogu; oinaze ta saminaren mirabe ta jostailu, agian.

Ilunabar hartan, zerealdea oskorri ezarri eban eguzkiak, bere orduko azken txera adiguritsua egitean. Oskorri, hegohai-ze errearen zantzu ta agerkai.

Ortzialde odoltsu harek, Zuriñeren maite-zauria zirudian.

---

<sup>6</sup> Sartzeiera: sarrera.

<sup>7</sup> Jopu: morroe, menpeko.



## XIX

### UDAKO EKAITZA

Ilunabar gorritztearen iragarpenak egia urten eban osoro. Gabaz sartu zan hegohaize biribilaren indarrak ez ziran makalak izan. Eten barik ekin eutsan gau osoan puzka. Zabalik aurkitu zituan leiho ta balkoe-ateak edertotxu astindu zituan.

Blisti-blasta entzuten zan egur-hotsa han, hor, hemen. Eta noizean behin bateko edo besteko kristal hausien kliskadea, lehenengo hausten zan lekuan, eta hurrengo, kalean, beheko harrietara jaustean. Teila banakak eta tximini erdi-lokak ere, tutarrez<sup>1</sup> jo, ta eratsi<sup>2</sup> ta errotik atarauaz, egundoko zaparradan joiazan lurreraino.

Hamaika lagunen loa galerazi eban, haize zatarraren amaibako burrundara harek. Umeak lo egin eben nasai ta ederto, umeen lo bedeinkatua uixatuteko laingo haizerik izan ere zorionez gure lurraldeetan izaten ez dalako. Baina umezaroari aintxinatxu agur egindakoak, luze bai luze iritzi eutsen udako gau labur samar hareri.

Eta norbaitek, luze ezezik, gau larri haren iraupena betikotasuna ete zan behin baino sarriagotan galdegin eutsan bere buruari.

Nor zan errukarri hori? Nor izan zeitekean, ba, Zuriñe baino besterik?

---

<sup>1</sup> Tutarrez: oso-osooan, bete-betea.

<sup>2</sup> Eratsi: behera bota.

Atsekabe handiak negarraren bidez arindu ta ibitu ohi diranean, hainbestean egoten dakie gizasemeak. Ostera, negarrik eskatzen ez dauan oinazea, begiak iturri bihurtu ezinik, legor ta idor daukazan samin erre zitala, nork eta zelan arindu? Nundik eta nora samurragotu? Zein era ta jokabidez bigundu?

Gogorra da benetan, malkoak isuri-ezineko oinazea.

Begiak lakar, idor ohi diranean, samina sumin bilakatu ohi da, atsekabea hasarre, oinazea gorroto.

Gizonaren bihotza izan ere, osin sakona da, leze zingotsua, aintzira malkor, zolik bageko zulo, ondorik ez dauan itsaso.

Maitasunaren katai mehea eten ohi danean, eta zio astun larriz egin ere, ikusiezinaren irudi motz ta ezainak<sup>3</sup> laster baino lasterrago dakiz erakusten bere belarri ta begitarte iguingarriak; laster egitan, gorrotuaren antzeko taiu zirriborroduna agertu izan ohi da gure bihotzetan.

Baina ibai guztiak ei dauke euren amaia; gau guztiak euren biharamon-goiz txoria, argitsua.

Ta halantxe izan ere. Egunsentiak ez eban hutsik egin.

Astiro-astiro etorren Argimutil nagusia, tontorrik tontor, muinoz muino, ibarrez ibar, gau bildurgarria urrezko izpi beroz uixaturik, bazterrak oro pitxiztatuaz. Artean, baretu samar zan hegohaize indartsua.

Zidarrez dirdai agertzen eban itsasoko urak bere bizkarra, eguzkiak jaurtitzen eutsazan mun eta laztanekaz. Ispilu apain hartan ikusten eban bere burua harro harro, eder, eguzki musu zabalak.

Zerualdea soineko panpinez atondu zan, oso oztin<sup>4</sup>,

---

<sup>3</sup> Ezain: itsusi, motz.

<sup>4</sup> Oztin: urdinzuri.

dundu<sup>5</sup> oro, alderen alde, hodei garau batek ere orbanik txikiena egiteke.

Giroa, berosko zan, ostera. Eguantzeko epel-behar harek, egun astun, bero, larri, kiskalgarriaren atadi zirudian.

Eguzkiak, Talaia zaharrean gora agertu zanekoxe, argi urratzeko sasoi baina eguerdi aldeko galda-antza gehiago eka-  
rren.

Bero egoan kalean, bero etxeetan; haize gorriskatua itsas-  
egian ere.

Eta lehen bihotz zoribete izandakoa, zauri bizi, minez  
errea bihurturik. Lore-kusku mardul hezea, lorrindutako lili-  
-orri zimel egin-hurren.

Zuriñe gaixoa! Nundik eta nora bilatu dozu orain, zeure  
ames-bizitza ipui-kutsuzko hori, goizetik gabera maskildu ta  
txigortu daikezun<sup>6</sup> eden zitala? Zein adu, siats, azturu edo sor-  
ginek egin eutsun begizkoa, honen goiz ezereztuteko, zeure iru-  
dimen-bihotzetan erro barri zan gurari gurbila<sup>7</sup>? Habea etc  
eukan zorigaiztoko haberen bat bere sendiak, aitaren ezbeha-  
rraren ondorik, alabearen oinaze bizia agertzeko?

Erdiloak harturik egoala entzun zituan egunabarreko  
kanpai hotsak. Begiak zabal-zabal edegi zituan Zuriñek. Tau-  
padaka hasi jakon bihotza, zertzuk kanpai ete ziraneko arren-  
kuraz, baina bederatzi dangaden ondoren txilin-txilin zolia  
hastean, osoro itzarriaz, bere artean: «Ene ba! —esan eban—,  
egunsentia heldua da honezkero; aingeru txilinok gaur larun-  
bata dala adirazoten deustelako. Laba gori izan jat gau osoan,  
bestetan kabi gozo izaten jatan ohe biguna. Txilinok baina,  
deiez daukadaz, nire nagī alperren zirikatzaile ditut, neure

<sup>5</sup> Dundu: urdin, azul.

<sup>6</sup> Daikezu: diezazuke.

<sup>7</sup> Gurbil: zuhur, artatsu.

deitzaile, neure aspaldiko adiskidetu beti bai beti adiguritsu, erreguz ta xteraz diharduenok. Jagi nadin, eta noian, atsekabetu en atsegin, mingostasunen ezti-abaraska dan Andra zoragarrigana; noian haren oinetara, eta haren magalean ta altzoan ahaztu erazoko dot ohe honen berotasun kaltegarria. Ta nire zanei darioen inpernuko sua, han beraatu<sup>8</sup> ta hozkirriantzeratuko<sup>9</sup> al dot.»

Horixe esan eta ohetik zapart eginaz<sup>10</sup>, lehengo intziriak amaituaz, behingo batean jantzi zan Zuriñe, ta amari eleizara joiala adirazirik, etxetik urten eban.

Baina, benetan bere, sua ez egoan ohe barruan. Ohea laster hotzitu zan, antza. Berak eukan sua. Haren gorputzean sukarrak dantzak dantza egiten zituan; ta geiso-jorik eukan, nunbait bere soina, begiak distirant, inguruak baltz-ubel, odolaren tintina aguro baino aguroago.

Kalera bizkor urten eban arren, ez zan errez elizaratu. Halako astuntasun bat ebilkion burutik behatzetara. Haizearen epela ta barruko garra gora-behera, hozkirri ta hotzikarantza suma eban beregan. Haxe bai gorputzaldiaren latza!

Eleizea noiz edegiko begira egozan, orduko, atso goiztar batzuk. Alkarrengana batuta autuan ziharduen. Zuriñeri, bakar-bakarrik egoteko gogoa gehitu jakon; baina bere senak eraginda hots batean eretxia aldatu ta atsoen aldera joan zan, haren esanbeharraz jabetu nahirik.

Gabeko haize bolada izugarri harek egin ei ebazan egitekoak! Hasi behetik eta goraino, teilatua ia amaitu barri eukan etxea, su ta gar, lau hormak ez besteak, etxe osoa ta alboko olabea, serra ta anporrak, erre ta kixkali egin ei eutsazan

---

<sup>8</sup> Bera(a)tu: apaldu, bigundu.

<sup>9</sup> Hozkirriantzeratu: hozkirri antzeko egin, freskatu.

<sup>10</sup> Zapart egin: salto egin.

Jon arotzari, Basotxura bidean, inork ezer egiteko astirik bage, hots batean.

—Jaungoiko errukiorra! —esan eban hagin artean neskatila izutuak—. Zer ikusi beharrea ete gagoz? Zoritxarra besterik ez jabilkit inguru-minguru. Nunbait ere kalte-zaiki edo galordepe euki izango eban Jonek, suaren arriskutik, baina, dana dala, ez datorkioz oker ta galtzaiak<sup>11</sup> makalak. Eta galordepe euki ez baldin badau? Hainbat txarrago. Ta aita gureak bere, bestelako nahigabea beraganduko dau, harako etxe-barri amesa eginda egonik!

Atsoen artean egoala, edegi ebazan ateak, goiko ta beheko, eleiz jagoleak ta bata besteen ondoren sartu ziran andrazkoak eta gizon banakaren bat elizara.

Aintzinetako irudi maitagarria, Andra Mariaren irudi zahar miraritsua, argiz inguratutik, agirian ipinia egoan, estalkioihala jasota. Apaizak urten eban gelatik altzarantz, albakuko mezea<sup>12</sup> esateko.

Txantonen alabea, hotzikareak eraginda belauniko egon ezinik, jesarri egin zan aulkian, eta etxera joateko asmoa hartu. Ez eban nahi, ostera, Ama zerukoari etxean eskeinitako arren edo erregua, bere oinetan auzpezturik, barriztau bage bihurtu.

Itsaso hasarreak bigunduten ekian Ama ahaltsuari, bere barruko itsaso asaldaua baretu egikiola eskatu eutsan, Zuriñek. Barreneko itsaso nahastau murgila, naretu, gozatu, emetu, ekurutu egikiola lehenbailehen. Eta herrian zabal zan laidu edo irain baltza egia baldin baledi, ez egiala, arren, inork ez inork jakin, berberak Xirdogana izaniko jita, joera edo eraspenna. Eta ostantzean,... bertatik argituerao ta garbituerao egia-

---

<sup>11</sup> Galtzai: galera.

<sup>12</sup> Albakuko meza: egunsentiko, albako meza.



la, bazterretan atso musker sorgin harek sakabanatutako guzur biribil, laidogura zikin, iraingogo makur zeitekeana...

Meza erdira heldutea neke handi izan jakon arren, gure Jaunaren zerutikako jatsiera doatsua berretu arte, hantxen iraun eban, bero ta makal, hotz eta larri; ta luzaroago egon ezinik, guenez aldegin eban Zuriñek.

Ez zan behingoan heldu etxera, ta orduan, ama jagita arkitu eban.

Haren hitzak entzutean, bildurtu zan ama, eta bertatik ohera crazo eban bere alaba maitea. Ohe estalkiak, berotu zedin, ugaritu eutsazan erruz, ta berehalakoan sua isiotuaz, kafesne erdi irakina edanarazi eutsan, txetxu bete kaina edo edari gogorrez onduta.

Ez zan, ez behingoan hasi berotuten neskatilea. Barruan beroaldia etenbarik eukala uste eban arren, sekulako ikaraz ta dardaraz ebilkion gorputza; hotzikareak gorputz osoa inarosten<sup>13</sup> eutsan.

Oinak bere, hotzak zituala, bonbila totolo, ginebra edari-gailu lurrezkoak ur goriz beterik, izara artean ipini eutsazan.

Handik geroetan, zerbait hobeto ei egoan. Eta igarri be egin barik lo samur batek bere besoetan hartu eban, nunbait.

Amak, osagileari hots egitea erabagi eban, eta gehiagoko barik kalera urten eban. Lehentxuago alabeak adierazia entzun eban: «Jon arotzaren etxe barri ta olabe barriak, suak ezereztu zituala».

\* \* \*

Madalen eta Irene ahiztak, Arranegiko zabalean gora joiazan, eta Zuriñeren amak berbaldi labur egin eban eurekin.

Ahizta biok Arantzanera heldutean, han aurkitu eben

---

<sup>13</sup> Inarrosi: astindu.

Jon ederra, guztizko atsekabe haundiz jausia, mandoak hilda<sup>14</sup>, eratsia<sup>15</sup>, isilik.

Irene, baina batez bere Madalen, hasi jakozan bere gogo erkindua indartu guraz.

—Lehen egin dauanak, Jon —esan eutsan Madalenek bero-bero—, barriro bere egin lei. Lehengo beste, edo behar bada, lehen baino gehiago. Ez da atzera begira beti egon behar, gerorantz baino. Ez daukazu, ba, zeri estutu horrenbestean. Gainera, merke samar baina, galordepe euki dozuz etxeok, eta ez da dana galdua. Apurretik egin ohi da mordoia, ta horrelan ba... aurrera, mutil. Ez, txotxo, horrenginoan larritu. Ekin barriren barri, Jon, geroetan be, ahal dauanak, esan ohi dan lez, Prantzian be, karabia egiten daki-ta!...

Eredu hortan, eta gero ta sutsuago ekin eutsan emakume harek mutil gaztearen adore galdua indarbarritzen. Emakumeak ohi dauan barne-lera, indar, kemen eta seta tinkoa, asmo sendo baten garra kolkopean irakiten daukanean! Hamaika ibilera, joan-etorri, akiakula ta jokabide badakie egiten andrazkoak euren txima ta uziaz garaitu arte!

Holantxe ziharduan Madalenek. Jonengana eban joera ta jita behinola igarri genduanetz, inoiz baino argiago ikusi zeitekean zoritxar ondoko goiz honetan. Eta joera ta eraspen hori guk baino hobeto ikusi ahal izan eban egun horretan, etxe hartan egoan edozeinek.

Madalenen berbok zaletasun-garrak eraginak baldin bazi-ran ere, goiz itzaleko ordu saminetan seme-ama-arreben biho-tzetan zeruetako mana bezin beratx, goitiko ezitia baizen guri, zuzpertzaille ta gozagarri izan ziran. Eta batez bere, zerbait gehiago ikusi eban, arteetan lainope egokiona: Madalenek

---

<sup>14</sup> Mandoak hilda: lur jota.

<sup>15</sup> Eratsia: behea jota, adore barik.

maite ebalá. Horixe ikusi eban Jonek, etorkizuna geroago ta argiágo ikusiaz batean.

Ezin eukean emakume adoretzu harek, gizonaeko kutunari barruan ikutzeko aukera hoberik itxaron.

Bihotz bigunberaak —barne gaztanbera ta buperak<sup>16</sup>— iretargi zuritan, isil-misil, izpi hits makalpean izaten ditue euren maitetasun inkesa ta hasperenak. Baina barru sendoak, gizaseme kementsuak, alkarbideetan bat egiteko, jazoera gogor ta gertari gordinak behar izan ohi ditue. Noraezko egoera latzetan gelditzen dira alkar-lotuak, ariurri sendoko gizasemeen bihotz-lokarri murtuak<sup>17</sup>.

Une hartan, halanbeharrez, otu jakon Joni ordurarteko maitekeri-hariak matasa bihurtzea zergaitik izan zeitekean; agian, okerreko asmo ta buruerak ziralako, egokiezak nunbait.

Eta berekiko jardunik, iraganiko gauzak gomuta zituan. Zuriñeri maite-eske ebilkionean —ez behin, bai birritan— maite-xintak<sup>18</sup> alperrikako izatea. Geroago, laster-bide amarutsua<sup>19</sup> aukeraturik, haen gurasoei eder egin beharrez ari izan zanean, etxe barri eskailera bakoa eskeiniá... Eta horra, asmo guztiak goikoaz behera, iruntzietara jarri.

Eta lehengo burubide ta xedeak aldatuárik, beste batengan pentsaten hasi; beste aingeru bat begiz jo. Iparralde barririk baegoala hauteman eben Jonen begiak.

Une hartatik beraz, beste anzkerá batez etorkion begininietara Joneri, Madalenen irudia. Arinkerizale ta haizez betekotzat eukan Madalen, berba zuhur, hitz eder ta ele zentzunezkoduna zala autortu behar izan eban mutilak, argi ta garbi, bere kolkoan.

---

<sup>16</sup> Bupera: delikatu, fin.

<sup>17</sup> Murtu: korapilotu, nahasi, txirikordatu.

<sup>18</sup> Xinta: txori-kanta.

<sup>19</sup> Amarrutsu: maliziati.

Ez egoan oker.

\* \* \*

Eguraldiak, ito jarraitzen eban. Sua erioen eguzkitan egozan harriei. Lurrinak igoten eban behetik gora. Oskarbi egoan; hodei zuri-ilun opilduak, borobilduak, bakanka, soil soilik.

Ezetariko haize putzik ez egoan. Txopo ta eltzun orriak eta arkazien hostoak ere, geldi ta bare egozan. Eguzkitan ezin zeitekean inor egon, bertan zorabiatuta edo buruko minez geldituteko arrisku bage.

Horrela joiazan joan, egun hartako ordu luzeak. Eguerdiko hamabiak, ordubatak, ordubiak, hirurak, laurak,...

Horraitino, gerotxoago, hodei kaxkarren ordez gero ta handiagoak, baltzagoak, gizenagoak, larriagoak, ilunagoak etozan, Otoio aldetik, Illuntzar aldetik.

Erabatera, otoz otoan, bapatean, haize zurrunbiloa hasi zan, eta lurrean egozan orri, papertxu, saskara<sup>20</sup>, zikin eta bizarrak bira-biraka hasiaz, egundoko haize-gurpil eta txirimolak egiten zituen kale zokondoetan, arbola-ondoetan, plazearen erdian; ta dantzaketa zoro biribilak egin ondorean, iges egiten eben beste leku batera, han be biribilketak egin ostean, barriro be hara ta horra joanaz, azkenen buruan sakon-une batean edo hondartzan edo uretara jausita euren sorgin-irradakoa, loka ta zoroa, bertan behera amaituteko.

Arteetan, kaian egozan arrantzale zahar begikoak laster bota eben euren ebatzia: «Han, galarrena sartu dau». Eta betozkoa jarriaz, sudurrak astindu ta ezpanak okertu.

Galarrena da udako ekaitza, hainbat eta hainbat gizon eder galdu dituana. Bizkaiko itsaskolkoak horren bidez jakin izan dau euskaldun arrantzale asko galtzen. Ekaitz zorrotz, bapatekoa; labur eta ankerra.

---

<sup>20</sup> Saskara: urak itsasertzera eroandakoari esan ohi jako.

Oraingo aldian, ontziak dituen makina bikain indartsuak dirala-ta, lehen baizen izugarri ez dan arren, galarrena beti bildurgarri, untziak, haundi edo txikiak, itsasoan diranean. Eta, holantxe zan, izan bere.

Gau osoan ta goizean ere bai, hegoi aldera begira egona zan kanpatorreko haize-orratz handiak, intziri lazkarria eginaz bira egin eban, Aixurdi ingururantz gitxi gora-behera geldituaz.

Etxeetatik urtenaz, emakumerik gehienak, Arranegikoak behintzat, kaiganeetan agiri ziran, etxean egozanez jantzita, inungo apainkeririk bage, ume batzuk eskutxuetatik ebezala, eta beste batzuk besoan dindilizka edota altzoan erdilo be bai askok.

Gizonezko zaharrak Tala alderantz joiazan, han urrunera begira parauta, geldi, adi, isilik egoteko, nun zer ikusiko, itsas irakinean enbarkazinoien baltzunetxuak nun susmauko.

Haize gogor harek katxoi zuri, beso apartsuak, koska bitsezkoak edonun-edonun agertzen zituan ur gain. Osoro ilundu zan, goialdea. Hodei baltz arre, ur lohiaren kolorekoz bete zan zeru ingurua, eta gaua bestetan baino lehen helduko zan, nunbait.

Talaia zaharreko tantaiak sekulako zanbuluak egiten ebezan, haizearen putz sendoak eraginda. Uginak, olatuak harrotu egin ziran, ta ugarte edo izaroa bitsez inguratu eben, euren bularrak edo bizkarrak geroago ta jasoago ta astinduago erakutsiaz.

Itsaskolko edo barran egozan jolas-ontziak (txuri, urdin, baltzak) ikaragarritzko haruntz-honuntz eta alamandak egiten zituen, begira egozanei tirabira egiteko keinuak zirala iruditue-razoaz.

Izugarria zan zeruaren, lurraren ta itsasoaren betartea, arpegia!

Kai-horma sendoen inguru ta babespean kataiez loturik eta arrankilea<sup>21</sup> jota egozan untziak ikustea bildurgarri baldin bazan, zer ete han urrunean, olatu edo bagak eskerga ta izugarri agiri ziran urrunean, inungo haizebe ez abaro barik, lokarri ez lagungarri bage, intxaurrezala bezin galerrez ta erkin egozan untzi ta gizonetaz? Zer izango ete zan marinel gaisoetaz?

Lehenago, honelako ereti zoritxarrekoetan bazan hementxe, hain zuzen ere, ekandu eder bat. Eskolumeak, irakasleak buruan izanik, aurretik agertoihal edo lauburu bat gora jasota eroiela, eskoletatik urten eta moilan zehar Talako Donianen elizatxu edo ermitaraino joaten ziran, otoiak eginaz, zeruari bake ta errukia eskatuaz. Euren guraso, anai ta herrikide ta enparaukoen alde, itsasoaren baretzea ta itsasgizonen etxeratzea, arren bai arren, erregu eginaz, guztia ahal dauan Jaungoikoari. Eta horrelan, sarri askotan esker eder esanezinak lortuaz.

Ekaitzak gero ta gogorrago jotzen eban.

Uginak harro, hanpatu, haziak, gora igoten eben. Urrunean banaka-banaka agertu ziran untzi batzuk, urrun ez egozanak, nunbait. Han ebiltzan, batean gora bestean behera, ointxe agertu, gero ostendu; azal bizian etenbako zauadak<sup>22</sup> eginaz.

Hodeiak tantaka hasi ziran, tanta handi, lodi, astun, usaintsuak jaurtiaz. Behingoan zaparrada mamin gizen gogor bihurtu ziran. Euri-truixuak<sup>23</sup> botaten ekin eutsan pare bat orduan. Tximista oineztuak ere ikusgarri ziran, eta nunnahi uriol ederrik agiri zan, kale guztiak urez beterik.

Untzi askok, lerrenak egin ondoren, lortu eben kaieratzea. Han hurretxuan ebiltzan potinak ere, *senperrenak*<sup>24</sup> ikusita

---

<sup>21</sup> Arrankila: aingura.

<sup>22</sup> Zauada: zabuka, kulunka.

<sup>23</sup> Euri-truixuak bota: euria goian behean ari.

<sup>24</sup> Senperrenak (ikusita): gorriak ikusi.

gero, baetozan kaieruntz. Beste untzi asko, hurren euken porturantz joan izanak izango ziran, nunbait.

Ahal eukean untzirik ez zeitean<sup>25</sup> legorrera barik geldituko. Batzuentzat, ordea, ezina izango zan tamalez.

Galarrenak ez dau inor adiskide ez magaleko.

Ahaleginez ez bedi inor itsasoan geldi, halako aldietan urak egundoko ahoa zabaltzen daualako, bere erraitera hamai-katxu untzi ta gizon irunsi nahirik.

Erbesteko portuetara jo ebenak, urrutizkinez azaldu eben laster be laster euren egoera, nun eta zelan egozan adierazoaz.

Barri pozgarriak bala-bala, tximistea baino lehen zabaldu ziran herri osoan, bakoitzaren etxean ta guztienean be bai, poztasuna nagusiturik. Gehien-gehienak onik eta osorik egozan.

Untzi bat horraitino, galdu egin zan, untzikoak, batto ezik, onik urtenda.

«Otoiopo» zan inungo kaiera azaldu ez zana. Itsasoak irunsi eban bere lemazain ta guzti. «Laba» gizaisoa, bere bizitza osoa itsasoan emonda, bere zaharrea hantxen hobiratu zan, laguntzar bateri mesede egitearren.

---

<sup>25</sup> Zeitean: zatekeen.



## XX

### KANPAIAK

Ezbehar handi bat hartu badagigu; zoritxarreko gertaeraren batek gure bizkar-gane harri astuna ezarri badagisku, ai orduan, hurrengo letorkiguzan atsekabe ta okerrak ere, nasaia-go, bareago, egonarri handiagoz, patxada ederrez hartu eta jasan ohi ditugu.

Zorion-antzeko biziera baketsu ta goserik bagean iraun dagigunean, lehenengo oinazea —nahiz eta arin xamarra izan— azta<sup>1</sup> larri ta pixu astuntzat etsi ohi dogu.

Horrelantxe, patxadaz —lehenengoa ez zan-ta— hartu eban, bada, Txantonen sendi zintzoak ere, euren untzi-galtzea, «Otoiope»ren hondapena. Lehendabiziko oinazea, haren eria edo geisoa izan zan. Gero, Jontxuk eskeinitako etxe barriaren azken negargarria; ta batean, Zuriñeren ondoeza. Eta orain...

Kaleko zurrumurrua laster arin jaso eban Iñese etxekandra zuhurrak. Eta Zuriñe hobetoago egoalarik, honeri adirazi eutsan, bere senarrari baino lehen, munduko mila gauzen joan-etorriak halantxe zirala-ta, gertakune neketsuak aurrera ta ondora heldu dakiguzanean, gure bihotza ta barrua gertu ta adoretzu izan behar ditugula erakutsirik.

Handik gerora, eta inor etxera etorri baino lehen, bildur izua hainbestekoa izan ez egian, bere senar Txantoneri apurka-apurka jakin eragitea erabagi eban. Egonarri handiz ta jakituria gelgarriz<sup>2</sup> jaso eban Txantonek barri gaiztoa.

<sup>1</sup> Azta: zama.

<sup>2</sup> Gelgarri: ikaragarri, txundigarri.



Argitasun berarizko bat bialdu eutsan, nunbait, Goiko Jaunak.

—«Laba» zintzoa —inoan Txantonek—. Nora joan haiz neuk aginduta, noraino joan haiz gehiago ez bihurtzeko? Eure ta neure kaiari betiko agur eginik! «Otoiop»ren lemazaina neu nintzuan, neu izan nok beti, eta aurtengo atunetan eu joan bai-zen laster, agur eginaz aldegin deustak «Otoiop» ta guzti. Aita gure eder bat esango jeutsut<sup>3</sup> heure biderako lagungarritzat; betikotasun-egarriz, hemengo gauza guztiei etxamon eginda betiko kai eder bare baketsu eta ekaitzik bakoan sartzea, lehenbailehen lortu daikan!

Biharamonean, kanpaiak hilarra jo ebenean, sekulako zauskadea egin eutsan Txantoneri bere gorputz osoan.

Don, dan, din! Don, dan, din!...

Hilarra erbestean edo itsasoan hil ala galdutakoari joten jakon hiltamuko kanpai-hots bereixia da; oihartzun itzal eta lazarria sortzen dauana, entzule guztien bihotzetan.

Eta Txantonek hilar haxe berea izan zeitekeala sinistutean, zeruko Jaunari eskerrak emon beharrean egoala adirazi eutsan bere emazteari. Beraren hilarra, zinez ere, hilabete lehenago heldu izan jakon geisoa, heldu izan ez balitzakion.

—Hondatu da «Otoiop», itto da ontziburua; baina... Txanton oindino bizi da. Nork daki gero jakin, gure Jaunaren zador<sup>4</sup> ta ezkutuko gauzarik?

Egia haundia arrantzale jator haren esan hori. Zeinbat bi-dar oker txiki bategaitik estututen garean, sarri askotan geure onerako izan ete leitekean, buruak horrelakorik emon bere egin gabe?

<sup>3</sup> 1958: Yentzut. Deuat, diat.

<sup>4</sup> Zador: sekretu.

Bai, Txanton bizirik egoan. Alabea ere, makal samar bainan ez txarto. Emaztea, oso onik. Untzia ere, kalte-zainak kalte-ordeazkoa emon ezker... Diru ederrak irabazteko ereti ego kienean galdu zan arren...

Untzi-jaubekidea, Egiluz gizon pozkarria ta Koiskorreneko gizon gaztea heldu jakazan etxera untziazko gorabeherak erabagitera, jazoerak eta gertakariak arratsalderantz zuzendu orde z beti egunsentira, argiaren etor-iturritantatuaz; euskal arrantzalearen gogoia eta izakerea zehatz ezagunerazten dauana, horixe dalako: Itxaropena.

Bai esakera eder baino ederragoa dala gure portuetan, untzia ezetariko arrainik hartzeke, kaiera hutsik bihurtzean, eta ezer ekarri daben galdetzean, gure kaiganeko emakumeak nasai ta egonarriz erantzun ohi dabena:

«—Bai. Jaungoikoaren grazia!...»

\* \* \*

Hilarra jo ta hurrengo egunean, galduaren arimearen aldeko elizkizuna izan zan. Gorpulorra edo lurremotea egin ezin danean, hildakoaren etxetik urten ohi dau aoku edo hileta-gizataldeak, abade bat baltzez jantzia buru dala. Honen jarraian gizonezkoak joaten dira, senide guztiak, banan-banan, apaizaren orpoz orpo eta gero garaitikakoak, aldran. Bitarten, hilkanpaiak jo ta jo ekiten deutse.

Ordu hori baino lehen, Txantonek etxetik urten eban, geiso-ondo z lehenengo aldiz. Etxekoak gura ez eben arren, bakerik izango bazan, lagatea baino beste zereginik ez eben izan-ta.

Txantonek, laguntzar maiteari eleizan bertan otoiak eskeintzeko gogoia ebalako, hantxen, eleiza aurrean itxaron eutsen abade ta gizatalde izugarriari. Kaleak betean joian gizonezkoa ez zan makala; herri osoa eleizondora batu zala esan zeitekean.

«Laba» zintzoari agurra, betiko agurra.

Txanton, makila bat eskuan, txapela bestean, burutsik ta zutunik ta bakar-bakarrik ikustean askoren bihotzak samurtu ta beratu egin ziran, eta beste askoren begiak negarrari emon eutsen, haek lako adiskide kutun bi alkarrengandik banandu ezinik ikustean.

Adiskide zintzo izanak, herio-orduan ere horrelakoxeak ziran!

Alkar maite dabenen bihotz-arimeri banandu beharreko unea heltzean zer gerta ohi jaken esatea, ez da inolaz ere gauza erreza.

Erdiragarritzko une, benetan ere, oso dan zerbait edo oso antzeko, erdibi egiten baita. Adiskidetasunaren alkar-erantzue-ra ohi dalakoa, urratu, hausi eta eten egiten dalako. Bizitza uneko edozein aldekeran<sup>5</sup> horixe izanik, zelan ez da izango betiko agurrez aldentutean?

Iparraize meheak dantzan ziharduan enparantzako zuhaitz goraetan. Bezperako ekaitz gogor izukorraren ostean, ortzea aratz eta garbi agiri zan, eguzkiaren dirdaipean, esandako erauntsiari garai eginik, nagusi agertuaz. Honelan, «Laba»ren gudaketa, ekaitzak adirazi eban bezela, zeru oskarbiak haren gurenda-ordua iragarten eban, nekezko itsaso honetatik aldeginaz, azkenbako egun zoritsuak gozartzeko gai egin zan-ta.

Herriko uso zuri ta berunkarak<sup>6</sup>, lagun-pilo ikaragarria ikusirik, hara honaka hasi ziran inguru osoan hegadaka. «Laba» azkenengo arnasetan, albetan egoala, kalatxori ta kaioak haren onduan ibili ziran antzean, elizkizunetara ere, herriko txori apal maitegarriak etorkiozan; uso bakun baketsuak, joakerako agurra egin nahi baileutsen.

Ikusi ebanak eta entzun ebanak zauskada haundia egin

---

<sup>5</sup> Aldekeran: alde egikeran.

<sup>6</sup> Berunkara: gris urdińska.

eutsen Txanton gizon ahul erkinaren bihotzari, eta zelan edo halan, ozta, doi-doi heldu zan geroago etxeko atetara.

Handik gorako bidea, etxerako mailak, laugarren oineragi-nokoak, amaitu ezinekoak iruditu jakozan. Oso nekatua, zeharo unaturik jo eban sukaldera. Izerdi patsa erion bekokitik, eta gorputz guztiko indarrak bat eginda bere, ez zan gauza izan lehenengo idoro eban aulkian jesarri zan tokitik jagi ahal izateko.

Benetan bere, ez eutsan bapere onik egin kalera urteiera harek. Bainan etxean geldi lotu izan balitz ere, lagun ta adiskide zintzoaren hiletetara joan izan ez balitz, ez eukean haren barruak nasaitasunik izango, ez etxekoak harezaz bakerik.

Ganeko egunetan ere, nahiko larri ta estu samar ibili zan; gerorantz, baina, zerbait itxura hobe eban haren taiuak.

\* \* \*

Etxe batean zoritxarra auzokide eta maiztar izaten hasten danean, ez ei dau aldi baten albotik igesik egiten.

Holantxe kanpaiak ere, dinbi-danba hasi ohi direanean, okerraren gain<sup>7</sup> adirazi daroe. Okerra, jakina ba, munduko arpeikeraz ohartua; betikotasunari begira ezker, egoki zer dan eta zer ez, sarri askotan gizonak tautik jakiten ez daualako.

Handik egun asko bage, kanpaiak aide erabili eban barrio bere.

Arratsalde barea zan, iluntze aurretuxa.

Kanpantorreko ezkiak dilin-dalan ekin eutsan ezordu zan sasoiari. Zer adirazoten ete eban joale iraulketa harek? Norbaiten etxekoak edo adiskide maminak Andre Mariari salbe bat eskeintzen eutsela. Nonor geiso egoala, edo arriskuan edo hil-zorian..

---

<sup>7</sup> Okerraren gain: okerra ere.

Berehalakoan, baetorren laguna baino ez zana Arranegi aldetik plazarantz, elizarantz. Emakumeak gehien gehienak, etxeetatik iraduz<sup>8</sup>, artega ta arineketa urtenaz, buruko eliz zapiak ipinten ziharduen bidean joiazala, eta hainbarik joian andrazkoak ere, atarira heltzean, sudur-zapi zuri garbiren bat zabalik eta ahalik politoen ezarten eban buru gainean.

Ama Neketsuaren irudi antzeko ebal bere burua, oinazez ta arminez, ubel ta kolorga egoan Zuriñe bere, kanpai-hots haren durundia entzutean kalera begira jarri zan, etxeko ikusguratu<sup>9</sup> ta emakumezko ibai edo erreka bizia legor alde-rantz urduri joiala sumatzean, besteren batzuk bere, atsekabepe egozala-ta, haen aldezko izatekotan, bere samin ta nekea eskeintzea otu jakon.

Zuriñe otoi hau egiten hastean, Nere ezpeletatarra nasan zehar etorren, ta bere adiskidea ikusirik, eskuaz zinu egin eutsan, azkar jetsi zeitela adiraziaz.

Zetan egoan ez ekiala, neskabila maratzaren eskabideari bertatik erantzun eutsan eta eliz ehuna harturik, jatsi zan behingo baten. Bere mantilatxua eskuan ebal arrapaladan iragan zituan etxeko mailak.

—Ba al dakizu noren salbea dan? —galdegin eutsan Nerek.

—Ez dakit txistik be, Nere.

—*Saander*-etik emon dabe albistea, ointxe-ointxe. Txarto dagoana Xirido da. Itsasotik eroan ei dabe arinak arin kai hartara, eta ointxe berton geisotegiko mahai ganean jarri izango eben ebakuntzea egiteko. Dinuenaz apendicitis ei dauko, baina osagileak, gatxa, hori baino aurreraxeago ez ete dan bildur edo dira.

---

<sup>8</sup> Iraduz: presaz.

<sup>9</sup> Etxeko ikusguratu: etxeko balkoira (ikusgura) joan.

—Ene penia, bada-ta!... Orduan... hil egingo da; hilgo da... ta... Baina, ene Ama Nekeetako hori, zer esaten dihardut?

—Haxe, peritonitis garbi azaldu ezik, nork daki ba!

Eta hitzegin bitartean, itsumustuan joiazan eliza alderantz, larri ta geraka, neskabila biok.

Zuriñeren barruak bira osoa egin eban. Aldamenean joian lagunak hitz eta pitz eragoion, baina Zuriñek jaramonik gitxi egiten eutsan haren erausiari, haren etorriari.

Txantonen alabearen bihozkadak egundoko zotin-burrkak ziran. Ekaitz egunetako itsasoak halakoxe joan-etorri latz, indartsu, mutiriak<sup>10</sup> sortu ohi ditu, ugin, baga ta barra-barrak astindu ta harrotuaz.

Joan joiazan Nere ta Zuriñe beste garaitikoen bideetaz. Honen gogoan, ostera, halako atzera-bihurtze nahia erne zan. Ai! alboko lagunari azaldu izan baleutsa bere barrenean erabilen gudu ta burrukea!

Ezin, baina.

Atsekabe guzti haek, berak bakarrik isilean eroatea eskeini eutsan behinola zeruko Amari, eta lorrak guztiak barruan itoko zituan, nahiz eta gehiago ezinik halakoren batean estanda egin...

Aurreko egunetan inoiz baino sarriago ta maizago gomuta eban Xirido... gaiztoa, une hartan begien aurrera etorkion: haren irudi atsegin, haren begirakune goxo, haren txera maitekor, haren agur-egikera samurra.

Eta inkesa erkin bat eginik, hasperen motel bat jaurtiaz:

—Xirido gizaisua! —esan eban.

---

<sup>10</sup> Mutiri: bortitz.

Eta harenganik hartutako iraina edota Zuriñek iraintzat etsitakoa, intziri horren ondoren, parkatu egitea otu jakon.

Neskatila lirain biak negarra begian ebela heldu ziran, herriko eliza ederrera. Barrura sartu, eta hainbeste lagunen erditatik aurre-aurreraino joan ziran biak, eta aldare ondoan belau-nikatu.

Zuriñeri, inguruko lagun guztiak berari bakarrik begiratu-ten eutsela iruditu jakon, ta arpegiko koloreak gorri-gorri egin jakozanean, bere buruaren lor eta atsekabea han egozan guztiak argi ta garbi jakin ekiela begitandu. Ai, orduan, argiak itzali ta herria basamortu ilun bihurtu izan balitz nahi eukean!

Zer zan haren barruan sortu edo sartu zan matxinada ta zalaparta! Gora-goraka hasi jakozan erraiak. Haxe zan lotsaria!, bere ustez.

Zeren lotsaria edo ahalkezuna, ostera?

Maite dogun norbaitek dei egiten deuskunean, dana ta ez dana bertan behera utzita, bidezko ez ete da harengana joatea? Zeri zan lotsaria, ba, kanpai harek dei egin baldin baeutsan?...

Neska gurbil lotsorra begi guztien ikuskari, berbera zala-ta egoan; eta ingurukoak berazaz izango zituen esatekoak... Armin, arrenkuraz ikusten eban bere burua ta buruko uleak ere latz eukazan, eta bekokian behera izerdi larria erion.

Elizako isilunea urratu zan, halako batean. Eta harako txikot intziriti harek Amaren estalkia jaso ta distiraz betea agertzean, gogortuxe ta noiz itoko eukan arnasestua ezagun ezagunean zabaldu jakon. Han eukan betiko Ama Andrea, begirakune samur baino samurragoz, irripar antzo.

Apazak, soineko zuriz «Agurra» kantaten ziharduenean, eliza zokondo hartako Emakume santuak, irrizuri baltzerana ta txera gozoa egiten eutsen herritarrai, bere magaleko umeei. Honeik otoika ziharduen.

Zuriñeren erregua, barriz, berarizkoa izan zan:

«—Xirdoren arima eder izandakoa —orain dan unean ez balitz ere— heriotz orduan, hiltamu aurrean barriro lehen bai-zen garbi ta zindo geldi daiteala; eta, arean, azken-ordu hori oraindik urrun baldin balego, lehenbailehen osatuta... ta garbi-turik, hel dedila bere portualdera.»

Bare ta nare gelditu jakon barrua, noizbait, eskari bigun horren ondorik, norbaiteri zertxubait parkatzean, edonori gelditu ohi jakun lez. Eta beste jendetza mordoak alde egin ebanean, eurekin batean urten eban kalera, lehentxuago bere burua lurpean ezkuta gurarik ebilen neskatila nahigabetuak.

Otoi labur gartsu haren bidez, *dana* parkatu eutsan Xirdori, hil nahi osatu.





## XXI

### TXORIAK IGESI

Elebarri honetako notin edo lagun gailenen gorabeherak azalduten jardun bitartean, ezagun ditugun beste batzuen barririk ez dogu adirazi. Ez ditugu, ostera, ahazturik.

Ez dau bizitzaldi honek beti arpegi berbera.

Zerua, batean ilun eta ekaitzean agertu arren, hurrengoan argi eder zemaigabe<sup>1</sup> ta adu-izpiz janzten daki. Ez dabe begiak oro bateratsu negar aldi, negar-iturri izateko soilik eginak ez diralako.

Ezpainak bere, ez dira aldioro muker ta zimel agertzen. Badakie irripar goxorik egiten. Norberentzat eta aldamenekoentzat.

Arantzagabeko lorerik ez dan arren —zaharren hitz zuhurrara baita— arantza artean lore usaingo, likurtez bete, urrin zoragarrizkoak hazi, marduldu ta hatson<sup>2</sup> eskeinka dagokiguzana, ezin uka.

Honelantxe, Jon langile aspergaitzak, bere zoritxar-larresastraka artean, lehen baino bidexka eroso ta ibilerrezagoa egiten ziharduan.

Behinolako suak eginiko kaltea, zelanbait, hainbestean ordaindu eutsen ezker, berehala hasi zan jausi ta ezereztutako

---

<sup>1</sup> Zemai: mehatxu, amenazu.

<sup>2</sup> Hatson: usain gozo, lurrin.

olabea iragi ta jasoten; ta zurebateko<sup>3</sup> tresna barriak erakarriaz, lehengo arloari ekin.

Etxea bere, erre jakon etxea bere, ez eban osoro galdu. Bai zera osoro galdu! Lau hormak, horma sendoak zut eta lerdan eukazan euki.

Ez zituan, egia esan, antolatutako ondasun osoak; bainan lehen ez eukan zerbait —nor bait, ziurrago— baeban orain. Bihotz-lagun bat, eske ta galde ibilitako laguna hantxen eukan bere alboan. Ez alegia, berak amestu eta nahien izan eban neskatilea; bai haren kide zana, hain zuzen.

Badakigu Jonen maite-amesa aspaldi, Zuriñe izan zana; ames ta gurari hori, ostera, azkenez, Madalengan egiztau zan. Madalen zan, antza, zeruak Jonentzat aukeratua eukan bizitzarako bidelaguna.

Irakurle zuhurrak, Madalen, mutil honen atzetik ebilena, aintzia susmau eikean, Jontxuk baino lehen, arranotan.

Bainan, dana dala, orain pozik egoan arotza bere zoriaz ta ez eukean ez, bere Madalen beste inorgaitik aldatuko. Une larrian alkar sakonkiro ezagutu eben-ta, gauzak hobatuaz joiazan une honetan, gure gazteok euren izapen ta asmoak alkartzenago zituen.

\* \* \*

Zuriñek, Xirdoren izen ona beztua<sup>4</sup> ta lohitua zala eretxi eutsanean, honengan zituan uziak bertan behera mazkildu ta hilaginean bazterrera zituan, nahigabez baina damu haundiz, pena esan-ezinez.

Arranegiko lora eder honek bere kolkoan egiten ziharduan maitetasun-habiatxua, sarraski ta urratu egin eban zeharo, tutarrez, harako Errekan urteniko irauna<sup>5</sup> jakitean. Xirido

<sup>3</sup> Zurebateko: zura ebagiteko.

<sup>4</sup> Beztu: belztu, baltzitu.

<sup>5</sup> Iraun: irain, laido.

ahaztu gura izan eban, ahaztu. Ta horretarako, zazpi ahaleginak egiten hasia zan.

Harako Jonen bihotz-eskabideak gogora jakozan. Eta baita amak behin baino sarriagotan esaniko Kermanenganako hitz bigungarriak ere. Bata baino bestea hobeago ziran mutil galant bioen irudiak, buruan erabiltzan Txantonen alabeak.

Lehen nahi ez-ta, ardurazko ez eretxita, izan zituen senar-gaitzakoak, gero horren ezezagariak ez jakozan begitanduten. Hare gehiago, begiko ere bajakozan, jasekoago, ta gogokoago.

Burutapen eta gogoeta honeitan jardun eban ganeko egunetan. Asmoren bat, burubideren bat?

Artean, Xirido ez zan, zorionetan, hil. Ostera, zinoenez, osasundutzenago ete zaneko barriak jaso ebezan herrian. Eba-kuntzatik ondo urten ei eban eta haren gorputzak, goraldi ezaguna egin.

Hori zala-ta, herrian zabaldu zan zurrumurru nardagarriaz jokabideak argitu behar zirala-ta; bere buruak inogandik lotsaririk zertan hartu ez ebela-ta, arrantzale begi urdina herrira baino lehen, erabagiren bat hartu behar ebala sinistarazi eutsan Zuriñek bere buruari.

Bainan egunak joan, egunak etorri... udabarrian, kabi epelean lehenbizikoz idoro ohi ditugun arrautzatxuak, gu hurrengo haen bila joan orduko iges eginak aurkituten ditugunez, beste txori gazteñoak ere, hegazka ebiltzan.

Zuriñek ames zituan txori narrugorriak ere, lumatu, jantzi, buru-argitu ta hega-bizkortuaz... hegan joan ziran, Txantonen alaba bihozpera harek bere menpe hartu baino lehen.

Nor ete zan Bizkarrondo zaldunaren bihotz barea, urduri ta pilpiratsu jarri ebana? Herritar neskatila lirain bat ete zan, ala erbesteko andereño panpinaren bat?

Aspaldi zala bere amak —ama guztiak ohi daben auresusmo zorrotzez— horren poliki azalduko gertakizuna, egiazko

itxuraz agertuko ete zan, eta esku artean lez eukitako txoria, urruneko egutera joango ete zan bere kabi beroa, bere ohatze guria egitera?

Mundu honetan egiten ditugun egunak direan liluragarri, gero gehienetan, eskein-liliak elkortu, zimeldu ta zitu<sup>6</sup> bage deuseztuteko!...

Goizeko eguantz alai, txori ta argitsua, sarri askotan egun goibel eta arrats euritsu aldatu ohi dan antzera, geuri eder atsegarri<sup>7</sup> iruditutako lehendabiziko zantzu ta susmoak, huskor<sup>8</sup> ta antzu ta arnalgabe<sup>9</sup> itzuli ohi dira.

Zuriñeren gero-asmo-lore hirukoitzak ere, bata bestearen ondorik geundu, urdindu, ximurtu ta idortu egin ziran.

Egunak egun eta asteak aste, kolkoari maitero iratsita euki eban irudia, minaren minez egia esan, baina azkenerako ere, erautzi, urratu ta ezabatu egin eban. Xirdoganako eukan jita, inortxuk susma ta igarri orduko, ezereztu ta puskatuaz, bere barrutik errotik, tutarrez kendu uste eban.

Harako Jon, aurtemein ezetsia, beste emakume baten maite-amarruak bide, haren sareetan jausita ta lotuta ekusan.

Eta Kerman, hitz laburreko mutil jatorra, bere menpe euki zeikela inoiz uste izanikoa ere, iges joiakon, iges, maite-arloari egokionez, begiak neskata edo batengana zitualako...

Aita, geisorik; untzia... galduta; bihotza... lagunez alargun.

Izan ere, Zuriñe zintzoaren barrua oinaze-osin mingots egin egoan. Aintzinekoak, ibar honi, negar-herri erizteko, ziorik nahikoa ebela, uste eban gure neskata maitagarriak.

---

<sup>6</sup> Zitu: fruitu.

<sup>7</sup> Atsegarri: atsegingarri, gustagarri.

<sup>8</sup> Huskor: huts egin leikeana.

<sup>9</sup> Arnalgabe: fruitu bako.

Herriko jai ospatsuak ganean ziran, irailaren lehenengo egunetan ohi diranak.

Egun eder pozgarriak. Kanpora joateko zori gogorra izan ez dabenak, pozez itxaroten dituen urteroko jaiak. Erbestean dabilzan herritarrak, euren zokondo maitera heltzeko orduaren begira jarten dituenak. Egun gogoangarriak beti ere: «Sarantoliñak»!

Zelako gogaroa izan eukean Zuriñek jaietarako?...



## XXII

### IZEN ONA DAN EDER

Bai dala pozgarria bakoitzaren sorterriko jaien bezpera! Gabon-egunak mundu osoan atseginaldi diranez, herriko jaiak harako gauza berezi ta zoragarria izaten dakie txoko bateko semeentzat.

Gabonetan, bakoitzak bere sendiaz egoteko gogo bizi-bizia izaten dau, dagon lekuan dagola.

Bainan, herri-jaietan besterik da. Orduan, herriminak, halako gurari handi, gar itzalgaitz, egarri ase ezin batek zaletzen ta zulatzen deusku bihotza. Egun hori heltzean, jaiok hurreratzean, herrimin horrek zirikatuta, ahal dauana behintzat herri ingururantz hasten da, sorterritxuaren galdez, kale zahar-rak ikusminez, laguntzarrak agurtu guraz, norbere kabia musuka nahirik, bazter maite ahantzezinak barriren barri ikusi, aztertu ta oin bigunez zapaldu orde, igurtzi nahirik.

Horrelantxe, agorrila amaitu-hurren danean, udako egunik beroenak igesika hastean, lekeitiar semeak dagozan lekuan dagozala, bihozmin batek, gogoeta batek, asmo ta gurari batek jo, inarrosi ta dardarikatzen ditu: euren uri maiterako bideak egin beharra, horixe da euren buruhauste bakarra, horixe euren bihozkadarik zoli ta maminena.

San Antolin jaietarako jaioterrira heltzea!

Egun haetan kaleak etxe bihurtzen dira, herriko seme guztiak anai, auzokideak etxeko, kanpotarrak herriko, ta erbes-teratuak... zoriontsu.

Pozkariozko lurrinak dardar egiten dau haizearen hegoetan, ta inguruko seme jatorren kolkoetan maitetasun-isurpenak, gainez.

Heldu zan ba, irailaren lehenengo eguna, jai bezpera, arean bere.

Iparraize baten soinu ezin entzuneko, zeruaren zola, ortzearen sabai hedatsua, izarren zelai gaina, urdinez gantzutua agiri zan.

Ugarteko pinu gero ta lerdengoak, bandera-makila zut harroak zirudien goiko ortzi-kristalari begira.

Aldereren alde, hodei kaxkar baten oztopo orinik<sup>1</sup> ez egoan egun hartan eguzkiaren ibilarian. Etxeko seme urrundueri itxaroten egoan ama kutuna zirudian, Lekeitio inguruetako izadi zoragarriak.

Egun hartan helduko ziran, bai, «ardi galduak». Ez ardi galduak ziralako, hain zuzen; urian sortu ta handik alde eginda biziaz, gehienbat sorterriarentzat galduak izan ohi diralako baizik.

Legorrez, aldraka, elika, taldeka helduko ziran semeak. Batzuk, ordu laburretako bideetaz; eta beste asko, barriz, egunetako bideak egin ostean.

Eta garaitikoak itsasoz helduko ziran; zama edo karga-untzietan dabilzan itsastarrak, eta batez bere, arrantzan ohi diharduen untzi guztiak, aldean eukena eukela, herrirantz abiauko ziran.

Ta herri osoa jaieguneko janzten ziharduan une hartan, emakumetxu bat bide estu, medar, aldapatsu harritsu batean gora joian, barrua astuntasun baten menpe ebalarik.

Ez dakizua<sup>2</sup>, irakurle on, oinak uretan eta burua zerurantzago dituan Lumentxa mendixka zorrotz txuntxur biribila nun dagoan?

---

<sup>1</sup> Orin: orainen, orezta, nakan, peka.

<sup>2</sup> Ez dakizua...?: Ez al dakizu...?

Mendixka horren bidetxua-zehar, egoki ta polito eratutako gurutzebidea dauka uritxu horrek. Ta hori dala-ta, gaur egunean Kalbario mendia eristen deutse hangoak. Muino polita da, zerurabide liluragarri!

Hamaika bidar zidor horreitan, otoiak gorantz bialdu-ahala, malko lodiez ureztatu ta busti ohi ditue lurreko harri koixkorrak, arrantzale-andren negar gaziak...! Makina bat aldiz, *aita gure* errukigarrietaz batean, zizpuru eta inkesak soinu egin dabe sasiarte, gartxuondo ta elorri-adarretan!

Ez daki kaialdeko emakumeak otoi apal bategaz elizan nahiko-egiten, bertan-goxo egiten; ezta zinez, eleiza baketsu ta isila, leku egokiena, barreneko antsiari ta min-oihuari atea zabal uzteko.

Ez.

Kanpoa behar dau, leku hedatsua, bakartia, bihotzaren intziariak aiseki zabaldu ta hegatzu daitezana.

Ama lurraren ikuspegia behar dau, itsaso haundiaren neurrieza, bata ta bestea begiztatuaz, munduko arantza, lahar<sup>3</sup> ta lorrak gomutaraziaz, bizitzaldi honetako itobeharrak oroituaz, gure buru ta izatearen gain dogun zeru urdin ederra ikertu ta ikusiaz, geure kolkoan ditugun atsekabeak oihuz, hitz ozenez, aldarriz ta heiagoraz adierazo daikeguzan.

Eta batez ere, harako Ama neketsuaren antzera, haren minen ondoan gureok motel eta kaiskarrak ditugularik ere, beraren oinazeen pare ezarriaz, neke bide medar, harritsu ta arantzadunean lagun dakiguzan.

Itsasertzeko andreari bide zidor hori gogoko jako, barruko oinazearen laguntzaile egoki jako, soinarentzat nekagarri dan aldatsa.

---

<sup>3</sup> Lahar: sasi



Zidor hortan eskeini ohi ditu bere pekatuen zorkaiak, zidor hortan eskatu zeruari bere hutsegiteen parkamena eta garaziaren iturriko ur-tanta batzuk, zorion-egarriaren aringarritzat.

Zidor hortan zehar joan joian goiz esandakoan, Zuriñe dohakabea. Bere idekoak bizitzabideetan arraiki, pozez ta amesetan ikusten ebazalarik, bitartean bere barrua larri, adoregabe, ilun eta bakar ekusan.

Zer eskintzera joiala, baina, minetako Amari egun alai hartan, oinaze-bideetatik? Zein ete zan goiz zardai<sup>4</sup> ta txairo hartan egin nahi eban eskaria?...

Kurutzeak kurutze iragan ostean, han agertu zan mendis-karen gailurrean, Kristoren gomutaz zutik dagozan hiru kurtzio handien oinetan auzpez, belauniko, Arranegiko zabaleko lili garbia.

Tontorreko bedar erdi igartuen adar-eskuetan, eguzkiak idortu barri zituan ihintz tantoen ordez, emakume begietako inontz tanta ederrak dirdiz egien<sup>5</sup>, barriren barri, txirlarri<sup>6</sup> bikainak ainean.

Gure ibilera zoro galpidezkoen ordainez Jesus maiteak eginiko bide odolez beteak garbitu gurarik, neskatila samurra-  
ren begieri —iturburu hezea iduri— graziaren gisako ur garbi damuzkoak erioen<sup>7</sup>.

Otoi luze, arren beroa egin ostean, zutundu zan noizbait neskatila amultsua. Zeruari luzaro bai luzaro so eginaz, lurrera eban, halako batean, bere begien ikusmena.

Eta aldakeraren zoragarria! Izadiaren eder-erditze zirudian.

---

<sup>4</sup> Zardai: lerdan.

<sup>5</sup> Egien: egiten eben.

<sup>6</sup> Txirlarri: perla.

<sup>7</sup> Erioen: «erioezan» beharko litzateke. Zerizkien.

Zerua ta itsasoa laztan etengabean ikusi zituan. Itsasoa ta legorra alkar-musuka jardun irungarrian<sup>8</sup>. Eta mendi erpin garaiak, goitar dei gozoa entzun baileben buruak harro zutituz egozan, ortzearen magal bero urre-errainuz betean, maitekiro etzin nahirik.

Izadiaren erakusburu zorapenezkoa! Izakien maite-kanta birloratsua! Jaun eskuzabalaren emaitzezko euri mamina!

Zer gerta ete zan lurrean, edota zer jazo jakon neskatileari barruan?

Han egoan Kantauri itsaskolko haundia, aratz, txukun, urdin. Hantxe kai babesgarria, han hondartzak, ederrak oso, han ibai gardena, han ugarte jasankorra —itsasoari bekoz beko itsasgizona iduri itxaropenez gainez, etorkizunari begira bailegoan—; hantxen uriko etxe mordoskak, kale estu bihurriak, hantxen ikusmeneko eleizea, han zumardi berdez jantzia, han Talako harri bakarreko kurutze ederra, han kaigana, han bere etxea,...

Dana beti lez, gauza guztiak bestetako antzetan.

Herriko usotxoak hegan ebiltzan, eta harantzago kalatxori, kaio ta zantzak ikusgarrizko zirribirroak egiten zituen haizearen huts-zokoetan.

Bare egoan itsasoa, bare izadia, goieneko argiaren distirapen urretan pitxizatua.

Baretu zan, Zuriñeren barrua be. Eta hainbeste bidar ikusitako gauzeri, barri eritxen. Barri, eder ta maitagarri ere bai, galdu-hurren dan zeren bat aldenduko ez jakula jakitean, maitagarri ohi jakunez.

Bere uri politari, jaioterri kutunari begira ta begira, asperzteke egoan. Haren begietatik malko guri gori bik iges egin

---

<sup>8</sup> Irungarrian: baterakoian, batzarkoian.

eben, masailetan behera. Negarrok, ostera, pozezko ziran, ba-  
kezko, ezkerrezko, nasaigarritzko.

Alabaina,... bat-batean, isilik egoan ibar zulo hartatik heia-  
gora, oihu, didar batek igon eban, deiadar luze, luzeago, motel,  
zurrunbilozkoa.

Kaigenera begira jarri zan Zuriñe. Nasatik Arranegi kale-  
rantz eta Zabalerantz lagunak arinak arin joiazala ikusten  
eban.

Zurrumurrua geroago ta hurreago zan. Udaletzeko zaba-  
lune edo Guzurmendin jentea batera bestera nabaritzen eban  
tontor hartatik. Ez ekian zer esan eta ez zer asmau ere. Ezbe-  
harren bat, hasarreren bat, pozkario ete, norbaiten etorrera?...

Bazan, arean, ordu hartan urira norbait etorteko. Beste  
askoren artean, jakina. Osatuta eta onik, Xirdo zan etorteko...  
Ta bizirik etorren gizon gaztea, heriotzaren atzaparretatik itzu-  
ritako<sup>9</sup> arrantzale lerdena, osasunez etorren arren, haren izen  
ona gutzia beharrean egoan jaioterri laztanean...

Bainan gorputzak osatu ta onduten dakianak, gogoia ondu-  
ten eta izen ona zainduerazoten ere, badaki.

Xirdok, herrira heltze-ordurako auzira deitua eukan hara-  
ko Artazitzuneko bizialargun makur, beterre, mingain luzea.

Eta auzitegira joatordua zanean, Xirdo herrira noiz hel-  
duko egoanean, eguerdiko hamabietan, usotxoak janari eske  
adi-adi egon ohi diran orduan, horra nun atso sorginak nasa-  
zaharreko kaiganean belauniko jarririk, oinak biloizik —hain  
zuzen Zuriñe han mendi-tontorrean malkoz ta otoiez ari zan  
unean bertan—, aintzinako biraolarien gisan, ainengile<sup>10</sup> haen  
antzera, besoak zabal, bainan madarikatzeko orde z parkeskeko

---

<sup>9</sup> Itzuri: alde egin.

<sup>10</sup> Ainen: maldizino, birao.

oihuak eginaz, lurretik jagi ta ortozik ibiliaz kaleetan barrura didarrez hasi zan.

—Parkatu begit<sup>11</sup> zeruak, Xirdori nik eginiko iraina!... Mutil hori garbirik egoan, eta holantxe dago egon, gaur bere!...

Eta hitzok argi ta zoli behin ta barriro esanik, kaleak kale iragan zituan atso ximur harek, lehengo artazien ezten-miztoa, zuzentasun-ezpata bihurturik.

Jente guztia konkortuta egoan, aitearenka, gertakari hori ikustean.

Eta gure itsastar mutil zintzoak Eskolapean oina ezarri ebanekoxe, baekian herri osoak, baekien kaleko harriak bere, harako laidoaren zapokeria, harako ahalkeizunaren guzurra, harako lotsariaren zuzenbakokeria.

Xirdok hori entzutean, atso eztenari bertatik parkatu eutsan, ta auzitegira bidea hartu barik, etxerantz abiau zan, ezagun eta adiskideen agur eta txerak birritako aldiz jaso ostean.

Arranegiko zabalera zanean, begirakune luze galdezgarria egin eban, nun zer ikusiko. Han begira eukozan andre mamin-tsu gizeneri irribarre zabal egitean, bere hagin zuri ederrak erakutsiaz, Atxabal kalean gora ekin eutsan, zain egokion amaren besoetara ahalbait lehenen heldu nahirik.

\* \* \*

Bitartean, hilerrirako mailetan behera etorren Zuriñe, begiak argi, bekokia bare, bihotza bakez.

Menditiko jatsieran ez eukan igoerako larripiderik.

Ez ekian, ostera, zergaitik zan.

---

<sup>11</sup> 1958: bekít.

Bainan, etxera orduko jakin eban bai jakin, didar ta oihu haen barri.

—Ama bedeinkatua! —esanaz, nun egoan bere ez ekiala jarri zan.

Eta arimea pozarren ebalarik bihotza lotsatu lez egin jakon...



## XXIII

### GURE URIKO IZARRA

Iondone Andolin eguneko goizaren pozgarria!

Bekar bakoitzak irudimenera norbere herriko jai-egun nagusia. Bezperan helduriko herriko semeak orduan alkar ikusten dabe, gehienbat, plaza zabal ederrean.

Meza nagosi ta ibilketa eleiztarraren ondorik, Zumardiko arbola mardoen orriak eginiko gerizpe ozkirrian, itsasaize emearen kresal-usainean, hantxen alkarrengana joten dakie beti herrian dagozanak eta, damurik, kanpoan bizi beharra daben herritarrak.

Eta musikari taldearen soinu eder ta eresi bigunak entzun-ahala, agurka, kaixioka, esku-joka ta lepo-igurtzika jarduten dabe gazte ta zaharrak, gizaseme ta gizalabak. Halako une pozgarririk ez da, beharbada, urte osoan.

Hantxen batzen dira bakoitzaren izena ta izana, joana ta etorkizun-amesa, bakoitzaren gomuta ta oroiak, alkarren ezau-pide, adiskidetasun eta maitetasuna.

Bai dala gozo aspaldiko doinu ezagunak barriro entzutea! Eta are atseginago, soinu bigunon egile, eresi bizkor ta bihoz-korren asmatzaile herrikide argiak izanik.

Azkueren «Vizcaitik Bizkaira», «Ortzuri», «Urlo»,...

Zapirainen «Txanton Piperrri», «Anbotoko Damia»,...

Biok herrikoseme goragarriak, eta gure herriak zor handi bana deutesnak!...

Eresi gozo, musika samur, bihotz-hizketa, barruko susmur isil,...

Hantxen egoan beste askoren artean, Xirdo etorbarria bere, arrantzalez inguratua. Izan ere, musika ederzale sutsuak ditugu gure arrantzaleok betidanik; belarri oneko, entzumen fineko, kanta samurrentzako aho-zuriak, bertsozaleak inor izatekotan.

Egun hartan ez hurrengoetan ere, ez eban Xirdok ikusi nahi eukean emakume gaztea ikusi.

\* \* \*

Bainan, zaparrada ta iskanbilak, soinu ta algarak, dantzaketa lar zoroak eta egun alperkerizkoak amaitu-hurren ziranean, Andra Maria Antiguakoaren egunsentian, lehenengo meza-tatik urtetean, etxerantz joiala tope egin eben alkar Zuriñek eta Xirdok.

Zelan adierazo dagike idazleak —bihotz hotz, alegia— alkar ikusteke alkar-maiteka ziharduen gazte potolo biren aurkitze haxe? Zelan azaldu, alkarren bila ta alkarren lotsaz dabiltzan lagun bik, aspaldi ez-ta, alkar-bat egiten eben une esan ezina?

Xirdok aspaldidanik eukan kolkoan itsasirik ta iratsirik neskatala xaloaren irudia. Bere mailarako larregi uste izanik, ostera, ez zan inoiz ausartu barruko morapiloa askatzen. Ez eban aukerarik, hobeto esan, ez eban behin bere, adorerik izan hortarako.

Horretaz ganera, Zuriñek, guztien isilean maitatutako gazte koloregorria, harako irain doilorra zala bide... ezetsi eta bere gogotik jaurti ta suntsitu nahi izan eban ezkerero, lotsagarri erizten cutsan mutilagana hurreratzea<sup>1</sup>, azken aldian bere bihotzak Xirdori salketa eginik; lehena zanik ez ebalako uste.

---

<sup>1</sup> Hurreratzea: aditz-erregimenez hobeto, *hurreratzeari*.

Ez ekien nundik hizketan hasi. Hizketarako mingainak motel diranean, ostera, bihotzak pil-pil diranean, begiak dakie mintzatzen.

Eta eguzkiaren goiztar izpi epeletara lorak zutik harrotuaz, kukulak ideki ta pipilak hedatuaz lurrin goxo eskeinka ari izaten diran bezela, lili eder orbanbage mardul guri ziran urre-bihotz bi haek ere, alkarren argi-izpira, alkarren berotasunera idekiten hasi ziran.

Goizeko izarrak klik egin zeru gardenean, ta erdi lotsaz sunsi ta gorde urdinaren magalean, gazteen maite begirakunak sumautean<sup>2</sup>.

Xirdok nundik nora hizketan hasi ez jakinik, barruan irakiten ebilkiona zelan kanporatu ez ekiala, pirra-pirraka eginaz hegan ziharduen inarai<sup>3</sup> so eginaz, jalki eutsan:

—Bai pozik dabiltzana enara honeik! Laster datorkie nunbait, hemendik aldegitoko eguna.

—Euron etorrerea izaten dan pozkarria! Joatea, barriz...

—Ta nori ez atsegin negu-giltzarion helduerea, harako binan-binan agertzen jakuzanean...

Goizaren soina biloizik egoan iparraizetan. Izadiak irribareea eukan begitaratean eta usotxoan urrumarak errez entzun zeitekezan isiltasun haren kolkoan.

Ta eleizara bidean joiazalarik —neskatilea urrunera begira joian, ta mutila honeri arpegira begiratzen ausartuten ez-ta— Zumardiraino heldu ziran.

—Zuk ba al dakizu gauza bat? —esan eutsan bapatean mutilak.

—Zer gero?

—Txoriak dakien kanta hori, nork irakasten ete deutsen. Bataren kantuari, besteak horren errez igartea! Ezerezetik

---

<sup>2</sup> Sumautean: susmatzean.

<sup>3</sup> Inara: enara, elai.



sortzen al dira kanta horreik? Amesetan nabilela uste izaten dot nik neuk, sarritan. Bainan, ames hori itzarrik nagola egiten dodanean, sinistu egiten dot.

—Zer dozu ba, ames hori? —inotsan Zuriñek, entzun nahirik ta ez entzun nahirik, liluraz ta bildur samar.

—Hara, Zuriñe. Ikusten al dozu han urrunean itsasoak eta zeruak bat egiten daben ertza, lerroa? Horren antzeko dozu nire guraria bere: neu itsaso naizelarik zeruaren zatiari heldutea, oratutea. Ames hori iristekotz, itsas barrura joan ta joan egin arren, muga hori ez dot egundo eskuratu. Inoiz, heldu-hurren izanik, ustez, bertara... ta beti iges egin ohi deust. Ba al dakizu itsasoa nor dan?... Neu naiz; Xirdo da... Itsaso latz, gogor, arriskutsua. Eta ez al dakizu zerua nor dan, edota nor litzakidan? Zerua... zerua... Zuriñe izeneko bat.

Eta hori esanik, gainean eroian zama handi astuna lurrera egotzi izan baileban, arnasaz bete zan, hatsandi<sup>4</sup> eginaz.

Neskatilearen masailetan koloreak dantzaketa zoroan hasi ziran. Zumardira helduta, Abaroa zaldunaren harrizko iduriaren ondoko harri-pilaretan gelditu ziran, ta hesi hoen gainean besoak tolestuaz, urrunera begira egozan alkarri so egiteke.

Xirdok aspaldian bol-bol erabilezan gogoetak bigunkiro kanporatuaz, azkenean, bere barruan eztanda ez egitea lortu eban. Bare-bare gelditu jakon barrena, ekuruz<sup>5</sup> bete, denduz<sup>6</sup> josia, Tala aldean ebiltzan kaio zuri-arreak orekan geldi ohi diran bezela.

Zuriñe, ostera, hamaika bidar ezereztzat utzitako ames gozoak egia bihurtu eitekezala ohartutean, konorta erdi galdu-rik edo, tentel samar egoan, barruko taupadak nekatur.

---

<sup>4</sup> Hatsandi: arnasbehar, arnasestu.

<sup>5</sup> Ekuru: lasaitasun.

<sup>6</sup> Dendu: oreka.

Plazako zugatz-hostoak orbeldurik, mordoka lurreratzen ziran aroan, gazteon maitetasunak lehenengo kimu ta niniak izateko zori zoritsuak eban.

—Benetan al diraustazu, Xirdo?

—Jaungoikorako! —erantzun eutsan mutilak baketsu ta sendoro, arrantzale bulartsuak ohi daberen hizkera gozo ta artetsuz.

Hori entzunik, zeruan sartu zan neskato urrezko uleduna; ez tigan egoan, ezte gutan arean bere, nahiz eta kanpoan hainbeste ez agertu.

Zumardiko ta Loretegiko zugatzetan mila txorik eten zituen ez tarriak maite-kantak joteren. Uginak, Karrazpio ta Izuntzako hondarabalak begiztatuaz etozan itsas barrenetik, legorraren ezpainak atergabeko jardunean lastanduaz.

Izadiaren maite-abestia zan.

Egun batzuk lehenago Zuriñek Lumentxa tontorretik ikusitako aurkientza eder baketsua, haxe zan. Bere sorterreri polit zoragarria, bere ametsen tokia, maitetasun-kabi epel izango zan, zinez. Etorteko zana, heldu bide zan. Behar eban laguna, hurreratua zan. Aldameneko izango ebana, alboan eukan, ta maite-hitz erionez samurturik, hatan bere.

Olerkariak, gehienik, ilunabarrean dakiez joteren maiteminduen zinkurinak; arratsean ei dira alkar-beharrez diraneren aitorepen bigunberaak. Baliteke. Bainan alkarren bila dabiltzanak edonun eta edonoiz dakie barruko min eta gurariak agertzeko beta ta eretia aurkitzen, iturriko ur gardenak maitesoinuketan, gaeuz nahiz egunez, isiltzeke jardun ohi dauan lez.

Eta holantxe izan zan goiz argi eder hartan.

\* \* \*

Antiguako Amaren egunaren atadian haizera eban, ba, euren maitakundea Zuriñek eta Xirdok.

Bataren eta bestearen begietan itsas zeruen urdinak zelaitxu zoragarriak erosi zituan, ta lehenengo urrunera begira ta gero alkarrerri, maitale barriok ezer gehiago esan ezinik, isilik, zorionez gainezka, toteldurik lotu ziran.

—Hamaika bidar eskatua, egun gogoangarrían emon deust Andra Mariak —inoan berekiko neska zorabiatuak.

Andra Maria agertu zan hondartza zaharreko Elorri Zuria-  
ren ondotxutik igarotean, eskarren ezaugarria mosuz beteteko gogoia senti izan eban neskatxak.

Ta ondoren, elizara ziran. Uriko Izarraren etxe eder, herriko sinismendunen gaztelu sendo, uriko betiko Jaunaren jauregi bikaina! Hamabi aldare dituan eleiza harro, zoragarria. Bizkai osoan, gotiko eran hoberik ezagutzen ez dauana. Era-  
kusmeneko Basilika hori, ingelesak egina dala da esatea, Baionako katedralaren antzekoa baita, haek egina. Lehenengo eleiza zaharra 730. urtean edo, egin ei eben. Gero, 1289.ean hiru obispuk donetsia. Ta 1288. urtean haunditu ta barriztaurik, 1512.ean amaitua. Andra Mariaren irudi baltzerana, bizkaitar irudietarik hiru zaharrenen artekoa. Itsasoko hondartzan VIII. mendean elorri batean agertutakoa. Aintzinatiko, zahar edo antiguako izen hori 1502. urtean ipinia ei da, aldare nagusi barrian beste Andra Mariaren bat egin ebenean.

Erdimendeko bidaztiak, Konpostela, Erroma ta Hierosolymerako erromesetan, bideko geldiune beharrezkotzat etsi ohi eben, Irudi Zahar honen oinetan atsen egitea<sup>7</sup>. Irudia, 0,40 metro garai da; motza da izan, lan apainga<sup>8</sup>, santugin lehenen-  
gotarrak ohi eben lakoa.

\* \* \*

Eta hantxen, betiko Amaren oinetan, otoiez, euren umeza-  
roan bezela, onik, pozik eta atseginez egozan, neska-mutil

---

<sup>7</sup> Atsen egin: atsedean hartu, gelditu, lotu.

<sup>8</sup> Apainga: apaindurarik bakoa.

begikoak. Euren ukondoaz ukondo, hantxen egozan Kerman eta Arantza ere.

Aingeruak abestua bailitzan, kanta gozo, gogo betegarriok entzunarazi zituen, mutikoak korutik kantauaz. Kortabitarte<sup>9</sup> batek 1866. urtean asmauriko aspaldiko bertso ezagunok:

«Salbe, Jaungoikoaren Ama orbanakoa,  
Lekeitioko Izar, Antiguakoa.

Antiguako Ama, Birjina Maria,  
lekeitiar guztien atsegingarria;  
geure itxaropena zeugan ipinirik  
Zeuk gordetan gaituzu gaitz guztietatik.

Zeuk bigunduten dozuz itsaso asarriak,  
Zeure kontura dagoz marinel tristiak;  
Salbe bat kantau eta besterik bagarik  
sarri ikusten doguz libre arriskutik.

Lekeitioko plazan bai ordu onian  
alba-izar ederra agertu zinian;  
sarri ikusten dogu Elorri ederra,  
negua izan arren beti primadera.»

Bakealdietan pozez kantau ohi diran eresi bigunak. Eta estularrietan eta galorduetan bularrean, itxaropen txinpartaz goriturik, otoi bero bihurtzen dakien doinu ta esangura aho betekoak.

«Negua izan arren, beti udalena...»

Azkeneko bertso horren azala, ta hara bere muina, kolko barruan iratsita gelditu jaken gure gazteai, untza hormari bezela.

---

<sup>9</sup> Franzisko Kortabitarte, 1841. urtean Lekeition jaioakoa, Madrilen Erret Kaperako tenore izan zan. (E. Erkiagak emoniko oharra.)

Bizitzako bideska medar ta mergatzetan aurrerantz ekiteko, zalantza ta bildur-antzak uzteko akulu zorrotz izan jakezan, izan hitz betegarriok.

Udalenaren arnasea beti ere senti ahal izatea, Amaren esker-gantzua bihotz erdian nabari ahal izatea da; bizitzaldiko neguaren bildurra bazterrera jaurtitzea, labur esan.

Ta mutilaren gogo osoa igurtzigai batek gozatzen eban artean, Zuriñeren barruan aspaldidanik izetu ta itzali, ager ta oste ebilen itxaropen-izpia, gar barri batek arnastuta, zuzi dir dai antzo, distira zorabiakor, begininien zulagarri bihurtu zan.

Ibili ta ibili, portu bila ta aterpe eske ari izan ziran gazte haek, azkenez, euren muga, xede ta geltokira heldu ziran.

Bakezko portu ta kai babespetu hori, alkarren sentimentu ta barne-mina eben, biak bietara. Maitetasuna!, hitzik ederrena, soinu isil hunkigarriena. Ez da besterik, izan ere, izadiaren kantua, uda nahiz negu, ipar ala hegoi-aldeetan...

Behin eta barriro ere, bidezidor bardinak izan ditue munduan, ARRANEGIn sortu ta hazitako seme-alabok, euren biziera jasankor hori aukeraturik.

Arriskuleku dan itsaso izugarri horren urruma latz eta gozoak txikitandik jasoak eta ikasiak izanik, ez eben errez izan doinu ta oihartzun horregandik iges egitea. Ta hantxe gelditu ziran biak, gertakari baltzen aurrean, etorkizun-lainoaz bildur-tzeke, itxaropentsu.

Iguripen sendoak haizatu ta zuzperten ditualako, emetutako hogeigarren mende hontan ere, aurretikoen izpiritu-gogoari atxikiak, euren bihotz, odol eta zainak badabe mendu, jas eta kemena bizitza-itsaso gogor ta nekatsua igaroteko, untzi zingle ta makal hortan sarturik, oihalak zabal, arraunak sendo, besoak mardo, bihotzak pil-pil:

«Itxaropen untzian tostarteko, Betikotasun-kaierantz...!»



## AURKIBIDEA

	<i>Iñaki Sarriugarte: Sarrera</i> .....	5
	<i>Koldo Mitxelena: Arranegi</i> .....	27
	<i>Eusebio Erkiaga: Arranegi</i> .....	29
	Atadian .....	31
I	Herrimin .....	33
II	Txalupetxean .....	39
III	Eder eta gazte .....	47
IV	Zeruetako Giltzari .....	55
V	Arrantzaleen aureskua .....	60
VI	Maiteminez .....	66
VII	Treotzarea? .....	72
VIII	Lagunaren begira .....	83
IX	Atsekabe handi bat .....	89
X	Hegaluzetan .....	93
XI	Ama baten ardurak .....	102
XII	Barruak aginduta .....	107
XIII	Iñeseren uziak argitara .....	117
XIV	Arrantzalearen goraipe .....	124
XV	Larrosatxuak bost orri 'ditu' .....	130
XVI	Bidaburuan .....	136
XVII	Errekako esamesak (Vox populi) .....	142
XVIII	Orbana .....	155
XIX	Udako ekaitza .....	161
XX	Kanpaiak .....	173
XXI	Txoriak igesi .....	182
XXII	Izen ona dan eder .....	187
XXIII	Gure uriko Izarra .....	195

6. EDO GEUK EDO ÑOK EZ.  
EUSKERAREN ALDE  
«Kirikiño» (Ebaristo Bustinza)  
Aurkezpena: Xabier Perea-Adolfo Arejita
7. IPUIN ANTZEKO ALEGI  
MINGOTSAK  
Mikel Zarate  
Aurkezpena: Igone Etxebarria
8. BATETIK BESTERA  
Eusebio Erkiaga  
Aurkezpena: Iñaki Sarriugarte
9. AUÑEMENDIKO LOREA  
Txomin Agirre  
Aurkezpena: Rosa M<sup>a</sup> Arano
10. KRESALA  
Txomin Agirre  
Aurkezpena: Mirari Alberdi-Jon Arretxe
11. JAIOTERRI MAITIA  
Jose Manuel Etxeita  
Aurkezpena: Iñaki Sarriugarte
12. TXURIO TXORIA  
Eusebio Erkiaga  
Aurkezpena: Igone Etxebarria
13. GAROA  
Txomin Agirre  
Aurkezpena: Bingen Zupiria
14. LATSIBI  
Resurrección M<sup>a</sup> Azkue  
Aurkezpena: Mirari Alberdi-Karmele Olano
15. IXTORIO-MIXTERIO/IPUIN-  
-MIPUINAK  
Jean Barbier-«Otxolua»  
(Bernardo M<sup>a</sup> Garro)  
Aurkezpena: Igone Etxebarria
16. GUDA NAGUSIA (1914-1918)  
«Kirikiño» (Ebaristo Bustinza)  
Aurkezpena: Xabier Perea
17. ZAAR-BARRI  
Jose Antonio Oar-Arteta  
Aurkezpena: Segundo Oar-Arteta
18. EUSKO-UMEAK ATZERRIAN  
Xabier Goitia  
Eratzaillea: Jaime Kerexeta
19. ARRANEGI  
Eusebio Erkiaga  
Aurkezpena: Iñaki Sarriugarte

**Agertzekotan:**

ABERE DONTSUAK  
C. R. Hallack-«Otxolua»  
(Bernardo M<sup>a</sup> Garro)

AUXE DA ETXEKOA. GORA JELI  
«Kirikiño» (Ebaristo Bustinza)